



BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

booktegi.eus



5. zenbakia · 2019ko martxoa · 7€

ZENBAKI HONETAN

Alazne Arruti Bengoetxea, Iñigo Astiz,
Amaiur B Blasco, Paul Beitia Ariznabarreta,
John Bele, Martin Bidaur, Naroa Elortegi,
Oihana Epelde, Gabriel Errekabide, Telmo
Irureta, Joannes Jauregi, Jon Gurrutxaga
Urbietta, Mikele Landa Eiguren, Garazi
Mugarza Markina, Lurdes Ondaro Mallea,
Eider Perez, Txapel, Itziar Ugarte Irizar, Ane
Zubeldia

LEKORE aldizkaria

www.lekore.eus

Zuzendaria: Jane Iturbe

Editorea eta argitaratzailea: ITU banda

Irudiak: Kattalin Barcena Guarrotxena
(45. orrikoa izan ezik)

Diseinua eta maketazioa:

Txakur Gorria

Inprimaketa:.

Antza S.A.L.

www.antza.eus

© edizioarena: ITU banda literatura taldea

© testuena: egileak

© irudiarena: Kattalin Barcena Guarrotxena

Azpeitia, 2019ko iraila

Lege Gordailua: SS-1691-2016

ISSN 2530-7053

cc-by-sa Creative Commons

Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>

EDITURIALAK	5/
Egoerak <i>Alazne Arruti Bengoetxea</i> (FIKZIOA)	10/
Roberto eta Bolaño <i>Itziar Ugarte Irizar</i> (ERREPORTAJEA)	14/
Desagerpen boluntarioa <i>Mikele Landa Eiguren</i> (FIKZIOA)	18/
Txioka <i>Telmo Irureta</i> (FIKZIOA)	19/
Ordulari unibertsala <i>Txapel</i> (POESIA)	22/
Capote, Romand eta hirurok <i>Emmanuel Carrère</i> (ARTIKULUA)	25/
Etxebizitzak <i>Eider Perez</i> (FIKZIOA)	31/
Lauaxeta gaur (POESIA)	35/
Autopista sigi-sagan sartzen da hirira <i>Gabriel Errekabide</i> (FIKZIOA)	44/
Orain arte momentuarekin nahikoa izan da <i>Oihana Epelde</i> (FIKZIOA)	45/
Ohera <i>Telmo Irureta</i> (FIKZIOA)	46/
Gauden lekua <i>Jon Curretxaga Urbieta</i> (POESIA)	48/
Urretabizkaia eta Mintegi <i>Itziar Ugarte Irizar</i> (ELKARRIZKETA)	52/
Barkaidazu ama <i>John Bele</i> (POESIA)	66/
Bar Baptiste <i>Lurdes Ondaro Mallea</i> (FIKZIOA)	68/

a u r k i b i d e a

- /70 Izana amiltzeraino *Garazi Mugarza Markina* (POESIA)
- /71 Dena berdea da *David Foster Wallace* (FIKZIOA)
- /73 Ocean Vuongen bi itzulpen eta bakarrizketa bat - Ocean Vuong
Ane Zubeldia (POESIA)
- /76 Pasatu ahala argitzen diren gauzak *Iñigo Astiz* (FIKZIOA)
- /81 Zu *Itziar Ugarte Irizar* (POESIA)
- /83 Aitaren heriotza Joneri kontatu bezala *Martin Bidaur* (FIKZIOA)
- /85 Joanak eta etorriak *Alazne Arruti* (POESIA)
- /88 Cleo ispilu aurrean *Telmo Irureta* (FIKZIOA)
- /89 Ordu txikitako hitz lerroak *Narrea Elortegi* (POESIA)
- /92 Ene Cristina *Mercè Rodoreda* (FIKZIOA)
- /98 Hiru poema itzuli: Aldika, Oroit ezazu, Santa klara uhartea I (POESIA)
- /102 Errepide luze bat zen, eta *Gabriel Errekabide* (FIKZIOA)
- /103 Sagarroiaren herra *Amaiur B. Blasco* (POESIA)
- /106 Abiadura galtzen *Samantha Schweblin* (FIKZIOA)
- /109 Zalditeria gorriaren kanta *Paul Beitia Ariznabarreta* (POESIA)

Editurialak

(Itun azkena)

Ohartuak behar duzue aspaldi: inoiz ez gara finak izan emandako hitza betetzen. Ematea ere ez zaigu lan erraza, eta, zertarako gorde, guk ere badakigu, nahi genukeena baino gehiago, hau dena, hein handi batean, generazionala dela. Hau du, bada, Lekorek bere azkena.

Zoru libre bat genuen aldarri; hitzezko zoru bat. Nola esan ez genekizkienak esaten saiatzeko, elkarrekin eta bakarka, zer gerta ere. Igartzen genituen zamak, hemengo eta oraingo izan beharrarenak, sumatzen mugak, herrenak, esperantza susmagarriak; eta sentitzen bor-bor mundua jan behar baten bulkadak. Bideak ekarri gaitu hona, denborak egin du berea dena, baina horiek, den-denek, hor diraute. Hor, gure zain.

Kito, ba bukatu da ere nekeza izaten da lehenengoan irensten. Zenbait ate ixtearen, gorputz batzuen beroa galtzearen edo orain bat horitzen hastearen atariko bilakatzen dira hitzok. Bizitze hutsaren beldurak gogor jotzen duenean, gurago izaten da ezer ez eman agortutzat; hobe erdi herdoila, osorik hutsa baino. Baina gu ez gaude horretarako. Ezer zentzuz husten hasten denean, hobeto beste bide bat probatzea; hori da erabakia. Zeren beldurra gero kraskatzen hasten da —badira egun horiek ere eta eskerrak— eta orduan eguzkiak bihotza erretzen dizu eta arnasa ere epeltzen dizula sentitzen duzu, lagun batek kafe batera gonbidatzen zaitu gure herri honetako mila eta bat terrazetako batera; edo bestela, zerbeza batera, geratzen diren taberna ilun umezurtzetako batera, eta, oharkabea, berak nahi gabe kasik, orduan, ituan jotzen du: Poliki joanda soilik helduko gara sakonera, eta orduan soilik izan libre.

—Dena dugu aurretik —esan zuen gutako batek hileta eguna zertzean.

Onartu dugu, egunero jokatuko dugu dena; agerian garena, isilean amesten duguna. Orain gertu gaude datorrenerako.

Ziklorik gabe ez da aurrera biderik. Iraganeko puntu bat orainarekin lotzen duen soka harilkatuz osatzen da zirkulua. Eta behin tenkatuta, eten egiten da, ez eskuan dugun hari mataza zakarretara botatzeko, egindako distantzia eta ibilbidea aztertzekeo baizik.

Soka honek ibilbide oparoa izan du nigan, nire gela propioa bilatzeari ekin eta honen atea zabaltzen hasteko edota nire liburutegian irakurri nahi nituzkeenak idazten saiatzeko beste. Eta, nola ez, modu natural batean hasi eta garatu genuena iraungi aurretik amaitzen jakitekeo beste.

Apokalipsiaren orgak aditu ditugu, irakurle, elkar ikusteko eta irakurtzeko egin ditugun azken kilometroetan. Garapen teknologikoaren alderik ederrenak miatu nahi izan, pantailen hoztasunak sudur punta gorritu arte. Eta herdoilak erabat petrifikatu aurretik astindu dugu harriz eta herriz osatutako gure espazio hau. Eta hemen gaude irakurle. Paper honetan gaude. Nago. Eta ez goaz oso urruti.

Honek ez du inolaz ere adio mingarri baten zaporerik. Ez da laster arte ahula. Amaiera baten atzetik datorren hasiera dastatzeko amua baizik. Zuentzat bezainbat, guretzat.

Ez da etsia. Orria zuri uztekeo beharra senti dezake batek batzuetan. Ez Malevitxek egin bezala, zurtasuna ere izan baitaiteke ekoizpenaren emaitza. Orria huts uztekeo beharra senti dezake batek batzuetan. Ez bizitza ezinbestean paper bustia delako, baizik eta ezer esateko ez duela uste duelako batek batzuetan. Hemen dator bira ironikoa. Batzuetan beharrezkoa da gerora bustiko den pape-rean desitxuratuko diren hitzak idaztea. Norbere buruari emandako hitza ez jatearren, edo besteei emandako hitza ez haustearren.

Hizkiak josten ematen dugu denbora –nahiko genukeena baino gutxiago ia beti, egiaz inora heltzeko beharko genukeena baino askoz ere gutxiago beti eta beti– edota hitzak irakurtzen, eta, halere, batzuetan batek ez daki oso ondo zer den hitzen zera hori, barrutik kanpora zerbait ateratzeko beharra, norbere burua besteen aurrean inor dela erakusteko premia: norbera existitzen dela ziurtatu nahia, besteak norberaren antzekoak direla jakin beharra.

Orria hutsa uztea ez da besteentzat kalte, nahi eta behar beste aitzakia jarri arren kontrakoa sinesteko, baizik eta norberaren kalte. Orria hutsa uztea ez existitzea dela uste duelako batek batzuetan, nahiz eta orria hutsa uzteko beharra sentitu.

Papera betiko busti aurretik hasten da orduan bat hitzak josten, azaletik, barrurainoko bidearen beldur, barrukoa azalekoaren desberdina izango balitz bezala, zauria gehiegi ez zabaltzeko itxurak eginez, papera busti artean bizitzea guztiz funtsik gabea ez dela erakusteko norbere buruari.

Paper gainean tanta batzuk ikusten ditu orduan batek, oraindik hitzekin bete gabeko zatian, eta hasieran idatzitakoari erreparatzen dio: hasierak amaiera argituko balu bezala.

Kontua da, finean, bizitza paper bustia baino ez dela, baina, batez ere, papera paper bustia baino ez dela hasieratik bertatik, paperetik eta hitzetik lekora badagoela bizitzarik –eskerrak–, eta zurian hitz zuriak idazteak ez duela ezertarako ere balio. Esan dezala nahi duena Malevitxek.

Urduri jartzen naizenean, bietako bat: lerdokeriak esaten hasten naiz edo lerdokeriak hitz-joko merkez estaltzen saiatzen naiz. Ez dut neuk esaten, lagun onak ditut eta ez dute erreparorik tokatzen dena plasta botatzeko.

Konplizitatea izan da gurean irauteko oinarritzko lehengaia. Hitzekiko zaletasunak soilik eman ziezagukeen maila horretakoa. Berrasmatu egin beharko da, beraz, konplizitatea. Baldintzek ematen duten garaian berriz jaiotzeko. Ingurukoei errespetua baino gehiago zor ez, eta ekimenak aurrera ateratzeko prestutasun osoa adieraztea. Garai bateko zenbait kontu on gure garaikoak ere badirela frogatzea.

Txakur txikirik ere ez zuketen emango gugatik. Ez dut uste inork manifestu aurreraturik nahi eta espero zuenik. Hor dago, halere, inork ikusi nahiko balu, paper mordo bat –marjina zuri zabal samar batzuk salbu– tintaz lepo.

Amaiera epikoa. Nahi beste berri izan ez garenon eta behar beste borra ezagutu ez dugunon garaia kronika literario bat egin nahi izan dugu.

Amaiera xaloa. Epeek ito izan gaituzten arren, zenbat barre eta zenbat *birra*, aizue. Eta zenbat elkarrizketa serio. Ez gaitzateka karikaturizatu. Elkarren etxeko gara orain.

Heltzear gauden lagun-talde ederra? Heltzear daude bestelako arnasaldi kolektiboak. Mertzzi.

Menturazaleen sasoi amaitu dela esan izan da, eta harekin literaturarena. Gu ez gara detektibe basatiak izan Mexiko Hirian, ez gara Pottekoak izan Arriaga zaharreko tabernan, ez gara erromantiko ingelesak izan Leman lakuaren ertzean. Zer izan garen, gu guztiok, zail da esaten. Esaterako, izan gara: krisialdi globalaren garaian hazi direnak, hezkuntzak asebate gabeko nerabeak, irakur-zale porrokatuak, unibertsitate urteak gurasoenetik kanpo eman ahal izan dituztenak, gurasoenen geratu behar izan dutenak, Bilbon kafe eta ardo artean bildu direnak, karrera osteko bizitza krudelaz jabetu direnak, maitale hobeak eta kaskarragoak, elkarren-gana hurbildu direnak eta urrundu eta gero berriz hurbildu direnak.

Hori guztia izan gara eta, askotan, hori baino gutxiago ere bai. Izan gara geure buruak eta geure ingurua ezagutu nahi izan ditugunak eta izan gara idatzi dugunak. Sasoi batean bizitzea egokitu zaigunak eta hartan bizitzeko modua idatziz topatu dugunak. Argitaratutako aldizkariak dira gure lekukotza.

Mentura beti egongo da eta, ondorioz, literatura ere bai. Sasoi jakin batean bizitzea egokituko zaigu beti eta hari aurre egiteko lekukotza berriak beharko ditugu. Detektibe basatirik, Pottekorik, erromantiko ingelesik ez da berriz ere inoiz izango. Baina beharko dugu gaurtik aurrera ere ituliriak izan, geure sasoi den atzeko idi gorri mantsoa atsedetik gabe akuiluka bizkortzen jarraitzeko.

Ezingo bazenute hau guztia irakurri seguruenik ez zinateketen hau guztia irakurtzen ariko ez nukeelako idatziko irakurriko zenuketela jakingo ez banu. Hala ere, hor doa paradoxa, erosoago sentituko naiz izkiriaturakoa guztiz intimoa, pribatua eta nirea den zerbait bezala idazten badizuet. Barne bakarriketa bat bailitzan, nik neuk soilik entzun dezakedana. Uste dudalako agian zuei ere sinesgarriagoa egingo zaizuela hala bada, beraz, zuen “nire baitan sartzeko” predisposizio hori lagungarri izango zaio testuari funtzionatu nahi badu, egin mesede arren eta barnera zaitezte letrazko artefaktuan. Orain arte idatzitakoa zein idaztear dudana berez sortu zaidala sinets ezazue, esan nahi dudana kanporatu ahal izateko ez ditudala igaro jarraldiak buruari bueltak ematen gau epeletan izara hezeei legez. Kasu egidazue badiotsuet, adibidez, “mustuka” eta “bahetu” berbak hiztegian bilatu aurretik jarri zaizkidala atzamar puntan. Zehatz-mehatz garunetik ateratzear zen ideia osatzeko behar-beharrezko nituela eta ez dela alderantziz izan, ez nautela berbek irakurtzen ari naizen nobelaren orrien bitartez aurkitu ni, ez ditudala esaldiok hitzontzako beren-beregi eraiki. Eskerrik asko.

Normaltasunaren erritmora makurtzeko maki-lakada bat gehiago ote den ez dakit, baina ezer gutxirako balio izan dit erabakiak atzeratzeak eta itxuraz beste amaiera batek harrapatu nau (sekula ez dut jakin gauzak neronek amaitzen). Amiltzeko aukera bat idatzi gura nukeenaren eta sortu-takoaren arteko alde abismalean.

Aspaldi nabil alde guztietatik ihesean, ez dira hauek nire sortzeko denborak bizitzak ezinbestean koldartu banau. Edozeren gainetik iritsi nahi izanagatik galdu du zentzua bideak eta hargatik egin nahi dut atzera orain. Hasierara itzuli nahi nuke eta hutsetik gozaten hasi, igual aterako da zerbait. Gaur artekoa idatzita geratu da.

Benetan miresten zaitut egiten duzun oro horren era xumean egiteko gai zarelako. Ale ederrak izan dira. Hemendik lekora jarraituko nuke zurekin ardoa konpartitzen. Mila esker gaur eta egunero.

*Hautsa pilatu aurretik
hobe zarratu leihoak.
Egindakoak
ez ditzadan bahetu behar
iragandakoari so naizenero.
Amaitu gabe agurtzea izan baitaiteke
apal hauentzako
mustuka eraginkorrena.*

Alazne Arruti Bengoetxea

Isilik hobeto zaude maitea

Amona, lehen garbia zegoen erreka hori zergatik dago orain zaborrez beteta?

Etxetik bost bat minutura, trenbidea igaro eta hizki fosforitoz hornitutako kartelari egin dio so. Begiak zimurtu eta hantxe topatu du bizpahiru astetatik buruan iltzatu behar izan duen norantza. *18 de Marzo*. Eskua luzatu eta bere parean gelditu eta zabaldu dira ateak eta oinaz lehen eskailera ukitu orduko abiarazi da motorra. Hemen, *agarrar el camión* esaten da. Orain zentzua du denak. Ezin lasai cogear el autobus esan, demonstre. Etorri aurretik ezin imajina zezakeen zenbat egoera xeblebre sortzeko gai izan zitekeen arrunt eta erabilgarria zaion aditz huraxe.

Etxetik irten aurretik hartu ditu txanponak eskuan. Lehen bidaietan, autobusera igo eta balantzaka txanpon guztiak lurrera jausi zitzaizkionetik hartu du 6 pesoak etxetik irten aurretik batzeko ohitura. Diru-zorroa zabaldu eta eskuan irauli ditu guztiak. Bost pesoko eta bateko txanponak 2 eurokoaren antza daukate, eta nahiz eta bigarrenak 20 zentimokoaren neurria duen, sarritan nahastu izan du bata bestearekin.

Kalean bizi diren pertsonak ez dute zaborra botatzeko edukiontzirik orduan?

Gainezka dator autobusa. Zutik doa, motxila aurrealdean egokituta eta eskua buru gaineko helduleku metalikoan oratuta. Neskatala ez da isildu bidaia osoan, gibelaldean sumatu du amonari galde eta galde, inongo lotsarik gabe eta jakin minez, geldialdi lehor bakoitzean hankekin lurra gogor heldu eta oreka mantendu nahian dabilen bitartean. Baina belarriak zorroztuagatik ezin aditu ditzake amonaren azalpenak. Zubira hurreratu ahala, estolda usain gogorra neskatoaren ahotsarekin katramilatu da. Erreka zergatik zikindu den besterik ez du nahi jakin. Eta ulertzekoa da, edukiontzi eta beste-lako zaborrez gainez doan ur masa marroizkak goragalea eragiten du.

Baina kalean bizi diren pertsonak zikintzen dutela ez al duzu esan?

Neskatoa ez da amonak esandakoarekin konformatu. Akaso ikusi dituelako etxega-beak zaborrontzien ondoan diru eskean.

Ikasi

Irakaslearen zain dago gela. Hogei bat minutu igaro dira eta ez da oraino ageri. Urrezko erregelaren arabera, hamar minutu barru ez badator ez dela eskolarik izango azaldu dio atean dagoen ikaskideak. Azalpena amaitu bezain pronto sartu da irakaslearen aurretik.

Administrazioaren historia azaltzeari ekin dio letra txukunaz. *Chaparrita* samarra da, metro eta erditik ez da igaro. Begiak kolore biziz pintatuak ditu, baina nekez irudikatu du goizeko autobus bidaian apaintzen. Oraindik txunditua dago emakume horien abileziarekin, berak nahiko lan du ibilgailuaren abiadura aldaketa bortitzetara ohitzen. Alaia da. Ikasleen bromak erantzuten ditu. Eta baita bat edo beste gehiegi jarraitu ere. Historiaurretik hasi eta gaur egun arteko gizartearen erreposoari ekin dio. Ikasgai interesgarria izan daiteke akaso.

Genero eta adin banaketarekin hasi omen zen dena: administrazioari esker indarraren araberrako lan banaketa sortu zenean, gizonak ehiztari eta emakumeak etxeoandre bilakatzeko. Belarrian kirrinka sakona. Bizitza sedentarioa atzean utzi eta zibilizazioak garatzen hasi omen ziren. Estatuak sortzen eta lan kolektiboa nagusitzen. Azaleko azalpenekin jarraitu du eta nekez jarrai daiteke haria.

Baina halako batean feudalismoaz berriketan, *fornicar* hitzaren esanahiaz galdegin du. Giroa bizitu da eta ikasle ororen arreta bereganatu du. Garai hartan, jauntxoak ziren agintean eta erreinuko dontzeila orok ezkontzeko intentzioa izanez gero, jauntxoarekin igaro behar omen zuen lehen gaua. *Errespetua galtzen ari da, andereño* lehor eta higuingarri bat aditu da ozen. Barre algara eta oihuen oihartzunak eztanda egin du. Akabo.

Zailtasunak

Ezagutu aurretik beldurtzen zintuen herrialdea maitatzea uste baino errazagoa da. Heldu bezain pronto, joan zaitez bertako ikasleekin bizitzera. Gosaldu beraiekin. Partekatatu infusio eta kafe kizarak. Hitz egin, galdetu eta askatu zalantza eta korapilo guztiak. Eta berehala ikasiko duzue elkarrekin bizitzen.

Galdu zaitez lehen asteetan. Larritu. Baina oroitu esandakoak. *Ez eman sekula galduta zaudenaren itxurarik*. Itsaso zabalean gosetuta dagoen marrazo bati ahora odol tanta bat eskaintzea litzateke. Heldu tinko motxila bizkarrean eta zapaldu gogor hainbeste aldiz estropezu eginarazi dizun lur berbera. *Uber*-a zeure lagunik onena izan daiteke batzuetan eta bestela, hartu arnasa sakon, igaroko da halako batean ezagun duzun norantzan doan kamioi berdeetako bat. Egon adi.

Irakasleak ez dira sekula orduan helduko. Beraz, izan prest diskurtso sinpleren bat galdeketa inprobisatuei erantzuteko. Gai izan behar zenuke gutxienez, “zergatik herrialde hau? Nola irudikatzen zenuen? Gustuko duzu? Zein lekutan izan zara dagoeneko? Zein jaki/edari dastatu dituzu? Pikantea jaten al duzue han? Nola irudikatzen gintuzun etorri aurretik? Zein da esan dezakezun birao bortitzena? Edaten duzu?” gisako zaparradak jasateko. Ez dira erraz errendituko. Eta galdeketa amaitu ostean borondate onenaz zerrendatutako gomendioak baliagarriak dira erabat. Hartu itzazu gogoan.

Baina lasai egon. Izango duzu eten unerren bat. Eta eromenarekin jarraitu nahi izanez gero, hiri zoro hau ezagutzen jarraitzeko eskaintzak ez dira sekula agortuko, zinez. Beti izango da bisitatu gabeko *Pulquería*-ren bat. Ikasle-txartelaz musu-truk bisita dezakezun museoren bat. Txoko txundigarri edota dastatu gabeko tako min zerutiarren batzuk.

Eta egunen batean, autobus dardaratia utzi eta etxerako bidean, ez duzu gorputza tenkatuko. Ez motxila gogor helduko. Ez behaztoparik egingo ohiko lur gorabeheratsuan. Ohartzerako, ezezagun zenuen eta beldurtzen zintuen fabela koloretsuen mendixka urrundik begiztatzean, leihotik goizero ikus dezakezun kaosak etxean sentiaraziko zaitu. Giltza zarrailan sartu eta nekez irekitzen zenuen ateak, bere kasa irekitzeko joera hartuko du. Eskailera kiribil eta estuak gorantz eramango zaitu hegaz. Eta batez ere, ataria zeharkatu orduko beti izango duzu besarkada beroren bat zure zain.





BAR

ROBERTO ETA BOLAÑO

Itziar Ugarte

Gerta daiteke aspalditik entzuna baina apenas irakurria zenuen idazle baten itzala, lainoa mendi artean sartzen den eran, zirrikitu guztietatik sartzen hastea. Roberto Bolañorekin gertatu zaigu. Itzal egiten dio mito batek: Latinoamerikako kanonean bukatu arren, bizi osoan arrastan eraman zuen bizitza hura. Beti justu, justuegi, Herrialde Katalanetan arnas apur bat hartu ahal izan zuen arte azkenetan. Eta halere, heriotza goiztiar batek eraman. Sarean bere bizi pusken bila hasi, eta lezio nagusia bat da: idazteak bizi proiektu bat izan behar du, edo ez da izango.

Gaztetan ezagutu zuen Bruno Montané Krebsen, eta Roberto aipatzen du berak, inoiz gutxitan Bolaño. Montané, poeta txiletarra. Bartzelonan bizi da aspaldi dela. Hara idatzi, eta lehenengoan erantzun digu. Goxotasunez bueltatzen dizkio mezuak ezagutzen ez duen horri. Denbora hartzen du. Elebitan ala euskaraz argitaratuko den galdetu du, eta bigarrena izatekotan *kasik hobeto* iruditzen zaiola dio. Behin baino birritan eskertu du interesa, bere atea jotzera heldu izana. Apal-apal mintzo da lerro artean. *Ez naiz egokiena gehiengoak Robertotaz entzun nahi duena (edo entzun nahi duela irudikatzen duena) kontatzeko. Adarretatik joan naiz, baina nahiago dut hori memoriaren azpizjokoe-tan erortzea baino.*

ERRESISTENTZIA. *Infraerrealisten mugimendua zure etxean egindako bilera batean kontsolidatu zen, Mexiko D.F hirian. Garai hartan munduko bazter askotan —Euskal Herria ez da salbuespena— jazo ziren korronte antifizalisten barruan sartzen da infraerrealisten mugimendua. Beharbada, kultura ofizialak mugimendu horiek irentsi ditu, eta galdu dute sortzez zekartzaten errebeldia.*

Infraerrealismoa Mario Santiago eta Roberto Bolañoren inspirazioz sortu zen. Mariok egin zuen ahalegina aurretik hainbat lagun antolatzeako aldizkari batzuen inguruan. Nolabait esan daiteke eurek sortu zutela infraerrealismoa, Robertok eta Mariok, ikusi zutenean ideia edo inspirazio hori errotu zitekeela orduan gu ginen poeta gazteen lagun talde hartan. Era batean, modu naturalean sortu zen ideia hura, haiek bezalako bi tipo jenial ohartu zirenean modu bateko erresistentzia probatu behar zela —modu lorioski prekario batean—, komatxoekin edo gabe, kultura ofiziala dei daitekeenaren kontra. Edozein gaztek egiten duen moduan, ezkutuko klase erresistentziak aitortu eta borrokatzea zen kontua, argitaratzeko aukeraren zaindari-fantasmak, testuinguru arautu batean ikastea ala ez ikastea, literatura-tik bizi zitekeela edo ezinezkoa zela sinestea. Ni horrek 18-19 urterekin harrapatu ninduen, eta ezin dut harro agertu hura modu idiliko batean ikusi izanaz —Robertok egiten jakin zuena *Los detectives salvajes* nobelan, Mexikori eta gaztaroari eskainitako bere lehen eleberrian—. Ni orduan zuzentzaile gisa hasi nintzen lanean —unibertsitatean urte erdi bat eman ostean— eta Robertok, esaterako, artikulugintzan eta literatura kazetaritza kulturean sarraldia egin zuen.

Inpresioa daukat garai haietan, 70 erdialdean, fokua argiago zegoela egun baino, non sare sozialen garaiaren errebeldiak orokortuagoak diruditen, baina baita lausoagoak ere. Edonola ere, uste dut erresistentziak existitzen jarraitzen duela, ikusgai izan ala ez. Infraerrealismoaz hitz egitea tentsio hori gogoan hartu eta hartan sartzea da, haren memoria lotuta baitago *Los*

detectives salvajes lanak sortu duen legendari, Robertok idatzitako eleberri bikainari. Kontzientzia anbiguo bat dago orain; sare sozialen bitartez denok jakin dezakegula dena denotaz, denok argitaratu dezakegula zerbait, edo gutxienez komunikatzeko aukera izan. Nolanahi ere, galdetu beharko litzateke hori ez ote den kontrol modu berri bat, nahi duguna esan dezakegula sinestarazten digun ideia faltsua, egia ez bada ere —eta azken sententziek berresten dute—, inorentzen garela ohartu gabe. Ezezagun bihurtzen dugu nor bere baitara biltzen duen demokrazia baten ilusio arraroarekin.

Testuinguru honetan, aktibismo literarioa, edo soilik testuala, egiteko modu berrien falta nabaritzen da, hau da, sormen eta gogoeta testuak oso modu ugaritan zabalduko dituzten pertsona taldeena. Pentsatzen dut *Lekore* keinu horren parte izango dela, amaigabetzat definitu beharko litzatekeena.

TXILE. *Bolañori Txile ukitzea bere bizitza osoa ukitzea zela esaten da hortik; haren gatazka pertsonal guztiak Txiletik igarotzen zirela.*

Robertoren heziketa sentimentala, zalantzarik gabe, Txile eta Mexiko artean banatzen da. Eta jada bere helduaroan immigrazioko Katalunia batean, ia lurraldez kanpokoa. Txile kritikatzeko orduan berak nahiago zuen sorterriarekiko bere kritika propioaren jabe izan. Hori oso ondo ikusi eta irakurri daiteke *Estrella distante* eta *Nocturno de Chile* lanetan, diktaduraren gaineko eleberri ederrak dira.

Hautzaroko lurraldea ere istorio sortzailatzat defendatu zuen, eta psikismo berezi batetik; baina ez dakit berak hitz

“Testuinguru honetan, aktibismo literarioa, edo soilik testuala, egiteko modu berrien falta nabaritzen da, hau da, sormen eta gogoeta testuak oso modu ugaritan zabalduko dituzten pertsona taldeena”.

horiek erabiliko litzuzkeen. Gainera, harentzat memoria oso gai garrantzitsua zen, bere zokoak eta berrasmatzeak. Zentzu horretan, Roberto memoriaren aldekoa zen, sormen metodo gisa. Epizentro horretan ematen dira bere obrako anbiguetate hain aberatsak, asmatutakoaren eta bizitakoaren artean sortzen direnak. Oso abila izan zen nozioetan, fikzioa eta autobiografia garatzeko moduetan. Hor izan zen benetako maisua; bere istorioetan kontaktzen zen ia guztia benetan gertatu zela sinetsarazi baitzien bere irakurleen parte handi bati. Askok inporta zitzaion beste gauza bat ametsak ziren, horiek istorio ezezagunak sortu eta narratzeko duten modua amesten duenaren buruan; prozesu bat, zeinak, surrealismoaren erronken jarraitzaile zen aldetik, pista bat ematen duen Robertok tramak sortzeko zuen moduz.

Gaueko idazlea zela kontuan hartuta, detaile hori ez da hutsala. Memoriaren inguruan bada haurra zeneko anekdota bat. Etxe aurrealdean eserita zegoela, gizon bat ikusi zuen bertatik pasatzen. Gizonak agurtu eta urrundu egin zen gero. Urruntze horren sentsazioa, agurtu zuen eta gero desagertu zen oinezko harena, grabatuta geratu zitzaion arke-

tipo dramatiko edo zinetiko baten erara, ihesaldi baten oinatza. Iraunkortasun sentsazioa, eta, aldi berean, bere obra guztian dagoen absentsia infinituarena.

Ahots emozional eta intelektuarki arrunt batek bizi du bere obra. Narratzailearen ahotsa bere esperientziak ari da elkarbanatzen, eta, aldi berean, harridura sortzen du, alerta egoera oso bizia da, eta iruditzen zait nozio hori oso gaurkoa dela, ezagutzen oso erraza bere liburuen irakurlearentzat eta bere istorioen labirintoan sartzen denarentzat. Egia da Robertoren prosak maitasuna pizten duela. Haren idazkeran sekulako argitasuna eta gupida dago, eta bizitzaz hausnartzera dei egiten du, iruditzen zait, ziurgabetasunez, sexuaren misterioaz, horroreaz (edo gaizkia, asko hala deitzez) tematzen direnez), bizitzaren aukerak ulertuta kontakizunez eta keinuz betetako bidaia baten gisara; eta horretan bere irakurlea identifikatuta sentitzen da modu intimo, eta, bere erara, berrian.

OFIZIO HAUSKORRA. *Idazlearena ofizioa guztiz hauskorra, galkorra zela zioen Bolañok. Bide hori hautatu izanak bizitza mugatu batera kondenatu zuen luzez.*

“[Idaztearen ekintzaren] ahultasun hori erresistentzia bat bihurtzea zen kontua, azaleko poroak, zentzumenak unibertsoari osoki emanak izatea, idazkeratik argitasun-ofizio bat egitea” .

Roberto idazle guztiz malenkoniatsua zen, eta, hain zuzen, horregatik, baita umorista oso berezia ere. Harena oihartzun handiko umorea zen, bere baitara bildurikoa, kutsatuta barre egitera behartzen zintuena, kontaktzen zizun istorioan barneratu artean. Hauskortasun nozio horrek, gaixo zegoela jakin zuenean indartu zenak, idazlearen ofizioaren kondizioaz erradikalki pentsatzera eramaten du; edertasuna, indarra eta idazlearen gatazkak, eta horretan ere sartzen da umorea, letren herrialde beti ahularen kondizioaren gaineko argitasun forma modura.

Idaztearen ekintzaren kondizioa, goizeko ordu txikitik baino idazten ez duen idazlearen irudia, bakartuta bere gelan mundu berri eta pertsonaiez bete bat sortzen ahalegindu bitartean, uste dut berari ia heroikoa eta, era berean, izugarri ahula iruditzen zitzaioela; horregatik uste zuen etengabe idatzi behar zela, etengabe kontatu istorioak. Ahultasun hori erresistentzia bat bihurtzea zen kontua, azaleko poroak, zentzumenak unibertsoari osoki emanak izatea, idazkeratik argitasun-ofizio bat egitea.

Hobeto da Bolaño irakurtzea, haren testuak, haren artikulak. Agian eta, batez ere, hain garrantzitsua den bere poesia; egiazki, hortik dator bere obra. Bera irakurtzea hobeto da, bere obraren eta bizitzaren gainean idatzi diren milaka testu eta iruzkinak baino. Berriz diot, berak esango lukeen eran, aurrena poemak, ipuinak, eleberrak handiak, eta elkarrizketak, oso onak direnak halaber, eta ondoren irakurri, baina bakarrik ondoren, bere obrak inspiratu duen iruzkin-multzo sinesgaitza.

DESAGERPEN BOLUNTARIOA

Mikele Landa Eiguren

Desagerpen boluntario batek ekarri du hona albistegietako off ahotsak esan duenaren arabera. Desagertu egin da gainontzekoentzako, berak hala nahi zuelako. Desagertu egin da ordura arte bere kokapenaren nondik norako gutxi gorabeherakoak zekizkitenek non dagoen jakiteari utzi diotelako. Bere inizatibaren ondorioa izan da, des-agertzearena ezagun lagun eta familiakoen mapa mentaletatik, argitzeko tarte batez non ageri zaion bera.

Soila den gela batean agertu da, haren gustura betea. Mendi aldera ematen duen leiho bat dauka atetik sartu eta diagonalean, aurkako erpinean. Parean, teleskopio bat baillitza metalezko hiru hankaren gainean du kamera jarrita. Zain, so, lo edo itzalita oraingoz. Taparik gabe beti, badaezpada. Badago bi ateko armairu bat gelan, egurrezkoa, bernizaren ondorioz ikus daitekeena baino egur argiagokoa. Barruan maleta handi batean sartu ahal izan duen arropa guztia dauka. Arretaz so eginez gero edonork pentsa lezake pertsona desberdinenak behar dutela izan arropa guzti horiek. Ez dago estilo edo tamaina harmoniarik eskegita. Garai batean izango ziren beste norbaitenak, erosi zituen arte, pelikuletako pertsonaiekiko antzekotasuna sentitu nahian. Badauka Bonnie lapurraren boneta zintzilik. Alizia haurraren soineko urdina pertxan. Mary Poppins zaintzailearen alkandora zuria tolestuta. Louis iheslariaren betaurrekoak tiraderan. Armairuaren sakonean Dorothy ameslariaren zapata gorriak gorde ditu etxera agertzeko prest dagoenerako.

Gela karratu bilakatzen duten lau paretak biluzik egongo liratekeen armairuaren ondoan dagoen ispilua eta hau inguratzen duten argazkiak ez balira hor egongo. Bertara agertu zenetik errutina bilakatu du argazkiena. Ohe azpian datzan polaroid kamera zaharra eskuetan hartzen du esnatu berritan eta gelaren erdi-erdiaren paratzen da. Bertatik argazki bana atera ohi dio egun bakoitzari, begia aldiro gelako bazter batean jarrita. Horrela jarraituz gero urte baten buruan inguratzen duen espazioaren 360 graduak filmean erretratatuak izango ditu; ostean ispilua inguruan itsasteko. Bere burua ikusi ahal izateko zehazki ageri den lekuan.

TXIOKA

Telmo Irureta

MAITE: Ze, ikasten?

AINHOA: Errepasatzen. Ariketak zuzentzen. Ehun galdera hauetatik hirurogeita hamasei erantzun ditut ongi, baina begira, oraindik bi fitxa gelditzen zaizkit.

MAITE: Fitxak bihar ere hemen egongo dira, goazen gaur parrandara.

AINHOA: Ez, joan zu. Niri txintxo portatzea tokatzen zait.

MAITE: Herriko festetan etxean geratu behar al duzu?

AINHOA: Bai, aurten bai.

MAITE: Arrazoiren batengatik?

AINHOA: EGA.

MAITE: Xabier Saldias dator? Ba askoz hobeto!

AINHOA: Egan ez, Maite, EGA! EGako azterketarako prestatu behar dut. Prestatu behar dut ala prestatu behar naiz? Joder, beste zalantza bat!

MAITE: Joder ez, larrua jo esaten da. Edo txortan egin.

AINHOA: Ja, ja, ja.

MAITE: “Jajaja”? Euskaraz “karkarkar”, Ainhoa. Hizkuntza bakoitzak bere barrea.

AINHOA: Ni ez naiz barrez ari.

MAITE: Baina “kar, kar, kar” esan beharko zenuke. Gainditzen ez baduzu, ez dadila zure ironiagatik izan behintzat.

AINHOA: Gorroto ditut barre euskalduna bezalako txorakeriak. Oilarrak kukurruku, kokoriko ala kikiriki egiten duen galdetzen omen dute orain. Normala al da? Leku guztietan eskatuko didate EGako titulua, edozein lanposturako, baina nik, naturaltasun osoz eta euskaraz, ezetz esango diet, ez daukadala, eta ez naute inoiz inon hartuko oilarrekin hitz egiteko ohiturarik ez dudalako.

MAITE: Txoriekin ere ez, baina badakizu pío-pío egiten dutela.

AINHOA: *Te equivocas, pequeña langosta.* Txori euskaldunek txio-txio egiten dute.

MAITE: Eta ingelesez tweet-tweet. Horregatik da Piolín Tweety.

AINHOA: Zergatik aldatzen diote izena? Tweety bada, Tweety da. Ni, Ainhoa naizenez, beti Ainhoa izango naizen bezala. Bai hemen eta baita Txinan ere.

MAITE: Zu bai, baina Piolín herrialde bakoitzera egokitzen da.

AINHOA: Ez, barkatu, egokitzea ez da hori.

MAITE: Zer da ba?

AINHOA: Badakizu nire aitak zer esaten zuen? "Allá donde fueres, haz lo que vieres".

MAITE: Bai, eta "de casta le viene al galgo el ser rabilargo", baina ze zerikusi dauka horrek Piolínekin?

AINHOA: Egokitzeari buruz ari nintzen.

MAITE: Ba ez dut ulertzen.

AINHOA: Aber, zuk uste duzu zure auzokide marokoarrak zerbait lortuko duela izena aldatuta?

MAITE: Izena aldatu al du?

AINHOA: Ez!

MAITE: Samira izaten jarraitzen du orduan.

AINHOA: Samira izena du?

MAITE: Lehen bai.

AINHOA: Orain ez ala?

MAITE: Ez al duzu baietz esan?

AINHOA: Nik?

MAITE: Bai. Bueno, baietz ez, ezetz esan duzu, baina ezezko hori baizkoa da kasu honetan, ez?

AINHOA: Zer?

MAITE: Izena aldatu du? Ez. Eta, ondorioz... Samira izaten jarraitzen du? Bai. Informazio bera ematen diguten erantzun ezberdinak dira, *my darling*. Ez dakidana da zergatik aipatu duzun nire auzokidea.



AINHOA: Izena aldatzea herrialdera egokitzea balitz, ez lukeelako buruko zapia kendu beharko.

MAITE: Buruko zapia kendu du?

AINHOA: Ez!

MAITE: A.

ORDULARI UNIBERTSALA

T x a p e l

Goizeko 02:57 **Detroiteko** kaleetan, elurra mara-mara dabil, eta Motor Cityko pariak inurritxoak bailiran aterpe bila dabilta 8 Millean zehar. Hotz dira, ziur asko, negu gorrian 2Packen abestirik beroenak nekez berotu baititzake kaletarren gorputz jelatuak.

Goizeko 09:59 **Kigalin**. Ruandako sarraskiaren hilerririk handiena. Gaur irrati guztiak amatatuta daude, orain 22 urte ez bezala. Haatik, garrasi batek urratu du gaueko isiltasuna. Isiltasunak ez du etniaz ulertzen, ez daki oihu hura tutsi eta hutu batena den. Berdin dio.

Roméo Dallaire Koronela, munduko beste puntan bat-batean esnatu da, 1994tik amesgaiztoak edukitzera kondenatuta baitago. Bart “Hotel Mille Collinen” jazotakoarekin amestu du.

02:00 **Guatemalako** “Puerto barrios” auzoan, bi gaizkile-talde armak banatzen ari dira taldekideen artean. Salvatrucha eta 18 marek egun gogorra dute aurretik... gaur ezin daitezke etxera bueltatu etxerako lanak egin aurretik.

Arratsaldeko 16:58 **Tokio** hirian. Kabukicho auzoko kaleek odolezko malkoak ezagutu dituzte. “Beste behin” esan du egunkari saltzaileak. Yakuzzak ez du lorik egiten, debekatua dauka. Hirosima eta Nagasakiko bolandera atomikoek iratzarri zuten mafia; ordutik dago ernai.

Eguerdiko 13:27 **Delhiko** zabortege nagusian. Ezinezkoa da begiak batzea zabor unibertso horretan; batzuek diote hilotz usainagatik dela. Beste batzuek, ordea, arratoi izugarri handiak aske dabiltzalako, goseak hilik daudelako; pertsonak ala arratoiak? Egunaren arabera.

Goizeko 06:01 **Rioko** etxoletan.

Ume batek Rubem Fonsecaren liburua du esku artean *–El agujero en la pared–* ez baitaki nork egin duen bere egurrezko etxolan zulo handi hura.

10:03 **Alepoko** ortzimuga gorrixkan.

Goiz gorri, arrats euri esan ohi du errefrauak. Sirian, aspaldi, goiz eta arrats gehienak odola bezain gorriak dira. Noizbait euri tantakaden hotsek lehergailuak isildu dituzte.

08:06 **Edinburgoko** Prince Small plazan

–Yonkies square- gautxori hordiak hitz aspertua edukitzen ari dira. Mundua aldatzen alegia. Sarri asko, garagardotan eta whisky merkean arintzen dituzte haien bihotz tristeak abesten, negar egiten. Horrek ez du esan nahi, ordea, malko merkekoak direnik. Zama eta erraiak urratu bai, baita eztiki abestu ere. Ederra kantua; Lord Bayroni eskainitako oda bailitzan. Victor Hugok ez zukeen hobeagorik idatziko, entzungo.

16:02 **Shangaiko** “Old Shangai”

jatetxetik irten berri da bertako behargin bat 19 orduko txanda egin ondoren zigarreta eskuan daramala. 47 zigarreta erre ditu jada. Handik eta egun batzuetara hilda aurkituko dute bere etxean zamako minbiziak janda. 40 urte eta amets ugari zituen. Hori zioten, sikiera, bere lankideek.

10:04 **Osloko** desintoxikazio zentroan.

Heroinak gazte bi zimeldu ditu, udazkeneko eguzkiak hosto horiak bezala. Hurrengo neguan orbel bilakatuko da gure bikotea; drogatzeraz joaten diren parkeko zuhaitzak eta txoriak baino ez dira hortaz ohartuko.

12:05 **Moskuko** metroan bigarren mailako bidaiaririk ez dago. Bigarren mailakoak Plaza gorriaren aitzinean dagoen beste plaza ilun eta ospel batean ostenduta daude, gasolina eta kola esnifitzen. Kola botea talde osoarena da; aspaldi boterea herritarrena zen bezala.

09:07 **Bartzelonan.** Rabal auzoko 5. kale
kantoian gazte bat ari da eskale batekin hizketan.
Musde kaletarrak gaueko misterioak,
zereginak erakusten dizkio.
Ilunpetan, kalean edo gizartean otsoz
inguraturik dagoen artxoa dela
xuxurlatu dio ile urdinak;
bizirik irauteko hiltzeko prest
dagoen artxoa dela, hain zuzen.
Gazteak bertatik dabilen pakistandar bati
garagardo bi eskatu dizkio,
azken istant eta esaldi hura
ospatu behar dutelakoan.

Dagoeneko eguzkia joan da bere amarengana,
baina batzuek ez dute haiena ezagutu, aurkitu,
agurtu.

Dagoeneko beste egun bat jaio da,
baina batzuk ez dira sekula lokartu,
eta beste asko ez dira inoiz esnatu.
Benetako istorioak idazteko daude.

Liburu pare bati buruzko artikuluari sarrera

Durangoko Azoka bezperan eskuratu nuen Emmanuel Carrère idazlearen azken liburuaren poltsikoko edizioaren kopia bat. Bere kazetari eta idazle ibilbidetan zehar idatzitako testuak dakartza bilduma honek, artikuluak, liburu-kritikak, zinema-kritikak, hitzaurreak, etab.

Azokara eraman nuen liburu, (gehienbat) euskarazko liburuen artean emango nuen denbora berdintzeko-edo. Aparteko arrazoirik gabeko loezinean irakurri nuen artikulu hau, hoteleko ohe bikoitz handiegian zeharka etzanda, betazalak haien pisuz noiz zarratuko zain.

Euforia egunak dira azokakoak norma-lean. Jende asko, jan asko, edan asko, ez da estimulu eta emozio gorabeherarik falta. Nahi gabe luzatutako euforia egoera horretan irakurri nituen, beraz, orriok, irakurri ez nuen liburu baten

sorkuntza-prozesua irakurri ez nuen beste liburu batekin alderatzen zutenak.

Carrèreren idazkera izango da agian, *Limonoven* (POL, 2011) irakurketatik txunditu ninduen, edo gaiak berez duen interesa (niretzat, behintzat), baina artikulua itzuli beharra sentitu nuen, testua ulertu beharra, bertan agertzen diren erreferentziak aletu beharra. *Télérama* aldizkarian Truman Capote filmaren harira argitaratutako artikuluari tiraka heldu nintzen, azkenean, Capoteren *In Cold Blood* irakurtzera, artikulu hau eta beste batzuk irakurri ostean liburuari buruz nituen ideiak baztertu ezinik. Truman Capoteren bila egin nuen irakurraldia, non topatuko ote nuen idazlea, bere burua ezkutatzeko halako lana hartu ostean. Capote ez ezik Harper Lee ere ikusi uste nuen lerro-artean, Holcombseko biztanleen testi-

gantzak jasotzen, Capote bera bere imajinaziokoak baizik izan ezin zitezkeen eszenak berreraikitzen, egiazkoak zirelakoan idazteko gero.

Zailagoa egin zitzaidan Carrèrek artikuluan aipatzen duen idazlearen “egoera lazgarria” identifikatzea. Horretarako tarterik ez du uzten liburuak, behintzat, eta gogor egin behar izan nion nire buruari nobela horixe zela ez ahazteko: nobela bat, errealitatean oinarrituta egonagatik ere fikziozko lan bat.

Behin *In Cold Blood* irakurritakoan ekin nion *L'Adversaire* irakurtzeari, artikuluak markatzen duen segida jarraituz. Baina liburuari buruz hainbeste irakurri (eta pentsatu) ostean ahula iruditu zitzaidan, Carrère zen, baiki, eta bere azken urteotako obraren hastapen argia, ezagun(ago) egingo zuten eleberrietan lehena, baina

ez ninduen harritu, ez nion ezer berririk antzeman, espero ez nuenik ezer.

Liburuak merezi du bere horretan, baina uste dut aurretik halako karga ezarri niola azkenean ezin izan ziola eutsi behin irakurtzen hasterakoan. Hori ere badauka irakurtzeak: ez diogu normalean liburu bati egoera neutral batean heltzen, esperantzak eta beldurrak proiektatzen ditugu harengan, irakurketa aurretiaz baldintzatzen.

CAPOTE, ROMAND ETA HIRUROK

Emmanuel Carrère

Il est avantageux d'avoir où aller (POL, 2016)

Frantsesetik itzulia

1993ko urtarrilean, Jean-Claude Romandek bere emaztea, seme-alabak, gurasoak eta txakurra akabatu eta, lortu ez bazuen ere, bere buruaz beste egiten saiatu zen. Hurrengo egunetan jakin zen ez zela, orok uste bezala, ez mediku ez Munduko Osasun Erakundeko ikertzaile eta bere bizitzaz genekien guztia faltsua zela. Oraindik ikasle zela egin ez zuen azterketa bat gainditu izanaren itxurak egin zituen eta ordutik aurrera hemezortzi urtez pilatu zituen gezurrak, sinestezina dirudien arren, amarrua sekula agerian geratu gabe. Ez zen medikua baina ez zen beste ezer ere: ez espioia, ez arma-edo organo-trafikatzailea, hasieran uste eta espero izan genuen bezala, hain baita zaila norbait ezer-ez izan daitekeela onartzea. Autoan igarotzen zituen egunak, autobideetako atsedeen-guneetan. Eta azkenik, susmoek gorputz hartzen zutela ulertzerakoan, nahiago izan zuen beretarren begiradari aurre egin baino haiek hiltzea.

Afera honi buruzko lehen artikuluek oroitzen naiz: Florence Aubenasenak, *Libération*-en. Oroitzen naiz segituan pentsatu nuela horri buruzko liburu bat idatziko nuela. Oroitzen naiz *Odol hotzean* berrirakurri nuela, zeinaren itzala ezinbestean luzatzen baita tankera honetako edozein proiekturen gainean, eta elkarrizketa liburu bat Truman Capoterekin, non zera dioen: “Liburu hau idazteko behar izan ditudan sei urteotan jasan beharko nuena jakin izan banu, ez nukeen sekula hasiko.”

(Entzun nuen abisua: beharko nituen, nik ere, zazpi urte.)

1960an nobelagile ospatua zen Capote, baina arnasa estutzen ari zitzaiola nabari zuen eta idazle amerikar baten bizitzak bigarren ekitaldirik ez duela dioen Scott Fitzgeralden esaldia gezurtatzeko modu baten bila zebilen. Teoria bat garatu zuen, *ez-fikziozko eleberria* deitzen zuenari buruzkoa, nobela dokumentala dei genezakeena, eta teoria hau erakusteko gai baten bila zebilen. Zerbait, normalean, erreportajeari zegokiokeena eta artelan bilakatuko zukeena. Egun batez, *The New York Times*en, Kansasen ezezagun batzuek nekazari familia bat hil zutela kontatzen zuen artikulua labur batekin topo egin zuen. Berekiko esan zuen: hilketa bat, Amerika barnealdean, zergatik ez? Kansasera abiatu zen, gertatu zen herritxoan instalatu. Kasua ikertzen ari zen sheriffarekin bildu zen, jendearekin hitz egiten hasi. Capote ñimiñoak, bere karraka-ahots eta ero atzaparkatzaile manerarekin, efektu berezia eragiten zuen *rednecken* artean. Jende guztiak nazkatuko zela uste zuen, baina ez, integratu egin zen.

Hark bezala egitea pentsatu nuen hasieran: Gex ingurura joatea, Genevatik gertu, afera gertatu zen lekura, eta bertan integratzea. Jendarmeekin zurrutean aritu, familia traumatizatuek muturrean itxi nahiko lizkidaketen ateetan oina sartu, artikuluetan

“instrukzioaren gertuko iturriak” deitzen diren horiekin elkartu. Baina Capotek begiz jo zuen krimen era berean banal eta ikaragarriarengandik aski desberdina zen afera. Alde batean, kanpotiko erasoak salbaien eta ustekabekoen daukanean: bi gaizkile ezezagun, gauetik jalgiak, baserritar langile familia batean oldarka sartu eta masakratzen dutenak, hutsaren truk, 50 dolarren truk. Beste aldean, hemezortzi urtez gizon bat barnetik jaten duen gezurraren gangrena. Oinarrizkoa, enetzat, gizon hura eskura izatea zen. Idatzi egin nion orduan. Ulertu nahi nuela esan nion, harekin korrespondentzia izan, hitz egin. Ez zidan erantzun. Amore eman nuen. Fikziozko liburu bat hasi nuen gero, *La Classe de neige*, zerikusirik izan ez arren gauza beraz ziharduena: aita hiltzaile batez, gezurrez inguratutako haur batez, zurtasunean, hutsean eta absentzian emandako pausoez. Liburua plazaratutakoan zerbait gertatu zen: Romandek irakurri egin zuen, presondegian, eta hunkitu egin zuen bere haurtzaroa gogorarazten ziolako, eta nire lehen gutu-netik bi urte igarotakoan erantzun zidan: orain, ados zegoen. Ez lasaiturik hartu gabe ihes egina niola uste nuen proiektuak mahukatik harrapatu ninduen.

Argitu gabeko hilketa baten ikerketa batean barneratu zen Capote. Dena aldatu zen berarentzat hiltzaileak atxilotuak izan eta haiekin aurrez aurre egon zenean. Ez zen jadanik berreraikitzea, leherketa uhin haren inguruan, Kansaseko herri txiki bateko bizitza, baizik eta bi gizoni aurre egitea, zeinetako bat, Perry Smith, bere gertuko bilakatu baitzen, anaia higuigarri baten gisara: “nola, dio, etxe berean elkarrekin hazi eta hezi

bagina bezala, eta ni ate nagusitik eta bera atzeko atetik atera”. Laster epaitu eta kondenatu zituzten bi gizon, zeinak, ulertu zuen, bere liburua amaitzeko heriotzera arte lagundu beharko baitzuten. Puntu horretatik aurrera bereizten dira modu hain liluragarrian *Odol hotzean*ek kontatzen duen istorioa eta *Odol hotzean* idaztearen historia, eta gertatzen inoiz ezagutu dudana egoera literario zitalenetako bat.

Perryk “amigo” deitzen zion Capoteri, bere lagun bakartzat zuen eta beragandik espero zuen bere kausaren alde hitz egitea, abokatu hobea aurkitzea, epaiari helegitea jartzen lagundu eta, gutxienez, exekuzioa atzeratzea. 1960tik 1965era ezinegon-egoera izugarri batean askatu ezinezko dilema moral bat bizi izan zuen Capotek. Pasioz desio zuen



liburua amaitu eta argitaratzea, jende guztia zeukan zain eta maisulana izango zela bazekien. Baina amaitzeko istorioak berak behar zuen amaitu, eta horrek haien ongiletzat zuten bi gizon urkatzea esan nahi zuen. Capoteren etorkizuna eta idazletzaren gailurra haien heriotzatik zintziilik zeuden, eta Perry eta Dick kontsolatzearekin batera, laguntasun bat segurtatzeaz batera, Perryri dagokionez gutxienez zintzoa zena, otoitz egiten zuen, eta lagunei eskatzen zien otoitz egiteko, haien helegiteak baztertuak izan eta behingoz soka lepotik pasa ziezaieten.

Frantzian heriotza zigorra jadanik existitzen ez zenez ez nituen gaitz horiek sufritu –idazle batek sufritu ditzakeen izugarrienak, imajinatzen dut–. Romanden epaiketak, bertan egoteko aukera izan nuen, ez zuen ia inolako erronka penalik. Gertakariak frogatuta zeuden, ezagun ziren, eta betiereko zigorra aurrez onartuta –zalantza bakarra segurtasun epeari zegokion, hogeita bi urtera ezarri zena. Baina, gutunetatik kartzelako bisitetara, hala eta guztiz ere zugar konfiantza duen hiltzaile baten intimitatea zer zen ezagutu nuen. “Hala eta guztiz ere” diot, Romandi beti esan niolako ez nintzela bere abokatua eta ez nuela bere historiaren bere bertsioa idatziko. Baina zein bertsio, orduan? Krimenak gertatu eta berehala egin ez nuen ikerketa objektiboa ondoren egin nuen. Gex ingurua zeharkatu nuen Romanden arrastoaren atzetik, bere aholku eta planoak lagunduta. Bere gertukoak ikusi nituen. Instrukzio dosierra komunika ziezadaten onartu zuen: ni halako bi egiten duen kartoi-kaxa pila bat da, idazten ari naizelarik armairuan gordeta dudana, presondegitik ateratzen denean itzultzeko prest. Ehunka ohar orri hartu nituen, ikuspuntu ezberdinetatik idatzitako kontakizun zatiak, eta bost urte inguru pasatu paperezko zulo horretan, nola kudeatu jakin gabe. Urtean behin, gutxienez, irakurtzen nuen *Odol hotzean*, bere eraikuntzaren indarrak eta prosaren garbitasun beirakarak aldiro areago inpresionatzen ninduelarik. Bere hurbilketa nahita inpersonala imitatzen saiatzen nintzen, maisulan horrek zerbait oso arraroa duela erabat konturatu gabe: amarru batean oinarrituta dagoela.

Beste ezeren gainetik Flaubert maite zuen Capotek. Bere egin zuen egilea, Jainkoa bezala, leku orotan eta inon ere ez egongo zen liburu bat idazteko nahia eta kontatzen zuen historiatik bere presentzia deserosoa, Capoteren, erabat ezabatzearen ekintza zaila burutzea lortu zuen. Baina, beste historia bat kontatu eta bere beste helburu estetikoak saltzen zuen egite horretan: egiarekiko zorrozki fidela izatea. Perry eta Dicki gertatutako guztia kontatzen du, atxiloaldetik urkamendira arte presondegian emandako bost urteetan zehar haien bizitzako pertsonarik garrantzitsuena, beronen ibilbidea aldatzeraino, bera izan zela esan gabe. Esperimentazio zientifikoaren paradoxa aski ezagun horri ez ikusiarena egitea erabaki zuen: behatzailearen presentziak ezinbestean eraldatzen duela behatu gertakaria eta bera, orduan, behatzaile baino askoz ere gehiago zen: lehen planoko aktore bat. Eta uste dut historia hau, Capote eta bere pertsonaien arteko harremanena, ez zuela soilik arrazoi estetikoengatik, parnasiarrengatik, ezabatu, “ni”a gorrotagarria zitziolako, baizik eta lazgarriegia zelako berarentzat, ezin aitortuzkoa azkenean.

Neu, ostera, *Odol hotzean* kopiatzeko lanean tematzen nintzen. Jean-Claude Romanden bizitza kanpotik kontatu nahian, dossierrean eta nire ikerketan oinarriturik, eta ez dut uste sekula kontzienteki neure buruari lehen pertsonaren galdera egin nionik.

Ikuspuntuak gurutzatzen nituen, etengabe galdetzen neure buruari zein bertsio kontatu, zein lekutatik, eta ez nuen pentsatzen, besterik gabe, neurean. Eta ez banuen horretan pentsatzen, beldur niolako zela uste dut. Ez atzera ez aurrera nengoen, egiazko depresioan murgilduta, eta bigarren ez erabaki nuen proiektua bertan behera uztea. Izugarritzko onura egin zidan erabaki hura hartzeak. Liberatua sentitu nintzen, alferrik egindako lan horrekiko guztiarekiko inolako damurik gabe. Fini Romand, fini lokamutsa. Besterik gabe, bizitzara itzulera horren ostean egun batzuk igarotakoan, nire erabilera pertsonalerako, argitaratzeko inolako asmorik gabe, historia hura niretzat izan zenari buruzko txosten moduko bat idaztea ongi legokeela esan nuen neurekiko. Horrek, pentsatu nuen, dosierra itxi eta berriz ez zabaltzeko balioko zuen. Agenda zaharrak hartu eta, lehen aldiz nire gogoa torturatu gabe, lehen esaldia idatzi nuen: “1993ko urtarrilaren 9ko larunbat goizean, Jean-Claude Romandek emaztea eta seme-alabak akabatzen zituen artean, gure seme nagusi Gabrielen eskolan nengoen senideekin pedagogia bilera batean.” Horrela jarraitu nuen eta orri batzuetara baino ez nuen ulertu azkenean hasi nintzela hain luze ihesi egin zidan liburua idazten. Lehen pertsonari onespina emanez, nire lekua hartzeari eta ez beste ezein, hau da, Capote modeloaz desegiteari, lehen esaldia topatu nuen eta gainerakoa etorri zen, ez nuke errazki esango, baina zalu batean eta berez bezala.

Sei urte igaro dira ordutik. Klaxa da xahu uzten ez zaituen lan batez hitz egitea, baina ez diot beldurrik klaxe horri. Merezi zuen zerbait burura eramateak –eta horretaz, ez zait axola handiustekoa

badirudi, ziur naiz– ematen duen fiertasunari beti gehitzen zaio, nire zuhurtasuna gorabehera, ekintza oker bat egin izanaren beldurra. Beste gauza batzuk egin ditut ordutik: filmak. Liburuak hasi, abandonatu ditudanak: proiektuen egiazko hilerri bat. Eta hotzikara ezagun batek zeharkatu zidan bizkarrezurra Truman Capote filmeko azken kredituen aurrean, *Odol hotzean* ostean idazleak liburu bakar bat ere ez zuelako bukatu eta bere obra handi amaitu gabearen epigrafea Avilako Teresa santuaren esaldi hau zelako: “Malko gehiago da zeruan betetako otoitzengatik bete gabekoengatik baino”.



ETXEBIZITZAK

Eider Perez

Bat

Vanger ez da paperezko hiri bat. Aspaldi erori zitzaizkion harresi ziren saihetsak, baina arnas geldoan bizirauten du oraindik, birika bakarrez gainera. Datu ofizialen arabera populazioak gora egin zuen azken neguan, baina kaleetan arrotza da pneumatikoen arrastoa. Estoldak eta lurrazpiko erreinuak fikzioa dira hiriko pasarela zabal eta hitsetan.

Vangerdarren ibilera estatikoa da. Haietako asko etxeko bizitzan sartu eta geroztik ez dira kale- bizitzara atera. Gereziondoen Etorbideko etxe-bizitzan sartu zen bera ere. Bertara iristeko enparantza mortua, kale zahar bat eta hiru biztanle zeharkatu behar dira.

Vanger ez da paperezko hiri bat. Gaez ederra da.

Bi

Gorpu bat etzanda dago banketxearen ate ondoan, banke-
txeak fideltasun oparizat eman dion kartoizko alfonbratxoan
goxo. Zazpi aste daramatza mugitu gabe, lo egongo da
ziurrena, pena ematen du gizagaixoa esnatzeak, hain dago
goxo. Beldurra ematen du gizagaixoa esnatzeak, hain dago
geldi, hain lo, auskalo.

Ferrokarrilaren errailen pasabidean emakume bat dabil pare-
tik datorkion haize korronteari erresistentzia egiten, gogor.
Bere gorputz-enborrak haizea tinko eusten duen bitartean,
hegan ditu gabardina, fakturazio-paperak eta buru-azaleko
ileak. Gorputza aurrealdera aurreratuta, eta esku bat kape-
luaren gainean, hura eutsi ezinik. Beste eskua, bularraldean,
larruzko maleta saihetsen kontra zanpatzen; paperetatik
milaka zifra idatzi lurrerantz lerratzen dira bitartean.

Ferrokarrilaren errailetatik haizeak orrietako bat eraman du botika-denda pareko zaborrontzien ingurura. Begi bakarreko andre bat dabil paperaren edukiontzian zokomiran. Hirugarren biztanlea. Harribitxiak ikertzeko erabiltzen den mikroskopio gemologiko bat du eskuartean. Zaborrontzitik paper zatiak hartu eta banan-banan arakatu ditu alde banatik eta goitik behera. Ordainagiriak, argazkiak, zaharkitutako osasun txartelak eta kreditu txartelak; erosketetako zerrendak eta gutun hotzenak. Banan-banan arakatu eta orriak, agiriak, txartelak eta izenak berriz osatzen ditu, identitateak. Paper zatiekin helbideak berreraikitzen daramatza ia bost urte. Hiriko kaleetan ez dauden ibiltariak berpiztu ditu.

Hiru

Gereziondoen Etorbideko etxebizitzan matxuratuta dago txirrina, baita ateko sarraila ere. Atea erdi zabalik, ia itxirik beti. Laukitxo zuri eta beltzeko azulejoek betetzen dituzte ezkaratzeko paretak. Urrezko friso batek mugatzen du paretako metro eta erdia. Sabaian zortzi besoko lanpara bat zintzilik, milaka urteko brontze eta portzelanazko munstro bat dirdiraka. Egur bernizatuzko postontzian jabea nor den adierazteko papertxoak erditik ebakita dago, izen baten faltan. Paperaren edukiontzian amaitu duen beste identitate bat gehiago. Ezkaratzeko ispilua erraldoia da.

Lehenengo solairura igotzeko bigarren ate bat zeharkatu behar da. Eskailerak gora doaz espiralean, baranda beltz fin bati helduta igo daiteke. Beharbada inoiz hain lagun izan ez diren bi bizilagun, lehenengo solairuan, hizketan. Sorbalda puztuak eta aho arras deskoordinatuak, lerdez beteak. Alboko etxebizitzako atso zaharra atzo goizean hilik aurkitu zutela esan du batek, hil aurretik atso zaharrak gosalduta ote zuen galdetu du besteak. Eta, gosalduta ez zekinat, baina bizitza bakartiak atsoa irentsi din, hori argi zagon, erantzun dio lehenak.

Eskaileretan gora, bigarren solairuan auhen lizunak entzun dira: oiuhu mingarria lehenengo, eta hutsune labur baten ostean, isiltasun kezagarri bat, nazkagarri bat jarraian. Uluak. Lau pareten artean gertatzen dena, lau pareten artean bizi da. Eta bertan desagertu. Nork bere ate-barrua, eta isiltasuna. Etxebizitzak.

Lau

Hirugarren solairuko ate bakarrean bizi da bera. Aspiradora granate hautsia, mentazko gozokiak eta gorputz osoko ispilu bat dira bere pisuko ondasun preziatuenak. Zeru urdina badoa iluntzen. Egunero, arratsaldeko zazpiak aldean, zigarroa pizten du. Leihotik ez du kalea ikusten. Kea nahastu egiten zaio ile urdinduaren koloretan. Soinean duen kamisoi zuriak baditu laranja koloreko loreak eta ardo beltz orban iraunkor bat. Ezin da garbitu. Baina egunetik egunera ahaztu egiten zaio hori, eta egunero, iluntzean, goitik behera biluztu eta kamisoi garbitzen du eskuz, zigarroari hortzik gabeko ezpaineek eusten diotela. Ondoren, barnealdeko patioan dauden soketan zintzilikatuta lehortzen jartzen du.

Gaurkoa bezalako egun batean kamisoi esekitokitik behera erori da. Eraikinak barnealdean duen patio txikiko zoruan geratu da, loreontzi batzuen alboan. Badira urteak ez dela etxetik atera. Mahai gainean ogi pusketa gogor bat dago, ardo beltza ondoan. Trago luze bat eman dio botilari eta hortzik gabeko ahoak eutsi ezin izan duen ardo kopuru bera erori zaio lepoaldetik behera. Zimur inperfektuak nabarmendu zaizkio paparreko azal bigunean.

Leioha parez pare zabalik utzi, etxeko ate nagusia biluzik zeharkatu, eta patiora jatsi da, nahigabe. Loreontzien artetik hurbildu da kamisoi jausi den tokira. Lau pareta eta hamarnaka leihoren artean harrapatu du iluntzeak. Kamisoi nor bihurtu eta dantzan jarri du. Etxeko egongelan aspaldi dantzatu gabeko biko dantza bati eman dio hasiera. Bere leihotik irteten den argi apurrak argizatzen du dantzatokia. Xuxurla deszifra ezin bat entzuten da esekitokiko soken mugimenduetan. Haizeak ilea goratu eta bizia ematen die bi gorputz biluziei. Esku banaz eusten ditu kamisoiaren besoak. Jira eta bira loreontzi pare bat bota ditu lurrera eta oinutsik dabil landareen gainean dantzan. Patio zuri bat ilunkeran. Ederra da. Ederra da etxekoandre basatia eta ederra da gaua.

Azkena

Vanger ez da paperezko hiri bat. Gereziendoak ez dira udaberrira arte haziko. Etxebizitzak hustu edo ezkutaleku bilakatu dira. Ez dago elektrizitaterik kandelak piztu diren sukaldeko mahaietan. Hilotz ahaztuak belusezko sofa marroietan. Etxe gobernatuak. Izerditutako oheak eta goizeko kafeteraren lurrina eta ogi txigortu bi. Hileroko fakturak, ardurak. Korridore bakoitzaren usaina. Bizilagunen uluak eta agur ukatzeak. Igogailuak. Postontzietako iragarkiek badute zerikusirik komuneko ispiluekin, eta ispiluek badute antzik ganbaretan metatzen diren egunkari horituekin. Gortinak eta intimitatea. Giltzak.

Behatxuloak. Etxebizitzak.

Gauetz ederra da. Nork bere ate-barrua, eta isiltasuna.

Berreskuratzeaz

Ez ditugu gureak Lauaxeta berreskuratzeke garai txarrak. Gure buruez gaindi mamua baino kiratsa dabilenotan, Klee-ren aingeruarenak egin behar genituzke eta atzokoei berritoki begiratu, datorrenari aurre egin ahal izateko. Ondo letorkiguke gogoratzea eta sakon ezagutzea iragan mendearen hasieratik 36ko gerrara arte Euskal Herrian jazo zen loraldi politiko eta kulturala, zertan asmatu zen, zein izan ziren akatsak, zer idatzi zuten gure poetek. Lauaxeta izan zen horren guztiaren lekukoetako bat.

Lauaxetak modernismoaren lehen zantzuak ekarri zituen euskal letretara, mundurako bideak ireki zizkion ordura arte hari bizkar emanda bizi izan zen gure literaturari. Konpromiso politikoz elikatzen zen konpromiso estetikoa zuen eta berak ere eutsi zion euskara noranahikotzeko asmo lizarditarrari: euskal literatura muntar bat nahi zuen, eta lehen mugarrak ezartzea bederen lortu zuen. Koldo Izagirrek, Lauaxetari eskainitako Poesia Kaieraren hitzaurrean, dio asmo hori bere gain hartuta idazteak estetizismo artifizial bat ematen diola tarteka Lauaxetaren poesiari. Baina ematen dio, bestalde, bere garaiari beste moldez begiratzen dion poetikotasuna, bere garaian eta bere inguruan kokatzeko lanean dabilen poetaren izaera. Lauaxetak bere garaiarekin dialogatu zuen,

gure eta kanpoko moldeekin. Eta haren ondoren bizi garenoi eta idazten dugunoi ere beharrezkoa zaigu Lauaxetaren berri izatea.

Oro har dira, ordea, garai txarrak klasi-koentzat. Gure garaian areagotu egin dira literatur lanek klasiko bilakatze bidean dituzten oztopoak. Merkatuak inposatutako logika presazkoa dela-eta, aktualitatera makurturik ageri zaigu literatur sistema: argitaratu berria edo aurki argitaratuko dena da beti onena, irakurri behar dena, erosi behar dena. Hori ez dator soilik bat tokian tokiko panorama literarioaren auto-berrespe-nerako behararekin, ezpada ekoizpen literarioak merkatupean duen morrontza gero eta agerikoagorekin.

Are kaskarragoa da egoera euskal pano-raman. Erdal sistema handietan, klasikoen liburugintzak badu nolabaiteko merkatu eta prestigio bat –hezkuntza-sistemaren bitartez, berredizioen bitartez eta abar–, eta, beraz, posible du haien sozializazioa eta berrikuspena bermatzea. Euskaraz, ordea, lan klasikorik apenas irakurtzen dela baieztatzea ez da gehiegikeria. Alde batetik, hezkuntza arautuan hutsaren hurrengoa da euskarazko literatura irakasteko eta irakurrarazteko plangintza eta, bestetik, lan klasikoen berrargitalpe- nak eta berredizioak urriak eta ia anek- dotikoak dira –zenbait ekimenez landa- eta nekez lortzen dute irakurleenga- nako egitea.

Berreuskaratzeaz

Klasikoak sozializatzea haiek eguneratzea eta egungo irakurlearentzat eskuragarri jartzea da. Eskuragarri edizioaren aldetik, prezioaren aldetik, irismenaren aldetik eta, gure kasu honetan, baita hizkuntzaren aldetik ere. Klasikoen premia, akademiarena ez ezik, gizarte osoarena dela badiogu, lanek egungo irakurleak darabilen hizkuntz moldean emanak behar dute.

Denbora gutxian asko aldatu da euskara. Atzo goizean amaitu zuen Euskaltzaindiak Hiztegi Batua, eta herenegungo lanak, literaturgintzari enegarren arnasaldia eman zieten lanak, dagoeneko zahartua geratu den euskaran daude emanak asko. Gaur egungo estandar linguistikora heltzeko berrikuspen beharra dute guztiek ala guztiek.

Arnasaldiz arnasaldi bizi da gure hizkuntza, eta batasunerako bidea latza izan da, izaten ari da. Gure aurrekoek hizkuntza debekatu batean alfabetatzeko ahalegina egin zuten, eta literatura sortu hizkuntza horretan. Arnasaldiz arnasaldiko iraute horrek baldintzatu du gure hizkuntza ezinbestean, eta gure literatura ere bai, ondorioz. Ez da apenas egon transmisio zuzenik. Gaur egun hainbat idazle belaunaldi garaikide dauzkagu, denbora luzez ez bezala. Angelus Novusaren gisan gibelera begiratuta zuloak dakuskigu tradizio literarioan. Eta zulo eta zulo artean literatur hizkuntza bat zatika garatu

dena, erabakimenez eta militantziaz ia beti. Joan den mendeko erdialdetik amaierara arte, edota gaur arte idatzitako testuak ordena kronologikoan irakurriz gero agerikoa da garapena, pentsa denboran atzerago bagoaz. Azterketa linguistikoa nahi duenak badu zer ikertu. Literatura ez da ordea linguistika hutsa. Eta hizkuntzalarien herria izango da gurea, baina nekez egingo du aurrera gure literaturak halako kanon zatitu batekin. Eta gure lanek, Lauaxetak dioen bezala, itxaroz kezkatuak nahi dituzte.

Egia da kanon zatitu horretako ale askok eta askok aspaldi galdu zutela, agian, eduki zezaketen interes literario apurra. Baina beste askok eta askok sekula baino gehiago leukakete. Lauaxetaz mintzatu gara oraingoan, ez da adibide makala.

Euskara estandarrera ekarri nahi izan ditugu Lauaxetaren bost poema. Horretarako, esan gabe doa, ezarri ditugu irizpide batzuk eta saiatu gara, ahal zen neurrian, haiei jarraitzen. Lehenik eta behin, grafiaren eta lexikoaren aldetik eguneratu ditugu poemak; Euskaltzaindiaren Hiztegian oinarritu gara lan horretarako eta egun onartuak dituen formak hobetsi ditugu. Gorago esana dugu gure hizkuntzaren estandarizazio-prozesua zuloz josia ageri zaigula eta halaxe iritsi dela gure garairaino: osatugabe. Hizkuntz aldaera bizi oro da, izatez, osatugabea, uneoro ari

direlako hiztunak eta hizkuntz erakundeak forma berriak gehitzen eta onartzen, baina areago da euskara estandarra, oraindik ere urtero onartzen baitira forma berriak eta zaharrak. Bestalde, jakineko kontua da inongo literaturak ez duela muga hertsi-hertsizat hartzen dagokion aldaera estandarra, eta literaturgileek badutela alde horretatik nolabaiteko askatasuna. Horregatik guztiagatik, tarteka, Euskaltzaindiaren arauetara gutxitxo irizita, Orotariko Hiztegiara eta beste baliabide batzuetara jo dugu. Saiatu gara, hala ere, ahal zen neurrian Euskaltzaindiak onartutako formak hobesten. Poemak gramatika aldetik ere eguneratu ditugu: bizkaierazko aditzak aditz-forma estandarrera pasatu ditugu eta zenbait aspektu sintaktiko eta morfosintaktiko ere berrikusi ditugu. Aipatu berrikuspen eta aldaketa guztiak poemaren eguneratzearen eta komunikagarritasunaren alde egiten saiatu gara. Beraz, ahal zela kontuan hartu ditugu neurria eta errima.

Egin duguna egin zitekeen beste era batera, eta egin daiteke oraino beste era batera. Hau ez da saiakera xalo –nahiz eta nekagarri bezain interesgarri– bat besterik izan. Buruan dugun ideia zera da: gaur egun transmisio asmoz argitaratzen diren testu zaharrak hizkuntza estandarrera ekarri gabe argitaratzea testuok betiko ilunpera kondentatzea dela, balizko irakurleak eta etorkizuneko literatura iluntasun berberera kondentatzea den bezala.

LANGILE ERAIL BATI

I

Ene Bizkaiko meatze gorri
zauri zarete mendi hezean!
Aurpegi belzdun meatzari hori
hator pikotxa lepo gainean.
Lepo gainean pikotx zorrotza
eguzki diz-diz eta mendiz behera.
Hator bidexkaz –goiza sorbaldan–,
kezko zerua daukan olara.
Greba-hotsa duk bide zabalean,
–ukabil sendo, soin-janzki urdin–.
Jabeak, berriz, lasai etzanda
laguntzat haute, hi, urrutizkin.
Aurpegi belzdun meatzari hori
hari bitartez deiak zebiltzak.
Bidexkan zelan dir-dir zegitek
txapelokerren kapela beltzek!
Horiek duten gaizkin itxura
zizpa luzeak lepo gainean!
Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarete mendi hezean!

II

Mendiz behera lau txapelokerrez
aurpegi belzdun meatzaria.
Begi beltz horiek sastakai dituk
baina kolpatu ezin hesia.
Norantz haroate esku-lotuta
burni margodun gorputz gogor hori?
Sendoa bahintz, etsai-odolez
bustiko huke pikotx zorrotz hori!
Nerbioi ertzok –tranbia-dardara–,
askatu nahiez, zenbat ahalegin!
Baina olen zarata artean
haren ahotsik aditu ezin!
Zizpa luzeak sutan zeudek
–greba-zaratak bide zabalean–.
Aurpegi belzdun meatzari hori
igeri hadi heure odolean...!
Txapelokerrek edango ditek
ardo onena Gomez-etxean.
Ene Bizkaiko meatze gorri,
zauri zarete mendi hezean!

AMAIUR GAZTELU BELTZA

*(Y ese castillo de Maya
que el duque me lo tenía).
Antzolatarr Joseba Mirenari, maitez*

I

Amaiur gaztelu beltz hori
–berrehun gudari oro sumin–
zaintzen zaituzten zaldun onek
Nafar-aldez egin dute zin.

Iskilu gorriz zenbat gazte
beldur bako menditar lerdan.
Eta horiek, Jatsu jaun horiek,
Xabierko zaldun goren.

Ikurrin bat –kate eta lili–
dorre goitian zabal dago.
Bera salduko duen semerik
mendi honetan ez da jαιο.

Amaiurko atezain horrek
zilar-turutaz oihu egik
Baztan ibarrean zenbat etsai,
arrotz gabe ez dago mendirik!

II

Hesiturik Amaiur dauka
Mirandako konde espainiarrak
Horiek bai burdinazko janzkiak,
eta urrezko ezpata-sagarrak!

Harekin dator, bai harekin,
Leringo saldu horren semea.
Txakur txarrek jango al haute
herri bako zaldun dongea.

Goiko aldetik hasten dira,
hasten dira kanoi-hotsez.
Hormen aurka zenbat zurubi,
eta gezi zorrotzak airez!

Baina dorrean zabal dabil
ikurrin bat –kate eta lili– .
Nork zapaldu ote ditzake
berrehun gudari oro zoli?

III

Amaiurko gaztelu beltza
–jausi zaizkizu dorre goitiak–
Baina, arrotza, ez hadi geldotu
nafar seme dira guztiak.

Harresi gorri, zubi hautsi,
–zeinen gutxi zaldun horiek–.
Herio, samurño zaie
aberri-min baitabiltza eurak.

Mirandako konde gaizto horrek
jo itzazu zilar-turutak.
Ikurrin bat –kate eta lili–
ez du laztanduko haizeak.

Berrehun gudari oso sumin
gaztelu pean daude hiliak.
Ordutik hona –zenbat laino–,
Nafarroan ez da aberririk.

HONDARTZA

(Bizitza honek itsasoa iduri)

Uhinak jaurti bizitzara
bete-betea itzartu nintzen!
Zein bidetatik noake hondartzara?
Galdu naiz, galdu, neure baitan!

Zador batean igeri nabil
sentitu, ez ikusi ura.
Zabal hau begiratzek ezin bil
eta nerau naiz horren mugal!

Gogoak zabal ditu begiak;
bakarrik ez nintzen uretan?
Hemen igeri ume guztiak;
beso-zarata dantzut uhinetan!

Gorputza geldi, baina ez gogoia,
uberaldi hau nondik dator?
Azalez den bake osoa!
Nora naroak beheraldi gogor?

Baina ez nadin ahuldu uretan
bakea zegok ba, itsas-gaingan.
Natzan lotan zabal neurgian
heriotza-uhin hotzak naroan!

AZKEN OIHUA

Zubillagatar Karlari

Goiz eder honetan erail behar naute
txindor baten txintek gozotan nautela?
Hel nadin leihora begiok ihintz gabe!

Gorbeia barna datorkit kanoi-hots itzela:
hor hegazkin-hegoak hodei-lapur doaz.
Guda-aingeru beltzak odolez dakuskit,
euren oin aurrean berein gudari.
Gazte argi horiek, eutsi lur amari!
Bera bezain onik ez dauka ludiak.

Baina, Jaun ahaltsua, orain ken nahi
nauzu?
Bildots baten antzera lotuta naukazu
gehien behar nauenean neure Aberriak?
Haren deia dantzut arma-hots larrian.
Iskilu arteko dirdira bizian
mendi goitietan Herio betorkit.
Bertan eder dira azkeneko hatsak!
Arte adartsu babes-toki bekit,
neure gezi meheon heriotza zauria
dasta dezaten etsaien erraiek!
Zuzentzaren maitez bildu diren semeekin
isuri dezadala bizitza iturria.

Lurra estal bedi odol arrosekin!
Gozo eta eder gizonen kopetan
aberi-opazko heriotza musuak!
Zauritu horiek zut, horra mendietan
aintzak zabal ditu esku argituak,
hortxe jausi nadin!

Eta azken orduan
laztandu nazala arnasa estuan.

Garaitza-abar bila doazen zaldiak.
Eta begi hauen laino leiartuan
tinko igaro bitez heroiazen argiak:
esku zurbil hauek ahul luza bitez
eutsi dezaten ikurrin donea.
Askatasun ateak betiko bil zaitezte!
Hantxe makur zaitez, oi buru neurea,
geure lur amaren besarte gozoan!
Eta anaia maiteak, eutsi borrokari
inoiz hilko ez den euzkoen Amari.
Itxaropen hauxe sor bekit gogoan.

Jauna, heriotza hau arren emadazu,
koldarrentzat utzi arrosen usaina,
askatasun deuna bidal egidazu,
ezeztu nahi dut ba arrotzen irauna
gorputz honek bakez atsedean har dezan
herri askatuen Egun Handira arte!
Gudan jaus nadila zuzentzaren alde,
ez hormari atzez goiz eder argian.
Eta bake deuna sortuko denean
neure hezur hutsak besteenekin batu;
eresi Gorenaz lagundu bidean
hobi bakarrera arte.

Baina, arren, bukatu
oroigarriaren maitasun itzala
Kristoren gurutzeaz; Beragan nago zain.
Jesusen fedea besterik ez daukat!
Herri zintzo onenak zain dezala
hil ginenon hatsa, hil ginenon ahala.

ITSASORA!

Onaindiatar Albertari bihotzez

Soin-hutsik ontzi-puntan, sakoneko lemazain,
itsaso-barne noa zidor ezezagunen gain.
Hondartzan oro laga! –arriskuak darraigu–,
Lur berri bilatzaile ametsa lagun dugu,
Lehorreko lokatzok geure malkoz eginak.
Arnasa hartzeko, bila

amaibako urdinak.

Beren solas hutsekin gizonen lotzen gaituzte;
Askatasun oldeak hiltzen dira atsekabez.

Aurrera! Iparraldean elur-mendi izoztuak,
eta uharte hotzetan laminen gazteluak.
Eroango zaituztet:

–ehunak harro haizean–.

Itxaropena badut begi hauen gainean.
Bide berriak nahi ditu abendaren kezkek:
Lar lurrari egon da.

Zabaldu ostertzak!

Ekintza gorenentzat landa hau den zabala,
Hizki mota ororentzat burdina hori garbala

Geure itsaso gogorra, abendak maite zaitul!
Zeure altzora gatoz, lurra ba txiker zaigu.
Indar irakasle hori,

kendu hodei eta laino!

Balearik ez dugu nahi gogai berriak baino.
Argi-azkorria dager, urrezko jantzi berriz.
Hementxe gatozkizu jakintzaren egarriz.
Ametsik ez genuen lehorretan egiten,
uretan barna baina goiak ditugu ikusten.
Geure itsaso gogorra!

Gogaien arraunlari

Agur egiten diozu itxaro argiari.
Soinak hesitzen dituzu, gogoak areago:
Geuregan legez, zeugan beti kezka bat dago.
Sakon hori nork dazagu?

Oso zara zadorra!

Ekaitz horien orroa koldarren beldurkorra.
Euzkoak soilik dabilta altzo zabal horretan;
ipini duzu oldea euren begi barneetan.
Gudariak dagitzazu, berunezko bizkarrak,
tente diren erroak, burdina diren izterrak.
–Gizajale leientzat jaki tentatzaileak...–.
Itsaso handi horrek, zabal zero-ateak.
Heriotza hor dabil, hor dabil maitasuna.
Herri gogor honentzat, zeugan etorkizuna.
Odiseo berri gara, laminarik ez da baina,
Hemen sortua ez da Afrodita liraina.
Geure abenda antzo pioneer gazte gara.
Altzoan beti duzu irri baten ikara.
Baina lehioen legez darresizu kalparra.
Euzkoen itsasoa!

Oldea eta indarra!

Aurrera, aurrerantz!

Ontzi-puntan soin-hutsik.

Haize orenen musuei bihotzak zabaldurik.
Ibilaldi hau ez da bizitzan amaituko;
Behin ontziratu denik berriz ez da itzuliko.
Minak lurrean utzi, beude itun direnak.
Itxaroz kezkatuak nahi dituzte geure lanek.
Zeruak argi daude, beude pozez begiak.
Uhinen gainean dabilta geroko abestiak...
Berrito hesi dagigun ludiaren gerria,
Ez bitsez, ez indarrez, gogaiekin baino.
Itxaroak beroa euzkotarren ontzia,
Gogoak nagusi diren argitasun goiraino.

*"inarrosten duzu": *inarrosi* aditzaren forma trinkoa,
orainaldiko 2. pertsonaren singularrean emana.

AUTOPISTA SIGI-SAGAN SARTZEN DA HIRIRA

Gabriel Errekabide

Autopista sigi-sagan sartzen da hirira, etxebizitza bloke, eskola publiko eta bestelako eraikinen artetik, bata bestearen gainera igo nahi luketen etxe txikiagoen gainetik tarteka, aldizka zaindu gabeko labar sasitsuen ertzetik, han-hemenka txabola zarpail batzuk salbu sortu zirenez gero berdin dirauten lur zatiak. Eta bere joan-etorrian, aldiro, mila leiho dituela dirudien bloke batera gerturatzen dira autoak, autobusak nahiz motorrak, eta errepidean aurrera egin ahala blokearen ertzer a hurbiltzen dira, deabruzko abiadan aurrera doazelarik gero eta gertuago ikusten dira alboan leihoak eta fluoreszente urdinkarak, egongeletako argi epelak eta irekitako leihoak, eta are gerturatzean gehiago, ikus daitezke etxeoandreek gobernatutako suak, eta nerabeen logeletan afixak, belusezko moketa berdedun egongela hutsak, eta kristalez itxitako balkoi txikietan agureak, ia besoa luzatuta ukitu dezaketzen autopistan deabruzko abiadan motorrak, autobusak nahiz autoak nola pasatzen diren so.

ORAIN ARTE MOMENTUAREKIN NAHIKOA IZAN DA

Oihana Epelde

"Nik badakizkit atropinak bezala begi-niniak handitu eta munduaren kolorea aldatzen duten hitzak. Horiek eta gero ja ezin da alde egin." M. H.

"Ezingo duzu..." esanez hasi da, bekainek osatzen zuten galdera ikurra azalpen batekin lerratu nahian. Mugak onartzea ez da gogotik edo lehenengoan egiten den zerbait, are gutxiago kanpoko norbaitek inposatuak badira, are gutxiago oraindik botere banaketa napoleoniko horretatik etorriak badira. Hara non, egunero muturreraino daramatzadan aldarrikapenak batu eta dialektikaren sarean beste aldetik tiraka harrapatu dudana neure burua. Artez edo moldez irten naiz. Aski dira bi hitz aukera urrun eta arrotz bat lapurtu nahi izanagatik salaketa eta lutoa ezartzeko. Baina, zure irlan gotortuta, badakizu seguruenik "ezingo" duzula eta lehenengo aldiz entzuteak iceberg bat hautsi du.

"Baina..." esanez jarraitu du, goxotasun ahalik eta handienak bere burua zuritzeko balioko balu bezala, bandera zuripeko argudiaketa egin nahian, optimismorik maiz-tuenarekin. Protokolariora izan da ondorengo ping-pong jolasa, salbuespenik gabeko nor-nori-nork. Begi-bistakoa da, baina eskubide asko galdu ditut bi hitzetan. Trukean itxaropen izpi ñimiño batean bilduta jaso dut saiatzeko agindua, silize xafla bat eskuan estutzeko, nahiz eta atzamarrak zauritu. Hau da, "ezingo duzu" eta "baina" jaurti dituen aho berak "egin behar" bota berri dit, eskatzea kentzeko beste modu bat ez balitz bezala.

Gero ez du ezer esan, ohean agondu naiz. Hitzek ezin dute deus aldatu, baina hitz batzuk eta gero dena ez da berdin. Tiro bat dira etorkizunaren erdian.



OHERA

Telmo Irureta

AMONA: Ohera noa.

BILOBA: Ondo lo egin.

AMONA: Zuk hemen gelditu behar al duzu?

BILOBA: Bai, aita laster itzuliko da.

AMONA: Hobe duzu lotara joan, ze haren zain bazaude... Azkenaldian berandu etortzen da. Nik uste laguntxo bat duela, ligeren bat.

BILOBA: Galdetu nion.

AMONA: Ta?

BILOBA: Nahiago omen du tximu bihurtu.

AMONA: Ez zaio asko falta.

(Bilobak barre egiten du eta amona muxu bat ematera hurbiltzen zaio. Mua).

AMONA: Ondo lo egin, potxola. Tortilla nahi?

BILOBA: Ez, eskerrik asko.

AMONA: Zatitxo bat sobratu da.

BILOBA: Jango du aitak.

AMONA: Eta zuk zer?

BILOBA: Ni afalduta etorri naiz.

AMONA: Ba afaldu berriro.

BILOBA: Berriro? Zenbat aldiz afaldu duzu zuk?

AMONA: Platanoak erosi ditut.

BILOBA: Oso ondo.

AMONA: Bat zurituko dizut?

BILOBA: Ez.

AMONA: Ez zaizkizu gustatzen?

BILOBA: Bai, gustatzen zaizkit.

AMONA: Sagarrak ere badaude.

BILOBA: Ya.

AMONA: Jan.

BILOBA: Jan zuk.

AMONA: Ez, ni ohera noa. Beste muxu bat, bonita. (Mua).

BILOBA: Agur, amonita.

AMONA: Jogurtak hozkailuan utzi dituzu?

BILOBA: Ez, komuneko zulotik bota ditut.

AMONA: *Qué descarada, chica.*

BILOBA: *Es que vaya pregunta.* Hozkailuan, non bestela?

AMONA: Atera bat.

BILOBA: Activia?

AMONA: Ez, Ativia ez, rosas del jardín.

BILOBA: Frutas del bosque?

AMONA: Bai, hori.

(Bilobak jogurt bat ateratzen du hozkailutik. Amonari ematen dio).

AMONA: Nik ez dut nahi.

BILOBA: Orduan zergatik esan didazu ateratzeko?!

AMONA: Zuk jateko.

(Bilobak jogurta hozkailuan sartzen du).

AMONA: Ez al duzu jan behar?

BILOBA: Ez!

AMONA: Bueno, ba ni ohera noa.

BILOBA: Aio.

GAUDEN LEKUA

Jon Gurrutxaga Urbietta

1.

ni ez naiz ikusten duzuen hau
ni ez naiz ikusten duzuen tipo triste hau
haur begiz so egin nion behin inguruari
nik ere ikusi nuen putzuan
bisaia-azal leuna uhinetan desitxuratzen
oro lore, oro jolas, oro bide
eztizko garai haiek gomutan

kozkortu eta irudimena dastatu nuen
lagun baten ezpainetan
oro ohe, oro solas, oro libre
ginenaren aieru nerabea
estraineko zigarroaren kea
eztulka
honek guztiak nazka ematen duelako

egun berriz
oro sasi, oro joko eta oro bidegurutze
hauxe zen niretzat pentsatuta zeneukatena
gero eta nekezago
gero eta maizago
harri bat zapaltzen nauen lurrean
harik eta, honaino! Esan arte
harik eta, aski da! Amorruez lehertu arte
tximetaraino, titietaraino, potroetaraino, kokoteraino nago
zuei mutur beltz hau
erakutsi behar izateaz
ni ez naizelako ikusten duzuen tipo triste hau

2.

indarra da nigan bilatzen dudana
zerura naramaten kantetan azterka nabil
gorputz ubelduak haize freskoa ebakitzen duen
sentipen purua da
minaren arrastoa galkorra dela diostana

hemen norberak aukeratzen du
bere bizitzaren soinu-banda
konpas banari zor gatzaizkio
kontrabaxuaren pauso pisuari
biolinaren soinu arinari
distortsio zartatuari
melodia itsaskorrari
erresistentziari ala hondoratzeari

osotasunaren metafora baino ez ginen izan
azken batean
banoala uste izan dut
badakit baina banatorrela bueltan

3.

jende onaren hitza
hutsera ekarrita dago oraintxe
edukiz hustu da
begirada horren zintzotasuna
geure duintasunaren parte bat mailegatzea da
hitza ematea

hitzezko kontratu bat
egin nuen zurekin
ez genion dokumentu juridikorik erantsi
ez zen izapide administratiborik abiarazi
sinadura falta da

politika eta sentimenduak
ez dira nahastu behar
edo neurri doian bederen
baina
hurko uste ditugunen hitzari
atxiki ezin bagatzaizkio
zer geratzen zaigu ba

4.

barra ertz likatsua
arima hordi bi
jolaserako jarrera
litekeena da zoriaren lanak izatea
baina ilargiari ez zaio pusketarik falta
esperantza fina ari du gaur gure teilatura
egia musu bakarrera
errenditu genuen unera
noan atzera
nagoen lekura
ez itzultzeko gehiago

5.

elkar ezagutu gineneko leku hartan
harria egin zuen
baina ez inoren erruz

lokatza-arte haren aldean
zattia hobeto gaude orain
ezin-bizi-beharrekoak aztertuta
egin daiteke halere
gure pausoen erradiografia fidelena
nora ibili nahi dugun jakitea
dagokigu gutako bakoitzari

Zein basotan hazten da kuraia?
Zeinen lursailean zabaldu zituzten
esporak?
Egoera latzetan berez jaiotzen al da bizi-indarra?
Txarrantxapeko itxituran al daukate?

inoiz seguru egon banaiz
hori da orain
inon lasai sentitu banaiz
hor da gaur
iragan egunen kargarik gabe
gaua noiz letorkeen kezkatzeke
uneari duen balioa eman beharrez
estimua dizudala aitortuko dizut goiz-alban

*Bide
urratuek
aho
biloak
erauzi*

Arantxa Urretabizkaia eta
Laura Mintegi

Literatur plazako idazle beteranoak dira biak ala biak, eta ondo ezagutzen dute elkar; bistan da. Galderak eta grabagailua poltsan daramatzana hitzordura iritsi orduko, tabernako terrazan elkarren ondora eserita daude; txori bi txor-txor. 2017ko abuztua da, Donostian.



HASIERAK

Gogoan duzue noiz izan zenuten aurrenekoz elkarren berri?

ARANTXA URRETABIZKAIA. Ez zehazki, baina badakit zure nobela argitaratu eta gero izan zela. Irratian galdetu zidaten zer ari nintzen irakurtzen, eta zurea esan nuen: *Bai... baina ez* (1986, Susa). Esan nuen liburu hori idatzi zuenak bazuela kontalariaren sena, eta hori funtsezkoa dela gero kontaktzen ikasteko. Atera nintzen eta bidean gizaseme batekin egin nuen topo, bi metroko gizon handi batekin, eta esan zidan ea zer demontre esan nuen Laura Mintegiri buruz. Sekulakoak bota zizkidan zure kontra! Tipo hura Joxerra Garzia zen. Gero guk topo egin genuen lehen aldian, esan zenidan biok antzeko eraso-esperientziaren bat izan genuela. Hori da nire memoriak kontaktzen duena.

LAURA MINTEGI. Bai, aurretik Garziak berak oso artikulua gogorra publikatu zuen, *ad mulierem*, eta Torrealdaik eraman zuen gero *Euskal Kultura Gaur* liburukote hartara. Zuri antzekoa egin zizun gero Pako Aristik, literaturarekin zerikusirik ez zeukan kritika bat. Egilearen kontra zihoazen, ez zegokigun eremuan sartzen ari ginelako.

A.U. Are gehiago, belaunaldi oso baten kontra. Nire lana izan zitekeen nahi bezain txarra, baina gainerako nire belaunaldi-koek ez zuten horren erantzukizunik.

L.M. Horrelako kritikak hemen kontu ideologikoengatik egin dira, hor egon dira lubakiak eta ezinikusiak; edo bestela, gure kasuan, egin dira ginenak ginelako; ematen zuen baimena eskatu behar genuela idazleen parnaso horretan sartzeko. Ez gintuzten onartzen, eta ibilbidea bakarrik egin dugu, ez dugu eduki talderik babesteko beste belaunaldi batzuek eduki duten moduan. Bakar-ka ekin genion, eta berdin segitzen dugu.

Zein giro zebilen idazten hasi zinetekoneko garaian, etxean nola kalean, eta batik bat, literatura aldean?

A.U. Nik ez neukan etxean giro literario-rik, baina sasoi hartan ez zegoen inon giro literario-rik. Are gehiago, ez zizun izen onik ematen. Gure etxean gurasoak abertzaleak ziren —aita hila zen ordu-rako—, baina Franco bizirik zen, eta amak arduratuta esaten zidan ea zer saltsatan ari ote nintzen sartzen. Ez dakit zergatik hasi nintzen, txikitatik nahi izan nuelako idazle izan.

L.M. Nik giro literario-rik ez, ez nuen ezta giro euskaldunik ere. Aita euskalduna zen, baina ez nuen bizitza osoan euskaraz entzun, gerra ostean utzi zuen. Eta ama erdalduna, Lizarrakoa. Orduan, 17 urterekin euskaraz ikastea izan zen nire lehen gerra —aurretik gaztelaniaz idazten nuen, baina nire buruari agindu nion ez nuela gaztelaniaz publikatuko—. Idazten hasi nintzenean bizio pribatu bat zen, noizbait zuri ere entzun dizut hori, Arantxa. Dena den, idazteko denbora nahi banuen, trukean etxeko lan batzuk egin behar nituen: inoiz ez zait etxean idazle nintzenik aitortu. Umeak jaio zirenean ere, hitzaldietara-eta joateko trukean zenbait gauza egin behar izaten nituen bizio hori elikatzeko, beti baldintzen kontra.

Zeintzuk izan zenituzten bidelagun lehen urratsetan?

A.U. Lur argialetxearen sorkuntzaren ingurukoak nik. Ibon Sarasolak, Rikardo Arregik eta Ramon Saizarbitoriak interesen araberako taldetxoak sortu zituzten Donostian, euskaldunen artean. Dozena erdiko talde batean Ibonek batuan

alfabetatzen gintuen, baina Joxemi Zumalabe eta biok bakarrik geratu ginen, eta orduan Ibonek talde handira joateko esan zigun, baina Joxemik ez zuen nahi izan, ziur aski berak bide politikoagoa hobetsi zuelako. Horrela hasi nintzen ni Lur-en; Ibon, Ramon, Rikardo —tarteetan hil zen—, eta Aresti aritzen ginen, eta honen ondoan Kintana. Euskarak edozein gaitarako balio zuela frogatu nahi genuen.

L.M. Ni *Anaitasuna* aldizkarian hasi nintzen; ez nekien nondik hasi idazle izateko eta pentsatu nuen hurbilenekoa kazetaria izatea zela. *Anaitasuna* Bilbon editatzen zen, Kintana ezagutzen nuen. Aldizkariak zor handia zuen, eta berehala itxi zen. Joxe Ramon Etxeberria, Iñaki Antiguedad, Antxon Azkargorta, Karmelo Landa... zortzi bat ginen. Nik, Azkargortak eta Landak *Anaitasunaren* diru apurra —milioi bat pezeta— *Argiari* pasa genion. Beste biek utzi zutenean *Argiaren* Bilboko erredakzioa jarri nuen martxan, kazetaritzako gazteak fitxatuta: Jon Sarasua, Imanol Murua, Xabier Letona *Ataxi*... Gero Donostia Hiria lehiaketa irabazi nuen, eta argialetxeen eskaintzak jasotzen hasi nintzen.

Belaunaldi baten parte izatea tranpolina izan ohi da idazle batendako. Laura, zuk esana da lehenengo trope-laren belaunaldia egon zela, 1990ko hamarkadako multimedia belaunaldia gero, eta jada idazle titulua edonori ematen zaiola. Belaunaldiren bateko kide sentitzen zarete?

A.U. Kontu horiek idazleontak baino, zuen kontuak dira, kazetarienak eta gure jarduna aztertzen duzuenonak, gauzak nola-hala sailkatzeko.

Ornitologoen lana?

A.U. Bai, ornitologo kontuak dira. Ni ez naiz sekula izango belaunaldi hartako kide arrunta, horretan etsita nago duela urte asko. Beti izango naiz belaunaldi hartako bitxikeria bat, eta kito. Agian sasoi batean jardun genuen, nik behintzat, gauzentzat erabateko soluzioak aurkitzen, baina orain beste jarrera bat dut: irtenbidea daukaten arazoentzat irtenbide ez perfektuak bilatzea. Belaunaldia eta ni, horrek ez du irtenbiderik, beraz, ez naiz saiatzen.

L.M. Belaunaldiak bi irizpideren arabera egiten dira; adina eta interes literarioa. Esaterako, Pott banda; inoiz beraiekin egon izan nintzen Arriagako kafetegian, asko ezagutzen nuelako Ruper Ordorika unibertsitatetik. Urte berekoak ginen, Sarrionandia ni baino hiru gazteagoa eta Atxaga hiru zaharragoa. Baina hori ez zen belaunaldi bat, interes literarioen araberako mugimendu bat baizik. Adinaren araberako belaunaldiak Urruzuno belaunaldia, hortik sortutako Lubaki eta beste batzuk izan dira. Eta denen artean, gu beti izan gara *outsider*-ak. *Argian* zazpi urtez egon naiz lanean eta beste mila mugimendutan, eta beti sentiarazi didate ez naizela koadrilakoa, ez naizela etxekoa. Sentimendu fisikoa da, Eider Rodriguezek eta beste zenbaitek ere esan izan didate; sentiarazten dizute zu bisitan zatozela, ez zarela taldekidea. Eta hori askoz ere gehiago Gipuzkoan, Bizkaian baino; Bizkaian errazagoa izan da niretzat aintzat hartua izatea, baina Gipuzkoan gaur da eguna oraindik ez dudala lortu inongo taldetan kide izatea, kultur mundu horretan.

A.U. Ni ez naiz ahalegindu ere egin. Lur bukatu zenetik, tarteka joaten naiz hara

edo hona, baina nire bizitza egin dut. Bide batez, gauza bat geratu zitzaidan lehengo eguneko Eibarko mahai ingurutik [JUEUk 2017ko udan antolatua]; esan zenuen kanonean egoteko gipuzkoarra izan behar zela, eta politikoki epela. Sarrionandia kanonean dago eta ez da gipuzkoarra, gutxiago politikoki epela.

L.M. Baldin eta zeri deitzen diogun kanona.

A.U. Dozena erdi bat puntako idazle jarri eta hor dago Sarrionandia, seguru.

L.M. Baina gauza bat da puntako idazlea izatea, eta beste bat kanona. Kanona, instituzioek eredutzat hartzen eta esportatzen dutena da; esaten dutena hau da *gure idazle ofiziala*.

A.U. Uste duzu Sarrionandia ez dagoela kanonean?

L.M. Niretzat ez.

A.U. Nik baietz uste dut.

L.M. Bada idazle kotsakratua, noski. Nola edo hala Hasier Etxeberriak kanonizatu zuen *Bost idazle* (2002) liburuan, baina begira, Euskadi Saria ukatu nahi izan zioten.

A.U. Hor oso ausarta izan zen; berak hautsi zuen Ezker Abertzalearen debekua.

L.M. Ez zen Ezker Abertzalearen debekua, Susarena zen.

A.U. Bueno, Ezker Abertzalearen ingurukoa. Ni harritu ninduen.

L.M. Arrazoa duzu, Ezker Abertzalea izan zen, zeren lehenago Joxe Austin Arrietak egin zion uko. Susaren barruan egon ziren aurretik jaso zutenak, Xabier

Montoia horien artean. Niretzat Sarri ez da kanonikoa, kanona ulertzen badugu gobernua katalogoetan sartu eta esportatzen duen eredu gisa.

A.U. Horrela, Atxaga bakarrik dago.

L.M. Bueno, eta Unai Elorriaga, Kirmen Uribe...

A.U. Espainiako Sari Nazionala jaso dutenak. Hor gauza asko gertatu dira. Niri behin Euskaltzaindia ordezkaten egotea tokatu zitzaidan Espainiako Sari Nazionalan, eta urte berean, Euskadi Sarien epaimahaian; eta hara non, ikusi nuen Eider Rodriguezek uko egin ziola Euskadi Sariari, eta ez Espainiakoari. Espainiako sari nazionalan epaimahai-kide bakoitzak lan bat edo bi proposatzen du, denon artean zaku bat sortzen da, eta hortik aukeratu da sariduna. Orduan, nik Eiderren orduko argitaletxeari galdetu nion posible ote zen Eiderrek ez jakitea Espainiako Sari Nazionalan zegoela, eta esan zidaten ezetz, noski bazekiela, itzulpena zela tartean. Ez nuen ezagutzen, eta nire buruari esan nion ezagutzen nuen lehen aldian, aurrena esango niola *egun on*, eta hurrengo esango niola *esplika egidazu hau*. Eta ezagutu ginenean, ez zuen jakin azaltzen.

Nik ez nuen sinatu manifestua, esaten zutelako Jaurilaritzak maneiatzen zituela sari horiek. Eta ni egona nintzen bizpahiru aldiz epaimahaian, eta niregana ez zen inor hurbildu.

L.M. Nik publikoki ere kritikatu nuen manifestua, iruditzen zitzaidalako *boutade* bat nola egin zuten; gehiago izan zela ume mimatuen kasketa bat, benetan funts literario eta ideologikoko zerbait

baino. Susak egin ohi zituen moduan gauza asko, klub *selekt*o baten parte zirela esateko modu bat zen. Eta ni ez naiz inoiz klub horretakoa sentitu, nahiz eta Susarako lan asko egin, eta nire lehen liburua bertan atera, Elkar-erako aukera izanda, baina kontsekuente izateko, *Argian* egonda eurekin astero etortzen bainintzen Donostiara lanera. Eta halere, Susak oso gauza itsusiak egin zizkidan. Urte askoan egon naiz haserre, baina Gorkarekin [Arrese] ja pasatu da.

A.U. Noizean behin amnistiak egin behar dira.

L.M. Bai, dezente, Joxerra Garziarekin ere egin nuen, Galizian.

A.U. Espero dut niri ere egingo zidatela.

GENERO EZTABAIDAK ETA SORMEN LANA

1987an Jakin-en 45. zenbakian "Emakumea eta literatura" monografia argitaratu zenuten Laura, Aurelia Arkotxa, Nerea Azurmendi, Tere Irastortza, Gema Lasarte eta Mariasun Landak. Aurrekaria izan zen euskal literaturan genero lkasketetara hurbiltzen. Artikuluaren 40. urteurrenean Arkotxak zioen: "Itxaro, Tere eta Laura garai hartan idazle konfirmatuak ziren, nahiz leku ezberdinetan bizi ingurumen eta giro berdinekoak ginen. Urretabizkaia aitzindaria eta eredu zen". Eta Irastortzak: "Oso gogoan dut Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia edota Mariasun Landa guk baino jasoagoa zutela feminismoaren gaitasun eraldatzailearen sena". Arantxa, esan izan duzu inor galdetzera joan aurretik interesatzen

zitzaizula gaia, Saizarbitoriak Simona deitzen zizula genero eztabaidei heltzean. Testuinguru hartan, bazegoen emakume idazleen arteko gogoeta kolektiborik?

L.M. Gu inoiz ez gara izan emakume moduan talde bat sortzekoak.

A.U. Jakin-eko horren berri ez daukat nik.

L.M. Aldizkari monografiko bat izan zen.

A.U. Oraintxe enteratu naiz.

L.M. Taldean ibili garenean ez da izan guk sortuta, hitz egiteko deitu digutelako baizik. Kanpotik egin da identifikazio hori, nahiz eta nik Arantxaren lana segitu eta niretzat erreferente bat izan, noski. Gauza bera Itxaro Bordarekin, Tere Irastortzarekin... Baina esango nuke lehen talde finkoa Sareinak izan dela: Gema Lasarte, Amaia Alvarez, Iratxe Retolaza... Halere, hori gehiago sortu da giro akademikotik, sorkuntza literariotik baino. Kritika literario feminista egin dute, ez da izan emakume idazleen gune bat.

A.U. Ze bentaja duen batera txori eta ornitologo izateak.

Bada defendatzen duenik emakume idazleen lanak “gai femeninoak” ekartzen dituztela gehienetan: amatasuna, haurdunaldia, alabatasuna, emakumeen arteko hartu emanak, gure gorputza... Zuen literaturan, horiez gain, badira beste gai asko ere: alkoholaren kultura (Saturno); nazio-gatazka vs familia-gatazka (Koaderno gorria): adiskidetasuna

(Hiru Mariak); espetxe politika eta afektibitatea (Nerea eta biok); ekologismoa eta mugimendu sozialen politika ereduak (Ecce homo), eta abar.

L.M. Nik aitortzen dut eduki ditudala garaiak, non nire elementu asko ukatu ditudan, generoa barne, hain zuzen ere, marjinatua ez izateko. Zalantza handia nuen, adibidez, *Sisifo maite minez*-ekin (2001). Emakume bat maitasunaren gainean hitz egiten? Corin Tellado, kito. Azkenean, ausartu nintzen ordurako ibilbide bat neukalako, esateko zer demontre, naizen hau naiz, eta ez naiz ibiliko mozarrotzen nire burua, ez naizen bat izateko.

Bizitza arruntean neukan esperientzia zen; etxean nire neba beti izan da aitarentzat inportante bakarra. Lau alaba etxean eta jaramonik ez, azkenengoa, seigarrena, berriro mutila, eta *marabilla* bat! 15 urte nituenetik beti esperientzia bera izan dut edozein taldetan. Esperientzia hori egunez egun hartzen duzu, banekien emakume izatea ikusezin izatea zela. Idazteko orduan nahi nuen seriotzat hartua izatea, beraz, aitortzen dut eskizofrenia horretan nire gaiak eta idazkera maskulinizatzen nituela, konturatu nintzen arte hori fraude bat zela.

Horregatik erabaki zenuen poesia ez argitaratzea?

L.M. Poesia idazten nuen hasieran, baina hor *striptease*-a zuzenagoa da, eta genero moduan gutxietsita dago. Nik idazle izan nahi nuen, letra handiekin, nire gabezia eta konplexuekin. Eta azkenean, babes oskol bat eraiki behar izan

dugu bizirauteko, eta nekatu naiz barkamena eskatzen aritzeaz emakume izateagatik. Gaur ikusten dut nire alaba eta sekulako inbidia ematen dit; bere 25 urteekin, harro dago emakumea delako, aldarrikatu egiten du. Hala ere, uste dut Arantxak konplexu gutxiago izan duela, zuzenagoa izan da, gorputzak eskatu diona egin du beti.

A.U. Harrituta nago: nik ez dut halako ezer sentitu. Canori entzun nion, duela urte batzuk, idazle normala izan nahi zuela, eta hori beti egon da urruti nire ametsetatik. Are, hurbildu nintzenean berehala ikusi nuen ezetz. Atzo galdera bat egin zidan gizonak eta ez nekiera erantzutean esan zidan: *tú como no te miras...* Ba ez, aizu: *No me miro, hago.*

L.M. Gure artean bederatzita urteko aldea dago, eta uste dut nire adinekoak gehiago garestu trantsiziokoak. Guri esan ziguten nahi baduzu karrera egin, egin, ezkondu arte denbora pasatzeko, baina masiboki sartu ginen unibertsitatean, lan munduan, eta lehenak izan ginen gugandik espero zenarekin apurtzen. Ni hezi ninduten etxekoandre eta ama izateko, baina aurre egiten genion. Hurrengo generazioa oraindik errebelatu behar da, gizarteak matxista jarraitzen du-eta, baina beste harrotasun bat dute, guk ez geneukana.

A.U. Hor klase kontu bat ere badago. Adibidez, gure ama egunero goizeko zortzietan ateratzen zen etxetik dendara lan egitera joateko; ezin zidaten esan ezkondutakoan etxean geratuko nintzenik. Ikasketekin berdin; gure etxean ikasketak egin behar zituen bakarra anaia zen, eta guri normala iruditzen zitzaigun, pobreak ginelako, besterik gabe. Nola unibertsitatean sartu?

Klasearena aipatzea ez da elegante geratzen, baina nik askotan egiaztatzen dut. Aurrekoan Hondarribiko lagun bat hasi zen kontaktzen ikasle egon zela Frantzian, eta esaten zuen hori zela egiten zena, eta nik: "Geldi hor, egiten zena ez. Zure ama farmazeutikoa eta zure aita farmazeutikoa!" Niri moja sartzen ninduten edo ez zegoen modurik Frantziako eskola batera bidaltzeko!

L.M. Nik aitortzen dut ama burges bat izateko hezi nindutela. Nobio bat neukan eta bera eta aita mozkor-mozkor eginda agertu ziren behin nire ezkontzaren *banketea* kontaktzen. Pikutara bidali nituen. Idazle izan nahi nuen, eta banekien halako aitarekin eta senarrarekin inoiz ez nintzela izango.

Zeintzuk izan dira zuen erreferente literarioak?

A.U. Nik ez dut erreferente argirik izan, boladak izan ditut. 1980an, *Zergatik Panpox* atera ostean, emakumeek idatzitako literatura soilik irakurri nuen, eta hori orduan ez zela hain erraza. Aurrerago, AEBtako emakumeek egindako genero beltza asko jarraitu nuen. *Saturno* (1987) atera zenean, norbaitek esan zuen *dirty realism*-en adierazgarria zela, eta lagun bati galdetu behar izan nion zer demonstretzen zen hori.

L.M. Nik literatura asko bai, baina batez ere, filosofia irakurri dut gaztetatik. Idazten hasi nintzenean, emakume erreferenteek egindako lanak behar nituen, batez ere horretaz eztabaidatzen hasi ginenean; Woolf, Beauvoir... irentsi nituen. Esatea, "nik idazle izan nahi dut honek bezala idazteko" Flaubertekin gertatu zait *Madame Bovary* (1857) nire

urtetako mesanotxeko liburua izan da; eta gauza bera, Benedettirekin eta Lawrence Durrellen *The Alexandria Quartet* (1962). Ez baduzu irakurtzen ez duzu idazten. Egon dira sasoi batzuk bestelakoak irakurri behar izan ditudala — diskurtsoak, mitinak, lan akademikoak... —, eta idazteko orduan izugarri nabaritu dut.

Zuen obretatik baduzue kuttunik, idazten gehien gozatu duzuenik?

L.M. Gozatu? Bat bera ere ez, ez da ondo pasatzen sormen lanean.

A.U. Lanik gogorrena da. Izatekotan, ja egina dagoenean gozatzen da. Gainera, istorio hori, orain daukana jende gehienak, ondo pasatu behar dela, gozatu egin behar dela. Hondarribiko alardean gertatzen zait, norbaitek esaten du “eta orain gozatzera!”, eta nik begiratzen dut atzera, eta esaten diot ni gozatzeko etxean geratzen naizela, nire gosariak hartzen eta bonsaiak kimatzen. Orduan bai gozatu! Baina ni hemen ez nago gozatzeko, ni hemen nago zerbait aldarrikatzeko. Etorri omen ginen mundu honetara sufritzera, bale, hori esan dugu ezetz, eta orain etorri gara mundu honetara gozatzera, aurkituko ahal dugu zeharkako zerbait! Denbora guztian gozatu behar da, ze diktadura!

L.M. Sormena erditze bat da, eta ez dago erditze gozorik.

Baina egindako bidean, baten batek utzi dizue aparteko arrastorik?

A.U. Ez dut begiratzen horra. Hoberena

azkena da, beti. Nik oraindik ere liburu bat ateratzean, harekin egiten dut lo egun batzuetan, almoda azpian. Gero aurkezpen egunean kalera atera da, eta nik ezin dut ezer egin horren alde. Hartuko duen bidea errespetatzea baino ez da geratzen. Jartzen duzu aurpegia hor eta pasatzen denak muxua edo zaplaztekoa ematen dizu, edo ez zaitu ikusi ere egiten.

L.M. Lana zurea da editoreari eman arte, gero ja gauza publiko bat da. Bakoitza ezinegon batetik sortzen da; nire kasuan, batean intzestua, bestean tortura, maitemina, politika maskulinizatu eta feminizatu... horietaz gehiago jakin nahi izateak eraman nau liburuetara. Liburu batean bizpahiru urte edo gehiagoz egongo zarenez, horren gainean sakontzen, irakurtzen, bueltak ematen, bakarrik horrek mantentzen zaitu bizirik, jakin-min eta ezinegona da hor motorra. Guztiz zoriontsu banintz, ez nuke idatziko.

A.U. Niri orain gertatzen zaidana da lehenengo aldia dela 30 urtetan ez dakidana hurrengo liburua zeren inguruan egingo dudana. Ez dakit horrek zer esan nahi duen.

L.M. Faseak daude; nik aldiz argi eduki dut zertaz idatzi nahi nuen, eta oraindik ez dut izan heldutasun nahikorik horri heltzeko. Zoramenari buruz idatzi nahi dut, baina badaezpada 80 urterekin egingo dut, ze seguru nago buruan eragingo didala.

A.U. Bai?

L.M. Bai, bai. Ez naiz ausartu oraindik horrekin. Beste gai batekin nabil orain: emakumeon sexualitatearekin, baina desiraren ikuspuntutik.

Biok duzue behintzat motorra bizirik?

L.M. Bai, bai.

A.U. Hori bai. Orain El País irakurtzen ari nintzen, batere gustatzen ez zaidan Ruiz de Azuaren zutabe bat, eta esaten du: “voy de vacaciones, los escritores en realidad nunca nos vamos de vacaciones porque aunque estemos tumbados en una hamaca, estamos pensando en lo que estamos haciendo o en lo que seguiremos haciendo”... Beti dago *run-run* bat hor.

L.M. Edozein elkarrizketak, musikak, kaleko eszenak balio du.

A.U. Besteen bizitzekiko banpirismo puntu bat da

L.M. Zure curriculum afektiboa hartzen duzu, eta baita ingurukoena ere.

Curriculum afektiboa?

A.U. Deskuidatzen bazara, zurea ere bai! [barre]

Zergatik panpox ekarri nahi nuke. Lehenengo euskal emakume eleberrigilearen titulua eman zizun. Nola bizi izan zenuen liburua?

A.U. Nik ez nekien titulu hori irabaziko nuenik. Askotan kontatu dut: Franco hil zenean nik igarri nuen lehenengo aldaketa izan zen nire inguruko bikoteak desegiten hasi zirela, gizonak alde egiten zutelako. Nik ez neukan bikotekiderik, baina lagun pila bat negarrez bai. Ez zen nirea, baina kontatu nahi nuen. Jendeak askotan pentsatzen du, eta gehiago lehen pertsona kontatzen baduzu, beti ari zarela bizi izan duzun horrekin

bueltaka, baina ni ama izan nintzen liburu hori idazten nuen bitartean, eta ez nintzen ama; idatzi dezakezu zerbait bizi ez duzun esperientzia batera hurbiltzeko, ez bakarrik bizi izandakoa kontatzeko. Esan izan dut *Hiru Mariak* dela nire eleberririk autobiografikoena, eta idatzi nuenean 60 urte nituen eta protagonistak 80. Zaharra izan naiz idatzi bitartean, orain banaiz zaharra erremediorik gabe, eta aldarrikatzen dut..

L.M. Niri ere gertatu zait amaren papera egitea ama izan gabe, eta lau urte pasata, liburua amaitzerako jada bi seme-alaba izatea.

A.U. Nik bi emakume ditut grabatuta amatasunaren inguruan, Aizpea Goenaga eta bestea Laura Mintegi.

L.M. Deustuko unibertsitatean... kontatu bai.

A.U. Han geunden, hitzaldi batean, eta halako batean esaten dit Laurak ea amaitzeko asko falta den, ahizpa hor zuela haurrarekin, titia ematea tokatzen zela, eta kezkatuta zegoela. Pentsatu nuen, *akabo!* Eta Aizpea Goenagarekin berdin; Zinemaldian ekitaldi baten erdian ginela, gauerdian, han agertzen zait Aizpearen ama karro batekin Aizpeari asko falta ote zitzaion galdezka, haurra negarrez zela titia hartzeko. “Mekauen la puñeta, Laura bezala!”, pentsatu nuen.

L.M. Biekin ibili naiz horrela, titia ematen hitzaldi eta hitzaldi artean.

Gatazkan hazka

“Gatazkak —gatazka politikoak, genero gatazkaz ez baitago ezer— eragin handia izan du gizarte osoan eta idazleengan ere bai, noski. Bi arlotan ikus daiteke; idazleen arteko harremanetan, eta idazleen lan literarioan. Harremanak garratzak izan dira. Gizarte osoa lubaki batek zatitu zuen eta idazleak ere lubakiaren alde banatan kokatu ziren. Idazle batzuek ahalegina egin zuten hirugarren espazio bat sortzeko, baina egoeraren gogortasunak eragotzi zuen, eta aldeetariko batera jausi ziren. Zatiketa begi bistakoa zen argitaletxeetan; non argitaratu halako jarrera ideologikoa atzematen zitzaien idazleei. Hala ere, Lizarra-Garaziko giro kontziliatzailea (1998) lehenago sortu zen idazleen artean, 1996tik aurrera batzuek eta besteek berebiziko ahalegina egin zutelako elkarguneak bilatzeko. Su-etena amaitu ostean, harremanak zertxobait gaiztotu ziren, baina ez aurreko garaian bezain beste. Idazle gehienek esfortzua egin zuten beraien lanetan ez mintzatzeko gatazkaz, eta horretarako errekurtso ezberdinak erabili zituzten: propio ala ohartu gabe: haurtzaroan kokatu, haurrak ez duelako jarrerarik hartu behar gatazkaz (*Kolosala izango da*); Erdi Aroan kokatu, orduko gatazkak urrun daudelako (*Otto Pette, Poliedroaren hostoak*); geografia imaginarioak sortu, Euskal Herriaz mintzatuz gero gatazka saihestezina delako (*Obabakoak*); ironia erabili, trufa eginez gatazkaz (*Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*); subjektibitatean babestu (*Koaderno Gorria, Nerea eta biok*); objektibizatze ahalegina

egin (*Zorion Perfektua*); distantzia bilatu: gaiztoa da baina maite dut/etxekoa da (*Arrainak ura baino, Bi anaia*); begirada anitza erabili, koraltasuna (*Ehun metro*). Gatazka presente egon da, ausente zegoenean ere.”

L. Mintegi

NOR IZAN PLAZAN

Plaza publikoan agertzen eta desagertzen diren gai sozial, politiko, kulturalen inguruko gogoetak azaldu izan dituzue urte luzez hedabideetan. Laura, lehendakari gai ere izan zinen 2012an, EH Bildurekin. Nola bateratu dituzue bi plano horiek? Alegia, literatura plaza eta plaza politikoak, bi plaza ala bat eta bakarra da idazlearentzat?

A.U. Kazetari izateak niri gehiago eragin dit iritzia publikoki azaltzerakoan, idazle izateak baino.

L.M. Niretzat oso plaza ezberdinak dira; lehen kultur munduko euskaldunek ezagutzen ninduten, eta, azken urteetan, anonimotasuna erabat galtzea gauza ikaragarria izan da; gainera, alderdi politiko konkretu batengatik. Ari naiz nire onera etortzen orain. Eta literaturan, akaso bankuan ikusten dute zure izena, eta bere seme-alabek institutuan zure libururen bat irakurri dutela esan diezazukete, baina aurpegiagatik zaila da.

A.U. Literaturak ez du plazarik. Jon Maia bertsolariak *Riomundo* nobela atera zuenean, “ze feedback gutxi” esan

zidan, eta “ongietorri gure mundura” esan nion. Ohituta zegoen bertsotan zerbait esan eta *braust* erantzuna jaso berehala. Ramon Saizarbitoriak kontatzen du, itzulpena atera eta bizilagun batek esan ziola, *oye que eres escritor!* Nor eta Ramon.

L.M. Niri ere gertatu zait nire etxean enteratzea idazle nintzela politikan sartu nintzenean. Bizitza guztia publikatzen eta nire etxean ez zekiten. Ez daukagu plazarik, ez.

Balizko plaza horretan outsider izan zaretela aipatu duzu lehen Laura. Sistematikoki aukera gutxiago igarri dituzue biok?

A.U. Uste dut Laurak kanonera heldu nahi zuela, eta orduan igarri dituela oztopoak. Nik ez, nik ahal dudana egin eta kito. Gainera ez diot hainbeste garrantzirik ematen egiten dudanari, literatura kaleko jendeari ez zaio batere interesatzen.

L.M. Nire asmoa ez zen kanokikoa izatea, baina ezta izateko aukeratik baztertua izatea ere, emakume izate hutsagatik. Asaldatzen ninduen aukera bera ez edukitzeak. Injustua da zarena izateagatik jasaten duzun bazterketa, aintzat hartu gabe egiten duzuna ona, txarra edo erdipurdikoa den. Zarena zara jaiotzez, eta hor ez dago zereginik.

Zuek aukeratu gabe, bazterrera kondenatu zaituztela esatea gehitxo esatea da?

A.U. Gazteagoek ez dute hainbesterako sentikizun hori, askoz ere gehiago dira, pisua dute. Ez zaie gustatzen hori esaten diedanean.

L.M. Baina gazteagoekin ere tranpa bat dago, momentu batean editoreek ikusi zuten komertzialki oso erakargarria zela emakume andana ateratzea, tiroi komertziala ikusi ziotelako. Baina editoreek esaten dutenean orain ez, ba zokora. Azkenean, literatura femeninoaren kontzeptua Simone De Beauvoir eta enparauen lana komertziala izan zitekeela ikusi zutenean sortu zen. Kanpoko fenomeno da. Ez daukagu inolako botere gunerik esateko zer den literatura ona. Nik uste dut ja errespetatzen gaituztela, ez emakumeak garelako, urte luzez eutsi diogulako baizik.

A.U. 25 urteko edozein gazte sentitzen da eskubidearekin nirekin paternalista izateko. Hasieratik ezagutu dut hori, baina orduan 22 urte nituen eta orain 70. Grazia egiten dit, ez nau iraintzen. Gogoia ematen dit galdetzeko, ea ze bentaja den berea, gazteagoa izatea? *Hiru Mariak* idazten ikasi nuen gauza bat: nire belau-naldiak asmatu zuen bizitzaren gailurra gaztaroa zela eta hortik aurrera dena dela aldapa behera, miseriaraino eta hilobiraino; eta orain, ideia hori aurpegira etorri zaigu boomerang bat bezala. Orain zaharrak gauza miserable bat gara eta jan egin behar, ze errua gurea da.

Literatur plazako gorabeheren lekuko izan zareten aldetik, zein izan dira eraldaketa nabarmenak?

A.U. Gu hasi ginenean ez genuen ezer, ez sistema literariorik, ez argitaletxerik, ezta hizkuntza bateraturik ere, noski, ez genuen irakurlerik ere. Gu iritsi arte horrela izan da euskal literaturaren historia osoa: Lizardik eta Lauaxetak ez zituzten ehun irakurle izango. Horrekin konparatuta, gaurko egoera paradisu bat da,

amestu ez genuena, eta hala ere, ikusten duzu... Momentu honetan literatura da oso pertsona gutxiri asko interesatzen zaien zerbait, eta gehiengoari batere interesatzen ez zaiona. XX. mende hasieran zinea sortu zenetik, literaturak erronka galdu zuen ikus-entzunezkoen aurrean, nagusia bera da. Gu bazterrean gaude, eta ondo asko.

L.M. Kultura industria izan da aldaketarik handiena (argitaletxeak, banatzaileak, liburu dendak, programatzaileak, kultur dinamizatzaileak, kultur etxeak, irakurle klubak, liburu azokak...) ehunka pertsona bizi dira kulturaren kudeaketatik, gutxien idazleak. Berdin sistema literarioarekin; editoreak, kritikariak, agente literarioak (gutxi), irakasleak, irakurle gatibuak, itzultzaileak eta ikertzaile unibertsitarioak daude. Doktorego tesiak egiten dira, ikastaroak, jardunaldiak, mahai-inguruak, literatura itzuli eta atzerrian ezagutarazten da. Hau guztia pentsaezina zen postfrankismoaren lehen urteetan, gu plazara atera ginenean.

Plazara atera zinetenetik hona, genero eztabaidek ezer mugitu dute bertan?

A.U. Atzera begiratu behar da bakarrik ikusteko zer bide egin den, mendian gora zoazenean bezala. Iruditzen zaizu gailurrera ez zarela sekula ailegatuko, baina begiratzen baduzu atzera esaten duzu, bai, egin da bide bat. Orain, niri izorratzen didana da jakitea ez dudala gizarte parekide bat ezagutuko, eta seguruenik zuk ere ez. Batzuk zabaldu zuten bide bat, eta ni bide horretatik noa. Bide horretan norbaitek kendu zituen lehenengo sasiak, eta ahal dela, sasi gehiago kentzea da nire erronka,

aldapa pixka bat leuntzea, atzekoek errazagoa izan dezaten, eta kito, nik beste zer eginik ez daukat.

L.M. Aurrera egin da emakume idazleen kopuruan, eta horrek normaltasun itxura handiagoa eman dio egoerari. Hala ere, emakume idazle errekonozituen kopurua apenas heltzen den %15-20ra gure literaturan, eta mendebaldekoetan. Hortik kanpo, are gutxiago. Kopurua alde batera utzita, ez da aurrera egin emakumeen lanaren pertzepzio sozialean. Emakumeari beti galdetzen zaio "zergatik", justifikatu beharko balu bezala "berrea" ez den eremuan sartu izana. Bere lana gutxietsi egiten da. Binomio maltzurra aplikatzen zaio: intimitatea = mediokritatea eta eruditismoa = kalitatezkoa. Emakume gehienek lanak eremu domestikoan garatzen dira, intimoak dira eta langai horiek —sentimentuak, afektuak— ez dira baloratzen edozeinen eskura daudelako. Epika, ordea, datuak eta gertaera historikoak kalitatezkoztat hartzen dira, eruditismoa erakusten dutelako. Binomioak faltsuak dira, baina horien arabera sailkatzen da literaturaren kalitatea.

Klasiko bat bukatzeko: Virginia Woolfek 500 libera eta idazteko gela eskatzen zituen emakume idazleentzat. Zer aldarrikatzen duzue zuek, gaur-heren?

A.U. Woolfen taldean bazegoen idazle bat, Vita Sackville-West, *Orlando* inspiratu zuena. Landareekiko zaletasuna zuen, nik bezala, eta lorategi famatu bat zuen, orain publikoa dena. Lagun bat eta biok ikustera joan ginen, zoragarria. Aberatsen bizitza zen haiena. Paseatu bitartean lagunari esaten nion, ni sasoi hartan Vita Sackville Westen neskamea

izango nintzela, ez idazlea. Beti jakin dut nire lanarekin irabazitako diruarekin biziko nintzela, hori barneratuta daukat nire belaunaldiko askok ez bezala; nire inguruko lagunei tokatu zaienean lan egitea, gurutze bat bezala bizi izan dute. Orain, lan gela bat niretzat, bai, hori askoz gehiago kostatu zait edukitzea, eta orain, txikia baina badaukat.

L.M. Egungo emakume askok badugu lanak ematen duen autonomia ekonomikoa. Baditugu 500 liberak, eta gela propio bat ere bai askok. Arazoa beste nonbait dago. Lagun gizon askok kontatzen digute nola hartu duten denbora tarte bat —hilabete batzuetakoa— nobelaren fase historikoan aurrera egin ahal izateko. Ama den idazlearentzat zientzia fikzioa da tarte sabatikoa hartzea. Agian gaur egun emakume idazleek dagoeneko ez dute entzungo garai batean oso hedatua zen "edo literatura edo ni" esaldia. Orain ez urte asko, literatura aukeratu zuten batzuek garesti ordaindu zuten. Baina oraindik ere bakardade-zerga ordaintzen da idazle izateko apustua egiten denean. Oraindik orain falta da inguruko inplikazioa, onarpen soziala, zaintzaren banaketa erreala, aurreiritziek eragiten duten errudun sentimendua ezabatzea..., epe laburrean konponduko ez direnak.

A.U. Nik, sasoi honetan, gogoia aldarrikatzen dut.

Energia?

A.U. Gogoia. Inporta didana gogoia da, bizipoza. Esan dezatela gaurko idazle gazteek eurek zer behar duten idazteko. Enplegu bat behar duzu bizitzekoa irabazteko, gero nahi baduzu familia bat izan edo norbait zaindu, eta idatzi,

denbora behar duzu. Oraindik ikusteko gaude, gaurko idazle gazte askok nola kudeatzen dituzten hiru alde horiek.

Gogoan dut, 1996-98 inguruan, Baztango baserri batean dozenatik gora emakume bildu ginela; hotz egiten zuen, estufa batekin baserri zahar batean han geunden, eta lehenengo orduak haurrei buruz hizketan pasatu genituen, nik bat dut, nik bi... Baten lehenengo aldia zen haurra utzi eta etxetik kanpo lo egiten zuela, zeharo mozkortu zen gau hartan! Ohera eraman behar izan genuen! [barre] *Gutiziak* liburua atera zen handik. Beste pare bat bilera egin ziren, baina ez zen jarraitu, eta hor ulertu nuen nik, ez zela ar edo eme izan, gehiago dela generoa eta zer bizitza daramazun. Horri lotuta, askotan tokatu zait epaimahai lana egitea eta ziurtatzen dizut oso zaila dela antzematea gizon edo emakumea den idatzi duena, erraza da leporatzea izena aurrean daukazunean. Gehiago igartzen da ideologia, generoa baino. Disimulatu nahi baduzu ere, horrek ihes egiten dizu.

Badu bere logika ideologiarenak, ez?

A.U. Bai, logikoa izango da. Ez dakit nola esan, nik 70 urte ditut, ez zaizkit geratzen aurretik 30 urte idazten aritze-ko. Eibarren egon ginenetik ez zait joan burutik Eider Rodriguezek eskerrak eman zituela aurretik joan ginenei. Ez zidan sekula santan inork esan, ez esan gabe adierazi, ez ezer. "Lehenengo aldia entzuten dudala hori" esan nion. Harritu-ta geratu zen, baina hala da, eta horrek pentsarazten dit.

L.M. Ez gaude aitorenaren zain. Gure helburua inoiz ez da izan aitzindari

izatea, berez etorri zaigun lana izan da, jaio ginen garaian jaiotzeagatik. Gure helburu bakarra literatura egitea izan da, literatura ona. Eta oraindik aparteko zerrenda batean sailkatzen gaituzte askotan. Baina zein da gure lekua "idazleen zerrendan"? Zein da gure lanaren balio intrintsekoa? Niri ez dit balio emakume idazle batek eskerrak emateak lehenago jaiotzeagatik. Berriz ere, kontu zirkunstantziala da, ez da nire meritua. Nik entzun nahi dut zein den gure ekarpena literatur plazan idazle gisa, ez emakume gisa.

Gatazkan hazka

“Euskal Herrian gatazka ugari izan ditugu, baina batek lortu du maiuskula, eta beste guztiak minuskula dute. Esparru askotan egin dugu borroka, baina gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren esparruan Euskal Herrian ez da apenas borrokarik egin, eta triste da. Horren erakusgarri, Hondarribiko alardea da gatazkarik seinalatuena gaur. Gu sartu ginenean ez genekien ondo zertan ari ginen sartzan. Gerra aurrean ere ez, Mari Jose Olaziregiren ikastaroan, nire atzetik etorri zen Miren Llona Gonzalezek hitz egin zuen emakumeak eta batez ere Emakume Abertzale Batzak 36ko gerran egin zutenaz. Izugarri interesgarria da gerra ostean nola apaldu zuten berehala haien borrokatxoak. Hor izan dugu desgrazia handi bat, eta da gerra galdu eta irabazi zutenen artean esparru honetan adostasuna zegoela: behin gerra amaituta, emakumea etxera. Katalunian, adibidez, ez zen horrela gertatu, gerra galdu zutenen arteko askok, anarkistak-eta, ez zuten esaten emakumeak etxera. Nire aita heriotza zigorrarekin kondenatua egona zen, baina Francok jarritako obispoarekin bat zetorren horretan”.

A.Urretabizkaia

BARKAI DAZU AMA

John Bele

I

Barkaidazu Ama
aspaldi da ez naizela zugana hurbildu
aspaldi da etxea ahantzi nuela,
mespretxuz zaitudala zu ahaztu.

II

Nire pentsamenduetatik at geratu dira zure beso orlegiak
bularrak
hankak, ezpainak
begi ahoak eta urdin koloreko betazal luzeak.

III

Sustraiei muzin egin diet,
zure azal inozentea bortxatu dute nire esku lukurrek
eta hori gutxi balitz bezala, ez naiz kontent gelditu zure arnasa moztu arte,
azken hatsa bera ere lapurtu dizudan arte.

IV

Baina gure bekatuek, bai gure bekatuek
ordaina merezi dute, ordaina emango diezu zuk.
Gure burua garaiezintzat dugunon epaile izango zara orain
eta ni erruki esker natorren ardi damutua besterik ez naiz.

V

Errudun izendatu naiz dagoeneko,
aldez aurretik baitakit zein izango den epaia.

Krimena?

Traizioa.

Kondena?

Errukirik gabea: Ezereza, eternitatearen amildegi zabal bezain ilunean erbesteratuta.

VI

Barkaidazu Ama, barkaiozu zure seme doilor honi,
makurretan makurrenari
eta barkaiezu haiei ere.
ez baitakigu zertan ibili garen eta...

VII

Barkaidazu Ama
barkaiguzu Ama
barkaiezu Ama
barka zaitez.

BAR BAPTISTE

Lurdes Ondaro Mallea

Zure tabernari begirada senti dezaket kopetan zerbeza epel hau zerbitzatzen didazunero, eta egunero da hori. Begirik zergatik ez dudan zabaltzen jakin nahi duzu, ea auzokoek dioten bezala itsutu egin naizen benetan. Gaur arte sekula ez dizut erantzun ez nuelako gogorik, aspaldiko ezagunez beteta egoten da taberna hau gainera. Baina gorra ez nago eta ikusi gabe ere badakit gaur ez duzula bezerorik, kontatuko dizut nahi baduzu, eta zuk ekarri trukean beste zerbeza bat, hartu zeuretzako beste bat eta egon isilik.

Badakizu zuk ere, zikina eta hotza da gure auzo hau. Parisen kanpoaldeko auzo proletario arrunta. Eraikinak antzekoak dira denak, zaharrak eta zatika erortzen hasiak, taberna hau bezainbeste edo gehiago. Gure sukaldeko baldosa gehienak apurtuta daude eta logeletako zoruak intziri egiten du gaintetik pasatzen garenean. Leihostatik hotza sartzen da, eta apur bat hurbilduz gero haize ufadak ere igarri daitezke.

Hemengo edozein etxetatik patioak edo orube abandonatuak dira ikusten diren paisaia bakarra. Nik ezagutzen ditudanetatik behintzat. Akaso baten batek izango du paradisu ezkuturen bat etxe ostean, baina ez dut uste, paradisuak garestiak dira eta hainbestekarako dirua izanez gero alde egingo luke edonork auzo honetatik. Zuk ez, ala? Taberna zulo honek behar beste ez dizulako ematen izango da, bestela alde egina izango zinateke honez gero. Zoratuta egon behar da alde egin ahal izan eta hemen geratzeko. Dena dela, ez dit askorik inporta zer egiten duten besteek. Nire etxe osteko orubean txatarra, auto abandonatuak eta belar izpiren batzuk egoten dira. Belarrari uherra eta hautsa itsasten zaizkio asfalto zartatuaren arrakaletatik jaio orduko.

Orubeok izan dira gure jolaslekua. Etxean agiraka egiten ziguten han ibiltzeagatik, ea iltze uherren bat edo zapaldu eta gaixotu behar ginen, baina oraindik jolasteko gogo geneukan eta hura zen auzoan korrika apur bat egin genezakeen leku bakarra. Ez dakit zergatik ari naizen guzti hau kontatzen, zuk ere badakizu nik beste, baina tira, hasteko eskatu didazu eta orain entzun beste erremediorik ez duzu.

Halako orube batean sartu nintzen lehenengoz auto batera. Gurrpilak, bolantea, kristalak, musika aparatua, erabilgarria izan zitekeen guztia kenduta auto baino autoaren hezurdura ziren gehiago. Batzuetan gidariaren eserlekuan jarri eta nonbaitera ihesi gindoazela pentsatzen genuen, baina gehienetan ez genien kasurik egiten eta beste zerbaitekin entretenitzen ginen. Iluntzen hasi eta kaleargien argi horixkak pizten zirenean egiten genuen buelta etxera.

Bidean taberna honen ondotik pasa behar izaten nuen. Gogoan ditut atean biltzen ziren gizon guztiak, eta ate gaineko neoizko kartel dardartia: *Bar Baptiste*. Seinale bat zirudien, hura gabe nora jo jakingo ez balute bezala. Ate pareko kaleargia apurtuta

zegoen orduan ere eta ingurukoei argi horixka baino laranja zerien. Jolasean berandutu eta etxera itzulera gaututa egiten banuen, begi zuriak eta arnasa zuria baino ez nizkien ikusten gizonei, eta neure burua ere halaxe imajinatzen nuen, bi begi zuri eta arnasa are zuriagoa iluntasun beltzean eskegita. “Gaur ere ez dugu zortetik izan, e?” eta antze-koak entzuten ziren egunero.

Gaztetan hasi nintzen auto lapurretan, hamabost edo hamasei urterekin. Derrigorrezko eskola amaitu eta ez nuen lanik, eta naturalki ekin nion ofizioari. Beste guztiek hura ez bazen antzeko zerbait egiten zuten, eta inork ez zion inori galderarik egiten edo arraro begiratzen. Orubeetako autoetan jolastetik hara eramatera egin nuen salto, besterik gabe. Umeei jostailuak oparitzen nizkiela pentsatzen nuen batzuetan.

Sarritan izaten zen polizia gure auzoan. Norbait harrapatu arte ez ziren joaten, ahalik eta arinen ezkutatzea zen kontua. Behin harrapatu eta gero ez zegoen haien eskuetatik osorik irteterik, lehenengo jipoiak eta gero jipoi gehiago, eta gero kartzela, itzultzen ziren apurrak burumakur eta lepoa zuzendu ezinik itzultzen ziren. Aurpegirik ez nien inoiz ikusi, begi zuririk ere ez taberna aurrean, nahiz eta ondo jakin hemen egoten zirela egunero, zoko ilunen batean gordeta zerbeza epela edaten.

Hala ere sekula ez nuen pentsatu ni harrapatuko nindutenik. Egunerokoa zen hura, ohituta geunden denok eta hala bizirauten genuen. Hurrengo norbera dela pentsatzen egonez gero hankek korrika egiteari uzten diote, bihotza behar baino arinago hasten da punpaka eta begiak gorritu egiten dira. Eta guzti hori ez da komeni, ez da komeni horrela ibiltzea. Beldur direnak segituan harrapatzen dituzte.

Ni ez nintzen beldur baina egun hartan ez nituen sirena hotsak entzun. Hemen barruan nengoen zerbait hartzen eta ez nintzen konturatu polizia ondoko kalean zegoenik. Atetik kanpora irten nintzenean nire begi zuriak ikusiko zituzten. Argi laranja zerien kaleargiak pasatu nituenerako konturatuta nengoen ez nuela alde egiteko aukerarik. Eta ez nuenez auzora besteak bezala bueltatu nahi, eskumuturretako zainak moztu nituen poltsikoan beti neraman laban batekin. Korrika egiteari utzi eta odola nola irteten zen begira geratu nintzen. Uhertuta zegoela zirudien odolak eta inoiz sentitu gabeko berotasun bat ekarri zidan gorputzera. Zainen barruan baino kanpoan, ikusgai, beroa- goa balitz bezala. Hamar bat segundo izango ziren guztira polizia heldu zen arte. Esku- burdinak ebakien gainera ipini eta odola zeriela sartu ninduten autora. Jada ez nituen zauriak ikusten eta odolak beroa izateari utzi zion berriro.

Hortik aurrera ere izan zen odolik zainetatik kanpora baina hotza beti. Begiak zabaltzeari utzi nion guzti hark zirauen bitartean eta gero zabaldu nahi izan nituenean bata ezin izan nuen zabaldu ostikada batek betazala nire kontroletik kanpo utzi zuelako. Bestea zabaltzeak nekatu egiten nau eta badakit zerbeza epel honek ze kolore duen ikusi beharrik gabe ere.

Ardo gozoren bat zerbitzatzen didazun egunean zabalduko dut akaso, polita da ardoaren kolorea. Odola gogorarazten dit, eta berotasun hura.

IZANA AMILTZERAINO

Garazi Mugarza Markina

mundua iratzartzen ikustea
irekitzen ari diren leihoetan,
behe-lainoa sartzea gelan,
goizero ez bezala, gaur
kezko ohe batean sentitzea
nire gorputza inoren esku,
izaretan bilduta hilotzak bezain estu,
—eskela bat gehiago biharko egunkarirako— .

oraindik bizitzaren laugarren
bidegurutzean galduta,
baimenik gabe elkar maitatzen
dutenak nola ibili naiz
lemazainik gabe zure ur uherretan
urruneko oasi amestuen bila,
hogeita hamasei segundoko lekualdatze batean,
ze, desertua da nire azala erantzten nauzunean.

Ez nau beldurtzen izana galtzearen zerak,
ez bada izana galtzeak berak,
berrogei gradu azalean,
bost zero azpitik barnean,
eta ni abaila batean,
espero zenuen moduko gorputz opaldua
izateraino neure burua amiltzera...

elkar begiratzeko astirik gabe
erantzi zintudan hainbeste aldiz,
gaur bizkarrezurra zirrara batez
erauzi didazu arrainei bezala,
eta ni, zure altzoan lur hartzearen bertigoz,
nigandik gelditzen zaidanarekin
itzuli naiz oinutsik,
azal hondarretara, hondarrezko arrakaletara.

ez nau beldurtzen izana galtzearen zerak,
ez bada izana galtzeak berak,
berrogei gradu azalean,
bost zero azpitik barnean,
eta ni abaila batean,
espero zenuen moduko gorputz opaldua
izateraino neure burua amiltzera...

DENA BERDEADA

David Foster Wallace (Ile arrarodun neska, 1989)

Itzulpena: Paul Beitia Ariznabarreta

Dio ez zait inporta sinesten didazun edo ez, egia da, zuk sinetsi nahi duzuna. Hortaz argi dago gezurretan ari dela. Egia dioenean bereak eta bi egingo ditu sinets diezaiozun. Hortaz uste dut badakidala.

Su ematen dio eta begirada nigandik apartatzen du, maltzurki zigarroa piztuta leihotik begira, eta ez dakit zer esan nahi diodan.

Diot Mayfly ez dakit zer esan edo zer sinetsi nahi dizudan dagoeneko. Baina gauza batzuk badakizkit. Badakit ni zaharragoa naizela eta zu ez. Eta zuri emateko dudan guztia ematen dizudala, buruz eta bihotzez, biez. Barruan dudan guztia eman dizut. Etxera ogia ekartzeko gogor ibili naiz lanean. Zu izan zaitut beti egin izan dudana egiteko arrazoi. Saiatu naiz zuri etxe bat ematen, bertan egon zaitezten, eta atsegina izan dadin.

Su ematen diot eta harraskara botatzen dut pospoloa beste pospoloekin batera eta platerekin eta esponja batekin eta horrelako gauzekin.

Diot Mayfly nire bihotzak gorriak pasa ditu zugatik baina berrogeita zortzi urte ditut. Garaia dut gauzei ez uzteko beren kasa gehiago eraman nazaten. Oraindik neurea dudan denbora zati bat erabili behar dut gauzak ondo joan daitezten. Behar dudan bezala sentitzen saiatu behar dut. Nigan baditut behar batzuk ikusi ere egin ezin ditzakezunak dagoeneko, parean jartzen zaizkigun behar gehiegi dituzulako zuk zugan.

Berak ez du ezer esaten eta bere leihoari begiratzen diot eta sentitzen dut badakiela nik guztia dakidala, eta nire sofán mugitzen du gorputza. Hankak gora ekartzen ditu soinean dituen prakamotzen azpian.

Diot zinez ez du axola ikusi dudanak edo ikusi dudala uste dudanak. Hori ez da kontua jada. Badakit ni zaharragoa naizela eta zu ez. Baina orain sentitzen dut nik dudan guztia doala zugana eta zugandik jadanik ez datorrela ezer ere bueltan.

Ilea bildua du orratzez eta urkilaz eta kokotsa eskuan du, goiz da, badirudi amesten ari dela nire sofa gaineko leiho bustitik barrena datorren kanpoko argi garbiaz.

Dena berdea da dio. Begira zeinen berdea den dena Mitch. Nola esan ditzakezu sentitzen dituzula esaten duzun gauza horiek kanpoan dena den bezain berdea denean.

Nire sukaldeko harraskaren gaineko leihoa garbi-garbi dago bart gaueko euri zaparradarengatik eta goiz eguzkitsu bat da, goiz da oraindik, eta anabasa berde bat dago kanpoan. Zuhaitzak berdeak dira eta kanpoan abiadura murriztaileak pasata dagoen belarra berdea da eta moztua. Baina dena ez da berdea. Beste karabanak ez dira berdeak eta kanpoan dagoen nire mahai tolesgarria lerrokatutako putzuekin eta garagardo latekin eta hautsontzian flotatzen ari diren zigarrokinekin ez da berdea, ezta nire kamioneta ere, ezta lurreko hartxintxarrak ere, ezta botata dagoen jostailuzko motorra ere esekita arroparik ez duen esekilekuaren azpian hurrengo karabanaren ondoan, non bertako tipoak haur batzuk izan baititu.

Dena berdea da ari da esaten. Xuxurlaka dio eta xuxurla hori ez da dagoeneko niretzat badakit.

Zigarroa itzaltzen dut eta brastakoan bizkar ematen diot goizari egiazko zerbaiten zaporea dudala ahoan. Brastakoan biratzen naiz berarengana argitan sofa gainean dagoela.

Kanpora begira dago, eserita dagoen lekutik, eta nik berari begiratzen diot, eta bada zerbait nigan itxi ezin dezakedana, begiratze horretan. Mayflyek gorputz bat du. Eta bera da nire goiza. Esan bere izena.

OCEAN VUONG

BI ITZULPEN ETA BAKARRIZKETA BAT

Ane Zubeldia

Ocean Vuong (Saigon, Vietnam) poetak idatzitako bi poemaren itzulpena, eta berarekin izandako bakarriketa libre bat.

Egunen batean maitatuko dut Ocean Vuong

Ocean, ez izan beldurrik.
Bidearen amaiera hain dago urruti
ezen atzean geratu baita.
Ez kezkatu. Zure aita zure aita da soilik
bietako batek ahaztu arte. Gogoratzen ez
dituen moduan bizkarrezurrak bere hegoak
gure belaunek lurra milaka aldiz
musukatu arren. Ocean,
aditzen didazu? Zure gorputzaren
parterik ederrena
zure amaren itzalak ukitzen duena da.
Hemen dago etxea eta haurtzaroa
tranpa-soka gorri bakarrean.
Ez kezkatu. Izendatu *ortzi-muga*
eta ez duzu sekula atzitu.
Hau da gaur. Egizu salto. Zin degizut ez dela
salbamendu-txalupa bat. Gizon honek
zure joana biltzeko bezain beso zabalak
ditu, eta une honetan,
argiak joan berri direla, oraindik ikus dezakezu
haren hankarteko esku-argi ahula.
Nola erabiltzen duzun behin eta berriz
zeure eskuak aurkitzeko.
Bigarren aukera bat eskatu
eta bertan husteko aho bat eman dizute.
Ez izutu, tiro hotsa
apur bat gehiago bititzen saiatu eta porrot egin duen

jendearen zarata da. Ocean, Ocean,
altxa. Zure gorputzaren parterik ederrena
haren norabidea da. Eta gogoratu:
bakardadea munduarekin igarotako
denbora da oraindik. Gela honetan
guztiok gaude.
Zure lagun hilak alderik alde
igarotzen haizea
haize-ezkiletatik bezala. Hemen mahai bat
hanka erren bat eta hori iraunarazteko
adreilu bat. Bai, gela hau
horren da goxo eta odol-hurbila,
ezen zin baitegizut, esnatuko zarela
eta horma hauek usteko dituzula
azal.

Oda masturbazioari

Zu ez zarelako
sekula izan
sokratua
baizik nahikoa
ederra
topa zintzaten

amua
ahoan
ura astintzen
txinparten antzera
atera zintuztenean

Eta batzuetan
zure eskua da
daukazun bakarra
zeure burua
mundu honetan
eusteko eta

soinua da ez
otoitza
sartzen dena
trumoia eta ez
tximista
esnatzen zaituena

Atzeko eserlekuan
gauerdian neoizko
aparkalekua
ur bedeinkatuz
zikinduta
zure

izter-arte
ez da sekula
gizonik ito egarriz
bertan
isurketa

murtxikatutako izarrez
egindako
art-
ikulazioa da
beraz jaso
zorionez estalitako
hatza

eta erakutsi
elikagai basatiak
mihiri

[...]

Ez
izan beldurrik
horren
distiratsua izateko
horren argitsua horren
hutsa

balek
zeharkatu egiten zaituzte
pentsatuz
zerua topatu dutela
zuk beherantz jotzen duzun artean

estutzen duzun artean
odola bezain epel dagoen gorputzaren kontra
esku bat
hitz bat
iltzatzen zaion antzera
bere esanahiari

eta bizi

Poema zatiak itzuli dizkiot neure buruari

*(ingelesezko zatiak Ocean Vuong-en Night Sky with
Exit Wounds liburutik)*

Begiak zabalik galdu nuen dena

(Itzuli)

There is enough light to drown in
But never enough to enter the bones
& stay.
Lurpean izenik gabeko hezurak,
zain.
Bala bat kaskezurraren barruan:
lur honetan memoria hutsa lore sortzen da.

(Itzuli)

You move through me like rain
Heard
From another country.
Ornoen artean
banan-banan begiratu dut
zirrikitu baten bila.
Ez zara inondik ageri.
Begiak ezabatzen ari zaizkizu eguzkitan.

(Itzuli)

Teach me how to hold a person the way thirst
Holds water.
Esku luzatu bat galdera ikurra da
geldi,
eskaintzen edo eskean ari den ezin jakin,
mehatxua edo laztana duen gordeta falangeetan.

(Itzuli)

Beste bat izango zara berriz
arnasten ikasten baduzu & begin
the faithful work of drowning.

(Itzuli, arren)

Ertzetik harago dagoen hiria ez baitago
utzi genuen lekuan,
espaloien azpiko hezurak
ahaztu nahian bizi gara.

Begiak ixten baditut inork ezin dit minik eman

PASATU AHALA ARGITZEN DIREN GAUZAK

Iñigo Astiz

Gauerdia pasata aparkatu du autoa bikoteak etxe aurrealdeko zabalgunean, eta maniobra bukatu ostean ere, lorategia argitzen jarraitu dute haren argiek denbora tarte batez. Ehunka metro koadro dituen terrenoan xortaka hazten diren lore eta zuhaitz exotikoek garden adierazten dute bikotearen gaitasun ekonomikoa, baina dena irensten du berriz ilunpeak, gizonak motorra itzali, etxeko ataria gurutzatu, eta autoak argiei ez tiro itzaltzen uzten dien bitartean. Beste bikote baten festatik itzuli dira etxera senar-emazteak, oraintxe iritsi dira, une honetan bertan, eta elkarren segidan sartu dira beren etxe printzipalean, patxadaz. Bitartean, telebista ikusten ari da haien semea zaintzen duen txinatar familia. Etxe nagusiaren atzealdean dagoen etxe txikiagoan daude, igerilekuaren ondoan. Hiru dira familia txinatarreko kideak: ama, aita eta seme nerabea. Semea da Bilbon jaio den bakarra, eta bera dabil gurasoei telebistan zer esaten duten esplikatzeko. Lehiaketa moduko bat da, erruleta gisako batekin, eta parte hartzaileei ur baldekada bat erortzen zaie gainera asmatzen ez duten bakoitzean. Grazia egiten dio horrek aitari. Txinatar familiakoek garbitzen dute etxe handia, eta haiek mantentzen dituzte txukun gauzak, baina umea zaintzea dute egiteko nagusia, eta haiekin batera dago horregatik telebistari axolagabe begira bera ere: Julen deitzen da. Noski, Julen Guerrero futbol jokalaria gaitik, nahiz eta, egiatan, Ismael Urzaiz zen emakumeari garai hartan gehien gustatzen zitzaiona. Itsusiagoa, argi, baina sendoagoa. "Gizonagoa-edo". Emakumeak ez luke jakingo bestela azaltzen. Edonola ere, Julen da orain, une honetan bertan, txinatar familiarekin batera telebista aurrean dagoen mutikoaren izena, eta txinatar amak dauka besoetan, zehatz esanda.

Julen izan zutenean, nahiko erditze txarra izan zuen emakumeak, eta hilabete batzuk negarrez eta deprimitu xamartuta pasa zituen horren ondorioz. Psikologoak esan zion tarteka gertatzen zirela halakoak, baina egoteko lasai, eta pasatuko zitzaiola. Emakumeak ez zuen lortu, ordea, guztiz lasaitzerik, eta familiako medikurengana joan zen bigarren iritzi baten bila. Orduan, familiako medikuak esan zion tarteka gertatzen zirela halakoak, baina egoteko lasai, eta pasatuko zitzaiola. Horrekin ere ez zen erabat pozik gelditu andrea, eta hirugarren iritzi bat eskatu nahi izan zuen. Ohikoen zuten klinika pribatura joan zen orduan, eta klinika pribatuko medikuak ere esan zion tarteka gertatzen zirela halakoak, baina egoteko lasai, eta pasatuko zitzaiola, eskaner pare bat egingo zituztela, halere, zer gerta ere. Egin zizkion eskanerrak, kobratu zizkion 6.000 euro bikoteari, eta, azkenean, lehenik psikologoak, gero medikuak, eta azkenik klinikako medikuak esan bezala, pasa zen denbora, egon zen lasai, eta pasatu zitzaion tristura emakumeari. Marka utzi zuen, ordea, esperientzia hark emakumearengan, eta, hedapenez, baita bikotearengan ere.

Bikoteko gizona enpresari familia ezagun bateko seme zen, eta enpresa-zuzendari-laguntzaile izendatu zuten karrera amaitu zuen unean bertan. Urte batzuk baziren jadanik horretaz. Bidaiatu egiten zuen nahikoa, baina oro har gustatzen zitzaion lana. Enpresaren mozkinekin nahikoa diru izan zuen beti bikoteak ongi bizitzeko, edo bai behintzat ongi bizitzea esan ohi denean jende gehienak esan nahi izaten duen eran bizitzeko: oporraldiak Asian, urpekaritza eskolak, jateak, ardoak, opariak, golf zelaiko paseoak eta, batez ere, gero, Athleticen Europako partidak Bukaresten, koka marra batzuk, Whitley Neill ginebra marka konbinatuan, mesedez, limoi ukitu bat, marra bana gehiago, partidua, eta suitetako larrutaldi zaratatsuaren osteko baretasun anonimoa. Eta, noski, Athleticen partiduko emaitza: zero eta hiru. Galdu. Baina itxura emanda, gutxienez.

Umea eduki zutenetik elkarrekin pasatzeko denbora gutxi zutela pentsatu zuen egun batez gizonak, eta baietz esan zion emakumeak. Ordurako nor bere maitalearekin ezkutuko ihesaldiak egiten hasiak ziren biak. Gizonak, esaterako, festa eman berri duen bikoteko gizonarekin gutxi gora behera astean behin izaten zituen padel partiduak klubean, eta elkarri ahoa tapatuz jotzen zioten larrua zenbaitetan gimnasioko aldageletan itxita. Gizonak ikaragarri maite zuen kloro eta lixiba usaineko sexu saio haietako biolentzia. Bere bizitzan izan zuen sexurik onena zela esango zukeen, inoiz esatera heldu izan balitz, baina ez zen kasua. Emakumeak klinika pribatuko medikuarekin egiten zituen egun beteko eskapadak tarteka, baina kontsultako orgatxoan eskanerrak egitera joateko aitzakian izaten zituzten sexu saioak ziren benetan gustatzen zitzaizkionak. Presaz eta isil antzean aritu behar izaten zuten, baina emakumea asko berotzen zuen senarra alboko gelan itxaroten eta kezka puntu batekin egongo zela pentsatzeak. Eta ez zen hori bakarrik, gero, bereziki gustatzen zitzaiolako ikustea gizonak, ezer ere sumatu gabe, nola ordaintzen zuen sekula egin ez zioten eskaner sorta hura. Emakumeak, sakonean, mendeku hartu nahi zion gizonari, baina ezingo luke esan zehazki zer zen mendekatu nahi zuena.

Edonola ere, aipagai den Julen jaio ondorengo egun hartan, elkarrekin denbora gutxi pasatzen zutela esan zioten elkarri bikotekideek. Eta garrantzitsua da biek hori esan izana. Izan ere, hori esan zuten egunaren ondorengo goizean bertan erabaki baitzuten ordura arte egunero lau orduz etxea garbitzera joaten zen emakume kolonbiarra kalerratu, eta egun osoz Julen zaindu eta etxea garbi mantenduko zuen norbaiten bila jartzea. Eta hala topatu zuten txinatar familia. Lagun baten zerbitzarien senideak ziren, nonbait. "Fidatzekoak eta garbiak", esan zieten. Familia haren gain utzi zuten Julen zaintzeko ardura, artean hark hilabete batzuk baino ez zituela. Duela urtebete pasatxo izan zen

hori. Eta, hain zuzen ere, esan bezala, Julen zaindu eta etxea garbi mantentzeko kontratatutako familia txinatar hori da orain etxe nagusiaren atzealdean etxe txikiagoan telebista ikusten dagoen familia: ama, aita eta nerabea, gehi Julen.

Baina kontua da gaur festatik bueltatzerakoan, autoaren motorra itzali, etxea gurutzatu, eta bikotea joan dela Julenen bila etxe nagusiaren atzealdean dagoen etxe txikiagora, eta telebista ikusten topatu dutela umea zaintzeko eta etxea garbi mantentzeko kontratatutako txinatar familia osoa. Agurtu dute elkar labor, eta zuzenean joan da emakumea Julen semearengana, hartu du besoetan, eta, justu orduan, soinekoa estu antzean daukanez, eta beste bikotearen festatik apur bat edanda iritsi denez, irrist egin du, eta lurrera erori dira biak: emakumea eta umea. Ez dute minik hartu, baina Julen asko izutu da, eta negarrez ari da orain, une honetan bertan. Negar betean dabil, zehatz esanda. Ozen. Gainera, izuaren izuz, arrastaka hasi da, eta txinatar amaren besoetara joan da Julen arrastaka, eta ez bere ama biologikoaren besoetara, eta hor ari da oraintxe negarrez, txinatar amaren besoetan, lurretik altxatzen ari den bikote diruduneko emakumearengandik ihesi joanda. Julenek estu eusten die txinatar amaren besoei, eta bat-batean dena izoztuta bezala gelditu da, negar egiteari utzi gabe Julen garrasika hasi delako. “Ama, ama”, egiten du garrasi negar malko artean Julenek. “Ama, ama”. Txinatar amaren besoetan, eta besoak ere txinatar amarenganantz luzatuta.

Bikotea ere negarrez hasi da. Aita txinatarra sofatik altxa da, eta burua makur-makur eginda barkamen eske ari zaio elkarri besarkatuta eta negarrez dagoen bikoteari. Txinatarrez ari zaie, berak txinatarrez baino ez dakielako, baina keinu txiki bakar batekin, txinatar nerabea ere berehala jarri du bere alboan, itzultzaile lanak egiten. Aitak txinatarrez esaten duena itzultzen dio bikoteari gaztelerara gazteak. “Aitak esaten du barkatzeko. Ez dutela nahita egin. Mesedez. Barkatzeko. Ez da berriz gertatuko. Aitak esaten du mesedez barkatzeko”. Ama txinatarra ere zutik dago orain, bera ere burua makur-makur eginda, bera ere barkamena eskatzen txinatarrez, eta damu keinu moduko batean, Julen eskaintzen die besoak luze-luze jarrita, umea haiek har dezaten, azken batean, adierazi nahi liekeen modura, izan, umea haiena delako. Baina hizkuntza ezagutzen ez duenez, ezinezko zaio hori dena esatea, eta barkamena besterik ez du eskatzen besoak luze-luze jarrita. Julenek izututa jarraitzen du eta negarrez eta oihuka ari da, familia txinatarreko emakumearen esku artean oraindik ere. “Ama, ama”, oihukatzen du, eta familia txinatarreko emakumearenganantz biratzen ditu temati bere gorputza eta bere besotxoak. “Ama, ama”. Nerabeak ahoa tapatu dio Juleni eskuarekin orain, baina ikusi du keinua bikoteko gizonak eta zaplazteko ozena eman dio aurpe-

gian. Kolpearekin ia erori da, baina zutik eutsi, eta burua makurtu du nerabeak orain; negarrez hasi da isilik. “Ez berriz ukitu gure umea”, oihukatu dio gizonak, eta, haserre, azkenik, txinatar amak besoak luze-luze jarrita eskaintzen dion umea hartu, eta etxe nagusira abiatu da berehala Julen besoetan hartuta eta emazteari besotik helduta. Julenek “ama, ama” oihukatzen jarraitzen du etxe nagusiaren atzealdean dagoen etxe txikiagorantz biratuta, eta jadanik bikoteko gizonaren besoetan lorategi erdia gurutzatu duen arren, atzera begiratzen jarraitzen du, oraindik ere garrasika. “Ama, ama”. Automatikoki pizten dira lorategiko bideko argiak bikoteak aurrera jarraitu ahala. Minutu batzuk irauten du oraingoan argiak, harik eta banan-banan ordenan eztiki itzali, eta, berriz ere, bi eraikinak gauaren iluntasunean bi argi irla bereizi bilakatzen diren arte.





 Itziar Ugarte Irizar

Honaino heldu zara
ezin jakin ondo nora
dena jokutzen da hor kanpoan
eta hara non zauden

zu,
handik hona zabiltzana,
gaur herrian bihar hirian
askatasunaren eta denboraren alde
furgoneta txiki bat erosi duzuna;
zeure buruarengandik ihesi zoazena
zu ez bazina bezala
gero bere bila atera beharko duzun hori

polita litzateke erakutsi ahalko bazenu
munduari kontatzeko duzun guztia;
gorputza askatzeko beharra
izaten duzun aldi horiek denak,
ondoren zauriak zaintzera itzultzeko,
ez duzula makilkada handirik jaso eta,
artean, negargura handia izaten dela maiz
bertigoak eta zamak prozesuaren parte direla;
hori da orain gehien hunkitzen zaituena:
zeure kabuz ari zarela bizitzen ikasten

polita litzateke ikusi ahalko bazenu
nola egiten dudan neure buruaz barre
ezen hainbeste dut zuri esateko
hainbeste azaltzeko eta eztabaidatzeko
ezinezkoa zaidala zu bakean uztea
zuhaitz arteko errepidean bakarrik zoazenean
begi pare piztu horrekin,

pentsatzen duzu agian ez duzula
nahikoa adore mundu honetarako
horko horrek etsia ekar diezazukeela berriro
hemendik soilik garrantzizkoa aterako dela
eta oxala ikusi ahalko baninduzu
hanka sartzen dudan aldiro, esateko
ondo ari zarela

hainbeste gauza agertu nahi nizkizuke
ez dudala inoiz denborarik hartzen
baina orain hemen harrapatu zaitudala
bakarrik esan gura dizut,
zu, gaurko zu
etxera heltzeko desiatzen zaudena,
eta jendea, zeurea, besarkatzeko,
beldurra ez dela inoiz desagertuko,
egiazko su-etenik ez dela existitzen;
beraz, har dezazula lasai kafe hori
eta maitemindu zaitezela ahal duzun guztietan
kanpoan jokatzeko ari den horrekin,
biok dakigula
denbora labainkorra dela
hau etorri bezala joaten dela,
batzuetan ezingo duzula gehiago
eta orduan ere ez dela besterik izango;
galdu zaitez eta bilatu behin eta berriro
nola idatzi jakingo ez duzun istorioetan

zeren agian hori da dena,
zerua ez balego ubel eta
ez bazenio beldurrik denborari
ez zinateke zu izango
ez hitzetan aztarrika ariko,
beraz, ahaztu aldiro besteez
eta ez zaitzala arduratu
mundua noraino den handia:
soilik, jarraitu lauhazka.

**Ez dakit nor zaren, baina behin saretik poema zati bat ostu nizun, Elena; ekartzen hasi, eta honetan amaitu nuen. Nire berbak dira, zureei tiraka.*

AITAREN HERIOTZA JONER KONIAU BEZALA

Martin Bidaur

Arrainek jan zinaten aita. Arrainek jan zinaten zuen aita, badakin? Egun batean itsasoari begira egoteaz nazkatu zunan eta oinez abiatu zunan itsas hondoan dagoenaren bila. Erakusten al diton hori eskolan, zer dagoen itsas hondoan? Esaten al diton arrainez beteta dagoela itsasoa eta kontuz ibili ezean arrainek jan hazaketela? Infernua suzkoa dela sinetsarazten zigutenan, baina zentzugabekeria dun hori, egiazko infernua hemen zerupearan zagon, inguratuta gauzka. Itsasoa dun egiazko infernua. Ondo ikasi zinan hori zuen aitak. Beranduegi, baina ondo ikasi zinan.

Horregatik jarri zinan amak Jone izena. Ulertzen dun? Ikasi al dun eskolan Jonasen istorioa? Erakusten al dizkinate oraindik halakoak? Zuen aita arrainek jan eta hiru hilabetera jaiotzen; hori badakin, ezta? Eta munduratu hintzen Jonas Ninivera heldu zen bezala: jainkoaren hira iragarriz. Baina hire amak ez zinan hori ikusi, ez. Ez zinan ikusi nahi. Hire amak uste zinan haren sabelean babestuta eduki zuen profeta garbia hintzela, entzungor egin zianan hire aieruei, hire negarrei, eta itzal eman zinan; itzalik merezi ez huenean ere.

Kontua dun arrain handi batek babestu zuela heriotzatik Jonas, harik eta hark bere okerra onartu zinan arte. Arrain handi horren tripan pasa zizkinan hiru egun eta hiru gau, eta Niniven itsasoratu arazi zinan jainkoak, hiri gaizkinaren suntsitzea iragartzeko.

Hire amak uste zinan Jone izena emanaz gero babestuko hinduela itsasotik, infernutik, baina, batez ere, arrainengandik. Hiri ere sekula itsas hondoan zer ote dagoen begiratzera joatea otuko balitzain badaezpadako gurari ere izan zedin hire izena.

Ez iezadan begi horiekin begiratu, arraina dirudin arrandegiko izotz-ohean. Zergatik uste dun ari naizela hiri hau guztia kontatzen? Esan al dinat inoiz zer jazo zitzaion hire nebari? Ez, ezta? Halakorik berriro ez jazotzeko ari naun, ba, hau guztiau kontatzen.

Zuen aita arrainek jan zuteneko hire neba koskortuta zegonan eta ezin berari izenik aldatu. Zer bururatuko zuen amari eta haurra bataiatzea. Hire bataioarekin batera izan zunan. Bekatu asko garbitu nahi zizkinan hire amak, ur zikin hura inolako lizur magikoa izango balitz bezala. Aitaren, amaren eta espiritu santuaren bekatu guztiak garbitu nahi zizkinan zuen amak. Beranduegi izan huen baina hire nebarentzat.

Hire nebak ez zinan ondo ulertu zer jazo zitzaion zuen aitari. Berari ere esan nionan arrainek jan zutela zuen aita, hiri esan dinadan bezala, baina ez zinan ondo ulertu, daborduko helduegia izango zunan ziurrenik, eta sinesgogorrago gaitun helduok. Ez dizkinagu istorioak sinesten. Gosaltzera jaisten zenean zera esaten zinan beti:

itsasoarekin egin dut amets. Arrainezkoa zen itsasoa, baina ez arrain bizizkoa, arrandegian edukitzen ditugunez egindakoa baizik. Hildako arrainezko itsasoarekin egin dut amets.

Ordurako lanean egoten zunan zuen ama, arrandegiak goiz zabaldu beharreko negozioa ditun-eta, badakin. Arrain-begiz begiratzen hion berari ere, orain begiratzen didanan bezala. Eta isiltasunak erantzuten zizkionan hire nebak izan zitzakeen zalantzak oro. Akordatzen al haiz horretaz?

Akordatuko haiz, orduan, egun osoa Kontxako barandatik itsas mugari begira eman ostean arrandegira sartu zen egunaz. Ez? Agian ez hengoen bertan. Eskolan egongo hintzen, auskalo zerekin betetzen burua. Arrandegira sartu zunan, beraz, eta ahal zuenik eta arrain osorik handiena hartu zinan isatsetik. Izokin bat izango zunan. Arrain osoa esku batean atera zunan kalera, eta alboko tabernako mahai batean jarri. Zubialdekoei galdetu, akordatuko ditun oraindik. Arrainari bi eskuez heldu eta hortzak sartu zizkionan. Lehen hozkadan apenas lortu zinan ezkatak zulatzea ere. Hamaikagarren saialdirako hire nebaren ahoan arrainaren odola nahasten zunan berearekin batera. Arantzak eta guzti jan zizkinan. Erraietara heldu aurretik ito zunan.

Mendekua arriskutsua dun, badakin. Hire neba mendekuak akabatu zinan. Horregatik kontatu dinat hau guztiau, hi ere mendekuan ez erortzeko. Bai, arrainek jan zinaten zuen aita, baina hire nebak jan zinan arraina, eta emaitza bera izan zunan.

Arrandegiko leihotik dena ikusi zinan zuen amak, Kontxako barandatik zuen aita itsasoan sartzen ikusi zinan bezala. Baina hi lasai, Jone, ez ninan izena alferrik jarri. Orain guztia dakin gainera; garrantzitsuena: itsasoa dun infernua, ez ezan ahantz. Itsasoa dun infernua.

Alazne Arruti Bengoetxea

Kokotsak

Nire ondoan gorpuztu da,
bi gorputzon pisua
orekatzeko gai ez den
ohe malguan eta
hainbestetan hozkatu dudan kokotxa
zutitu dit aurrez aurre.
Nire hortzen artean harrapatua izateko
formarik egokiena duela
pentsatzen hasia naiz.

Goizaldean,
txintik esan gabe
bizarra egitera alde eginagatik,
badakit
lehenengo saiakeran atzemango ditudala
ahaztu dituen
ile ziztagarri bakanak.

Nire-nirea izan nahi dut
inorena izatekotan,
baina naizen hori partekatzea
gozagarria zait
oso.

Horregatik —maizegi—
ohekidearen beroaz ihesi,
hormarantz biratzen naiz
nire hegalak
nirea ez den besoaren zamari
—azkarregi— deitzen dion arte.
Ohe malgu honek
barruan irensten gaituen aldiro
elkar uki dezagun nahi baitu.

Ispilu bat

Ezezagun zaitut eta
akaso,
benetan ezagutu zaitudanaren
proba
besterik ez da.

Txunditu egiten nau
eraikitzen den
nire bertsio berri bakoitzak.

Behar zintudan,
ezin bainuen zugar
ez nintzenaren islarik ikusi.
Ispilutzat
behar zintudan.

Iparra

Eskutik datoz,
berotu ezin diren oinak
eta astelehenak.

Haizea,
tximinia zulo beltzetik uluka
eta sukaldeko
zoparen usain beroa
burruntzaliz nahastuta.
Platerak mahairatu bitarteko
kinkitik kalainak eta
mingain erreen
zurrupadak.

Ez da giro kanpoan,
gogorregi jotzen du
zeure oroitzapen ketua daraman
ipar haizeak.

Eta hegazkinek bitartean,
guztiona den zerua
marratzen dihardute
axolagabe.

Iraungitzeak

Suaren ulua
ez dut besterik behar
zutaz idazteko.

Nire azala
goritzen zuenaren heriotza
bizi nuen duela ez asko
eta
ezin izan dut
besarkada hotz hura
soinetik kendu oraino.

Aurretik halakorik
bizi ez duenaren kondena da
ausardia erabatekoa eta itsua.
Beldurrez akabatzen ari denaren
biziraupena da
leihoak parez pare zabaltzea,
bere kasa
arnastuak kanporatu eta
beste baten hatsaz itotzea.

Alferrikakoa da damua,
norbera ezezagututa
zerbaiten bila badabil.

Eskerrak eman nahi dizkizut,
denboraz aurretik
erail gaituzulako.
Ez ditut
iraungitzeak gustuko.

Itzulera

Istorio gehienak
gurekin hasi eta
gu gabe amaitzen dira.

Ez gaitu sekula
ilunabar berberak itsutuko.
Ez gara
elkarren amets ustez iraunkorretan
luzaz kateatuko.
Ez dira hilezkortuko
elkarri emandako egunak.
Ez gara sekula
ginenak izango.

Istorio gehienak
hasten dira gu gabe
eta gurekin amaitzen.

Eta esan nahi nioke
izan nintzenari
ez dabilela oker.
Bihotza urrunago
iltza dezakeela,
hanka zuloan
sakonago zanpatu.
Eta hala ere,
gauzak are okerrago
zapuzten utziagatik,
ez diola sekula
joan bezperakoa izateari
utziko.

CLEO | SPILU AURREAN

Telmo Irureta

Beste edozein gaztetxo bezalakoxea, baina bere berezitasunekin. Alaia, baikorra, burugogorra, umoretsua, sormen handikoa, maniatiko samarra eta nahiko kursia batzuetan. Garun paralisiak garapen fisikoan kalteak eragin dizkion arren, konplexurik gabeko neska da Cleo. Bai? Orduan zergatik mozten ditu argazkiak? Bere eskuak eta oinak ere bereak dira, zergatik desagerrarazten ditu? Horrexegatik, bereak direlako. Bereak direlako eta gustatzen ez zaizkiolako. “Ispilutxo, ispilutxo, nor da ederrena?” Ipuineko erreginak bezala botatzen du galdera hain gaizki ez dagoela iruditzen zaionetan. Gaur ispiluak hitz egiteko erabakia hartu eta “Cleo” esan du. A ze susto-aurpegia gure protagonistarena! Ez zuen halakorik espero. Ikusi izan ditu txanpona sartzeko eskatzen duten makinak, eta “ateak ixten” dioten igogailuak, baina hitz egiten duen ispilurik... Edurnezuriren ipuinean bakarrik. “Zu, zu zara ederrena” izaten zen amaorde gaiztoak jasotzen zuen erantzuna. Zergatik ez du hori esan Cleoren ispiluak? “Cleo”. Beste Cleo bati buruz ari ote da? Beste Cleo bat zen Cleo gaixotu aurretik. Lehengoa izaten jarraitzen duela pentsatzea atsegin du, baina lehengoa idealizatuegia dauka ispilu aurrean ikusten duen gorputz akastuna harena dela onartzeko. Agian hil zen neska txiki hura. Agian galdu. Distira berezia ispilukoaren begietan. Agian bere baitan bizi da. “Bai, hemen zaude, badakit” xuxurlatu dio kanpoko Cleok barrukoari.

ORDUTXIKITAKO HITZ LERROAK

Naroa Elortegi

Astlehena

Orbanak ikusten ditut
antzeman ezinak.
Ikusten ditut sabaian.
Hezetasun itxura
dute, baina ez du
euririk ari.

201 ardi pasatu dira,
urduritasunez, azkarregi.
Baina 202.a jausi egin zait.
Beste orban bat ikusten
dut. Atzo jaso behar nuen
eta ez da iritsi. Bihar idatzi
behar diot, geratzeko.
Datorren astean afaria.

200, 201, 202, 203, 204.
Ibiltzeko gogoia dut,
makulurik gabe. Eta udan
bizikletan, lanetik bueltan.
Astlehenean ezagutuko
ditut. Orbanak handitzen
doaz nire gelako sabaian.
Elkartuko diren beldur naiz.

Baina laster jaiak.
Uda dator. Ardiak.
Ardiak. 205, 206,
207 Bihar amamari
bisita. Eta mezua.
Bidali behar diot.
Gero siesta. Logura izango naiz.

ARDIAK. Zenbat? 205? Logura
dira. Buruz behera dauden
intsektuak ez ote dira inoiz
zorabiatuko? Ikusten ditut
sabaian. Arren piztu argia, itzali
ie zadazue burmuina. Nekeaz
hilko naiz. Ezinegonaz.

Asteartea

Hamaika bira eman ditut 1,2ko ohe txikiagi honetan. Handiago bat behar dut. Hemen ez zaizkit ardura guztiak kabitzen eta ezin lasai egon. Ez dut ulertzen, gaur ez dut kaferik edan. Ezta siestarik egin ere. Hankarteak ez du erantzuten. Garuna ez zait isiltzen. Logura naiz. Edan dut esnea. Hiru aldiz txiza. Logurak eztanda egiten dit buruan. Ez da zentimetro karratu freskorik gelditzen izaretan. Telebista piztuko dut, sofak irentsi nazan.

Asteazkena

Ezin logura gehiago izan. Pasatako gauen ondorio. 8 segundoz arnastu. 6 segundoz eten. 4 segundoz bota. 8 segundoz arnastu. 6 segundoz... 4... 8... 6... ...

Nork sinisten du honetan? Bihotzak ez ditu segundoak errespetatzen. Mukiak ditut, ez didate arnasten uzten. Ez behar den denboran. Logurak itotzen nau, airea askatzean.

Intsektu guztiak erail ditut, gogaitasunez. Argi egiten du pozoiak. Entxufetik edaten. Bakean utz nazaten. 8...6...4... 8...7... Pasatu naiz. 8...

Komunera noa. Ateak ez dit pasatzen utzi nahi. Izkinarekin jo nau. Ezkerreko begia zabaldu zait erdizka. Ilun dago eta argiak min ematen du.

Bonbari tira egin eta korrika egin dut salto ohera. 8...6...4... 8...6...4... Ez dut gehiago arnastu nahi. Lo egin nahi dut.

Osteguna

Ditxosozko astea. Saguzar
bihurtu ote naizen beldur naiz
Ez dut zenbatu nahi. Ez dut
telebistarik nahi. Ez dut
arnasarik nahi. Lo seko gelditu
baino.

Komuneko botikan sendagaiak
iraungita daude. Hemen ez da
inor gaixotzen. Ni bai.
Sakonean daude sendatuko
nauten pilulak. Sakonean
orbanak bezala. Baina bueltan
datoz. Dakartzat.

Edalontzi bete ur. Irentsi ditut
ezinegonak, atzokoak eta
biharkoak. Fresko daude
izarak. Sabaia intsektuz libro.

Ostirala

Pozik daude garagardoak
bihar iratzargailurik gabe.
Irribarreak lerdea maite du.

Larunbata

Ez dago geldi ohea.
Gin-tonikak ilaran doaz
komunaren bila. Txupito bat
eskaini dit ispiluak. Baietz esan
diot zabal dezala txorrota.
Itsasoan arrainak egarri direla.
Ur gazitan.

Bi zerbitzatu dizkit edalontzirik
gabe, zuzenean txorrotatik.
Burua harraskan, gora begira,
ura paparretik behera.
Intsektuak ez dakit, baina ni
zorabiatu naiz.

Domeka

Arratsaldeko zazpiak
pilotalekuko esatarientzat.
Alkoholak min ematen dit
ajejan. Euria ari du berriz
oraingoan nire barnean.
Trumoi eta guzti.

Astelehenaren beldur naiz.
Baina loak hartu nau. Sofan.
Gozategi abesten. Zazpi
egunetatik behin. Bihar ardiak
etorriko dira.

EN CRISTINA

Mercè Rodoreda
Itzulpena: Joannes Jauregi

Horrenbeste urte bizi izan zara barrenean?... Eta nola konpondu zara?, esaten didate. Paperak egin behar dizkizute. Eta begiratu naute, eta ikusi dut irri-tankera bat hasi zaiela aho ertzetan. Etorri berriz ere, esaten didate, etorri. Baina berriz joaten naizenean nazkatu egiten zaizkit: zatoz bihar, oraindik ez dakigu ezer, zatoz etzi. Eta haietako batek, bibotedunak, eskua luzatu du bi hatzak ondo juntatuta, eta giltza jiratzeko keinua egin, eta esan dit, begirada txar batekin: ez bazatoz paperen bila, badakizu... Eta eskuari jira eta jira... Eta nik pena bat daramat hil egingo nauena, baina inork ez daki. Halaxe izan zen, eta ni testigurik gabe. Eta ez naiz kexatzen.

Itsasoa dena zen intziri eta haizete eta olatu-parpaila, eta ni heldua eta botea, botea eta heldua, listua bezala egotzia eta tragatua eta oholari besarkatua. Dena zen beltza, itsasoa eta gaua, eta Cristina hondoa jota, eta ordurako ez ziren aditzen uretan hiltzen ari zirenen garrasiak, eta pentsatu nahi nuen pertsona bakarra geratzen zela bizirik, eta ni nintzela, suertea izan nuelako marinel sinple bat izateagatik eta kanpoan egoteagatik barkuan dena txartzen hasi zenean. Hodeiak lodi ikusi nituen batere gogorik gabe, luze-luze erorita olatu amorratuen gainera, eta orduan, hodei haiek guztiak gainean neuzkala, barren-barrenera zurrupatua sentitu nintzen, besteetan baino barrenerago. Beheraka nindoan, zurrunbilo eta arrain ikaratuen artean, zeinek matraila igurzten zidaten, beheraka, alajaina, ura uraren barruan zeraman uholde baten joanean, maldan beheara, eta, ura lasaitu eta pixkanaka jaisten hasi zenean, arrain-isats gizen batek hanka jo zidan, eta ja ez nuen hodeirik ikusten, baizik inongo errairen semek sekula ikusitako ilunetan ilunena, eta oholak salbatu ninduen, zeren oholik gabe igual ailegatu nintzen ur tragatua amildu zen tokira ere. Saiatu nintzen zutik jartzen eta oinez hasten, baina lurra irristakorra zen, eta ustez banekien non nengoen, baina nahiago nuen ez pentsatu, zeren gogora etorri zitzaidan amak zer esan zidan hil-ohean. Ni haren ondoan nengoen, oso triste, eta amak, itotzen ari zen arren, esertzeko adina indar bildu zuen, eta, txatar arteko haga baten tankerako beso luze eta ihar bat luzatuta, belarrondoko bat eman zidan, esanez, justu-justu entenditzeko moduan: ez pentsatu! Eta hilda geratu zen.

Makurtu egin nintzen, eskuarekin lurra ukitzeko. Irristakorra zen, eta, ukitu bezain pronto, tronpa- intziri sakon bat aditu nuen ondo-ondotik, marru bihurtu zena pixkanaka. Eta marru eta intziriek birika-pare zahar eta nekatu baten zurrunga ematen zuten, eta lurra altxatu egin zen, eta ni eserita erori nintzen, oholari helduta. Erdi zorabiatuta

nengoen, eta ez nekien zer pasatzen zitzaidan konkretuki, bakarrik nekien ez nuela ohola askatu behar hil arte, egurrak urak baino indar handiagoa dauka eta. Ur harrotuan, egur-pusketa leun batek beste ezerk baino indar handiagoa dauka. Jakin nahi nuen non nengoen konkretuki, eta, zerebroaren parte bateko oinazea arintzen hasi zitzaidanean, aurrera joaten saiatu nintzen; dena zen olagarro izutuaren tintaren kolorekoa, eta intziriak bukatu ziren, glu-glu, glu-glu aditzen zen bakarrik. Eta oinen azpiko lurra, berriz ere zutik bainengoen, goma samurrezkoa zen, zuhaitzek enborrean behera isurtzen duten goma berekoa, goma jaso, landua eta lehortua eta gero beroak leundua, baina han hotza egiten zuen, eta hortzak karraska neuzkan. Lelotuta nengoen, eta lurean eserita bukatu nuen berriz, ohola hanken gainean. Besoa luzatu nuen, eta pareta ukitu nuen esku luzatuarekin, eta pareta guztia mugitu egin zen deskantsurik gabeko olatuaren indarrarekin, ezinegon zahar-zahar bat bezala. Ohola bere horretan hartu nuen, trabeska, eta paretan iltzatu, mugitzen ari baitzen, eta ohola eta biok airean joan ginen, eta berriz lur zingiratsura erori. Ohol-kolpeka! Lurrean iltzatzen nuen, eta fuerte zegoenean pauso bat egiten nuen, eta hola, neke-izerditan, eroriz eta altxatuz, toki xelege bat batera ailegatu nintzen, iluna, baina kolorez betea; kolore ere ez ziren koloreak, mamu-koloreak, urdina eta horia eta gorria piztu eta itzali, gerturatzen eta urruntzen, kolore ere ematen ez zuten koloreak, suaz bestelako su bat zirenak eta ezin ditudanak esplikatu, beti kanbiatzen eta urtzen. Argi pixka bat sartzen zen, argi mehe eta makal bat, eta ni gerturatuz joan nintzen, eta ilargia ikusi nuen han kanpoan, bizar-sareta baten bestaldean. Oholari heldu, eta ordu askori pasatzen utzi nien. Iruditzen zait. Zeren auskalo non sartu zen denbora. Eta ilargia makurtu zenean, koloreak irisatzen hasi ziren, eta orduan konturatu nintzen ez nintzela arnasarik hartzen ari, eta ura neukala belarrietan behera, erreka bat lepoaren alde banatan. Eta ez zen ura, baizik odola, zeren antza denez belarriak lehertu egin zitzaizkidan barrendik, eta, behatz-mutur bat pasatu nuenean odolak epeldua zidan lepoan, astindu bat sumatu nuen ni nengoen tokitik bertatik, eta astinaldian ur-bafada bat igo zen, digeritu gabeko arrainen kiratsarekin batera. Eta urak sorbalda tapatu zidan, eta suertea izan nuen hor geratu zelako eta pixkanaka jaisten hasi, baina arrainen kiratsa geratu zitzaidan gorputz guztian. Ez neukan odol gehiago belarrietan behera: airea pasatzen zitzaidan, arnasbi-dea kanbiatua nuen eta. Lurra fuerte jo nuen oholarekin, eta ez zen ezer pasatu, ez intziri, ez astinaldi. Aurrera segitu nuen, oholari besarkatuta argi koloretsuen artean, jakin gabe lehen ikusi nituenak ote ziren edo beste batzuk, baina luzatzen ari ziren, eta argia sartu zen bizar-saretatik, egunsenti jaiki berria, eta itsaso baretuaren bakea sumatu nuen, zeraren zera bat ezin dudana esplikatu, nire mundua borratzeko puntuan balego bezala. Gelditu egin nintzen, eta, belarrietatik sartu-atera zebilkidan airetik, arnasa zabal bat aditu nuen uraren plisti-plastaren artean. Gero, iruditu zitzaidan estropezu egin nuela hartxintzarren artean, baina mingain baten pikorrak ziren, eta halako batean ohola eta biok airean joan ginen, eta besarkada estu bat-edo sentitu nuen. Arnasarik gabe uzten zaituzten horietakoa. Ur- parrasta batean erdi aterea nintzen balea baten bizkarzulotik, eta oholak salbatu ninduen bala bat bezala ateratzetik. Eta makina bat gauza ikusi nituen, ordurako askotan ikusiak nituenak, baina beste nonbaitetik, alajaina! Itsaso guztietako balearik gizenena zen, distiratsuena, zaharrena. Gau

guztia emana nuen haren barrenean. Argitzen ari zuen poliki, eta ni bizkarzuloan nengoan, matrailezur minberatutik zintzilik, zuloaren bestaldeko oholari helduta, hankak dilin-dalan, eta bi erreka handi ikusi nituen itsasoarekin juntatzen, oso diferenteak bata eta bestea. Erreka haietako urek bi kolore zeuzkaten: bata gorria zen, lurraren kolorea-gatik, eta bestea berdea, itsas belarrengatik. Eta bi kolore haiek dantzan zebiltzan lasai, nahastuz eta separatuz. Dantza eta dantza koloreen dantza. Ni gorria naiz, ni berde-berdea. Orain jantzi gorria, orain berdea erantzi. Berdea behetik kukutzen da, orain gorria azpian gordetzen... Eta, begira nengoela, eguzkia atera zen, eta zuloa zabaldu, eta harri bat bezala erori nintzen. Orduan, barruan zer zegoen ikusi nuen: marinel bat neukan ondoan, ur-listuetan balantzaka. Mingainaren gainean zerraldo, gertu-gertu, gorbata lokarri batean lotuta, aingura bat mahukan, galtzak hanketara itsatsita, aurpegia more, begiak irekiak eta hutsak. Hiru arrain haren eskuarekin bazkatzen ziren. Uxatu nituen, baina itsututa bueltatu ziren. Ni ere goseak nengoan, baina eutsi egin nion, eta, oholari helduta, agur egin nion heriotzari, eta himnoa abestu nuen. Hiru egun pasatu nituen arrainen atzetik, alde batetik bestera, eta tarteka mingainaren kolpe batek matraillaren kontra bultzatzen ninduen. Harik eta... min ematen dit esateak... Marinela kanpora ateratzeko eginahaletan pasatu nituen hiru egun haiek. Baleak bizarrak estutzen zituen, eta nik hortzak estutzen nituen, eta gerrikoa estutzen nuen indar gehiago egiteko. Gerrikoa estutzearen estutzeaz, gosea piztu zitzaidan, eta marinela puskaka jaten hasi nintzen. Gogorra zen, eta aise ezpaltzen zen. Nerbio asko. Nahiago nuen marinel ezezagun bat jan beharra, eta ez ezagun bat. Arraintzarren batek hustuko zuen marine-la oraindik uretan zebilenean. Dena zeukan, salbu begiak eta tripako poltsa tristeak. Horri esker kontserbatu zen, eta egun gehiago iraun zuen. Hezurrik txikienak bizarren artera botatzen nituen, baina handienak niretzat utzi nituen. Eskuinaldeko bizarrek ezkatak zeuzkaten, eta garbiak ziren. Ezkerrekoak zintzilikario nahasi batzuk ziren, itsas belar eta maskor eta muskulu. Beti marinela ez jateko, batzuetan itsaskia jaten nuen. Egarria zen txarrena. Baina beti dago soluzioren bat. Eta egun batean, mirariz, lapiko bat sartu zen. Segituan pentsatu nuen goma-zuhaitzean, eta, bat-batean, lapikoaren kirtena baleari iltzatu nion matrailean, batere errukirik gabe. Biharamunean, zukuz betea zegoen, eta edan egin nuen. Itsasoko ur gaziak gozatu egiten du arrainen haragia. Lapikoa iltzatu nuen berriz ere. Beti zulo gehiago egin behar ziren, kirtenaren zauriak segituan ixten ziren eta. Tarteka, atentzinoa galtzen nuen, eta baleak matraillaren kontra bultzatzen ninduen mingainarekin, eta bertan edukitzen ordu luzez. Mantso-mantso genbiltzan nabigatzen. Zazpi marra eginak nizekin bizarretako bati labanaren puntarekin. Zazpi egun. Goiz batean, bizarren kontra hasi nintzen, zulorik ireki nahian, eta dena zilipurdika hasi zen, eta ni goraka eta beheraka, mingainaren gainean eta azpian, alde batean edo gain-gainean. Eta, ahosabaira itsatsita, garrasi bat eskapatu zitzaidan: geldi, Cristina!... Bat-batean, eserita nengoan, ohola bularrean gurutzatuta. Eta orduan, konturatu ere egin gabe, bataiatu egin nuen.

Klase guztietako itsasoak ikusi nituen bizarren artetik, batzuk urdin eta ardo kolorekoak, pentsa, eta urrezko olatuak zeuzkaten, mendi jelatuak, lanbroa goizaldean. Eta ni dardarka eta sufritzen. Neure buruari esaten nion: lurreko malko guztiak itsasora

ailegaten dira azkenean. Eta arropa usteldu eta desegin egiten zitzaidan. Lehenbizi, galtzen barrenak zirtzildu zitzaizkidan; gero, marinela-jaka, eta arroparik gabe bukatu nuen auskalo nola, gerrikoa eta labana soinean, nakarrezko kirtena gerrikoan sartuta. Laster, zulo gehiago egin behar izan nizkion. Batzuetan, lorik hartzen banuen, amesten nuen gerrikoa estutzen nuela eta gerrikoaren barruan ez zegoela ezer... Kosta berdeak! Kosta haiek ikusi nituenean, errezatzen hasi nintzen. Berriz arriskatu nuen bizia, eta oholarekin joka hasi nintzaion. Cristinak ur azpira jo zuen. Luze egon ginen uraren barrenean. Atera ginenean, arnasa erotuta neukan belarrietan, baina bizarrak ireki egin ziren, dike baten ateak bezala, eta ni Jainkoaren itsaso aldera abiatu nintzen, ja ez baitzirudien malkoz egina, baizik munduko iturri guztien barreez. Eta ohola eta biok itsasoan genbiltzan, hola... balantzaka, lur berdera bidean. Txoriak txioka zebiltzan uraren inguruan, eta iruditu zitzaidan brisarak izpiliku eta pinu usaina zekarrela. Baina, halako batean, bazetorrela sumatu nuen, jiratu ere egin gabe, haren itzala zetorkidan gainera, eta berriz ere barrenean sartu ninduen aho bizartsutik. Eta biziera txarra hasi zen. Sei hilabete, gau eta guzti, barrendik ohol-kolpeka, mingainari joka marinela haren berna-hezurrarekin, eta auskalo non zegoen marinela. Labanarekin gurutzeak egiten nizkien matrailaren bigunari eta mingainaren azpiari. Lapikoaren kirtena hondoratzen nion pozoi zedin, herdoildua baitzegoen, eta gerrikoaren belarriarekin ziztatzen nuen. Azkenerako, ez zen nabigatzen: gogorik gabe zebilen uraren gainean, pixka bat okertuta. Egunak markatzen nizkion labana masailan hondoratuz, eta dardarka hasten zen, gelatinazkoa balitz bezala, eta odol zuria eta odol gorria erortzen zitzaizkion zaurietatik. Masail baten barrena guztiz xehatu nuenean, bestearekin hasi nintzen. Egun batean, mingaineko pikor bat lehertu nion, eta orro bat aditu nuen, hilen eguneko organoa bezalakoa. Gauez, intziri bat ateratzen zitzaion barru-barrutik, batera joko balituzte bezala itsas hondoko kanpandorre guztien kanpaiak, itsaso-gatzen pisuak itota. Cristina balantzaka zebilen sehaska bat bezalaxe, ni loarazi nahian bezala, baina ez nintzen fidatzen. Bera jaten hasi nintzen. Gurutzearen marka egiten nuen, eta gero azpitik haragia mozten, eta ongi mastekatuta jaten nuen, marinela jana nuen bezala. Egun batean, intziriek pertsonaren batenak ematen zuten, eta Cristina hondora joan zen, eta luze egon zen ur azpian. Nik belarrietatik arnasten nuen, baina azalera bueltatu ginenean uretako infernutik nentorrela ematen zuen. Ahoko gingila mozten nion, ohola eztarriaren hasieran tratatuta uzten eta mingaina labankadaka urratzen. Gurutzeak eta gurutzeak, egunak eta egunak. Batzuetan, ohol-kolpe bat ematen nion matrailean, haragiz hustuen zeukan tokian. Gelditu gabe. Mingaina gogorregia zeukan; matrailla bakarrik jaten nion, eta berriz sortzen zitzaion haragia, eta udaberriko belarra bezala hazten ikusten nuen. Marinelaren berna-hezurra mingainaren azpian jartzen nionean, seko erotzen zitzaidan, unxi bat bezala. Baina, bakean uzten nuenean, nabigatzen hasten zen berriz, pixka bat okertuta, poliki-poliki, eta ematen zuen itsasoko ura nekatuta zegoela astinduez eta garrasiez, eta lodia zen, eta zaila. Denbora bazihoan, egunak, hilabeteak eta urteak, eta gu beti aurreraka, zeren errai ilunen batean sumatzen genuen zerbait geneukala zain aurkitu ezin genuen tokiren batean; igual itzalaren gaineko azken argi-printza, edo gauzek partitzean uzten duten memoria fina. Azkenerako, nekatu egin nintzen. Matrailaren zulo batean kizkurtuta bizi nintzen, eta Cristinak bertan gordetzen

ninduen, mingainarekin pixka bat bultzatuta, eta nik sumatzen nuen azala ihartzen ari zitzaidala, eta kontua da zarakar bat jantzi zidala bere listuarekin. Eta ez baleak ez nik ez genekien zer itsasotan ari ginen nabigatzen, harik eta gau batean behea jo zuen arte arroka baten gainean, eta arroka hartan hil zen, barrua guztiz markatuta. Plaia ez zegoen urruti, arraunean ordu erdira edo. Oholarekin kolpeka ireki nahi nituen bizarrak, baina ezin nuen, zeren oholak ustelak zituen ertzak, eta motzagoa eta finagoa zen. Sufrimendu handiarekin, bizkarzulotik atera nintzen, eta kanpoan nengoenean irristaka jaitsi nintzen bizkarreko kurban beheara, eta linboen mundua behar zuen mundu batera ailegatu nintzen. Itsasoak hondarretara bota ninduen, eta han jaso ninduten. Esnatu nintzenean, ospitalean nengoen, eta moja bat esne jetzi berria ematen ari zitzaidan, eta nik ezin nuen tragatu, mingaina eta eztarria harrizkoak neuzkalako. Eta beste moja batek, egurrezko mailuxka batekin, zeina, gero esan zidanez, propio egin behar izan zuten, zarakarra jotzen zidan, perlazkoa baitzen, eta horrela kentzen zidan. Hasieran, zarakarra zartatu egiten zen mailukadekin. Egun batzuk pasata, puskaka askatzen zen, mojak ura botatzen baitzion aurretik prestatutako porroi batekin. Eta moja etsiak hartuta ari zen lanean, eta esaten zidan: jauna, azpiko azalak lur-zizare batena ematen du. Eta ia zarakar guztia kendua nuela, eskuineko masaila eta buruaren erdia faltan, mojak lihozko galtza batzuk eman zizkidan, eta esan zidan paperak egitera aurkeztu beharra nuela. Eta aurkeztu nintzen, eta segituan galdetu zidaten hori, nola konpondu nintzen hainbeste urte bizitzeko, eta ea gezurretan ari nintzen... Eta haize-eguzkiek, landareak ere ontzen baitituzte, larruazala guri-guri utzi zidaten, eta eskerrak larruazalik ere banuen, zeren Cristinaren masaileko hutsune hura bezalakoa nintzen osorik. Eta nahikoa ibilia nintzenean, ospitalera bueltatu nintzen, eta mojak galdetu zidan ea larruazalak min ematen zidan kalean, oso mehea zen-eta, eta nik erantzun nion larruazalak mina ematen zidala, min handia, gainera, baina zarakarra mailuxkarekin pikatzen zidanean bakarrik, eta ur preparatu horrekin bustitzen zidanean, bor-bor hasten baitzen nirekin nahasten zenean. Gero, ohera sartzen nintzen kontuz-kontuz, eta lo kaskarra egiten nuen. Egun batean, ospitaletik atera ninduten, noski, sendatu nintzela esanez. Zopa platerkada bero bat eman zidaten esne jetzi berriaren ordeaz, eta lehenbiziko koilarakada hartutakoan listuka eta korrika hasi nintzen, barrenean zauri bizi baten antzeko zera bat baineukan, karraskatua eta gaiztotua ene Cristinari jana nion haragi ustel guztiagatik. Kalera atera nintzen, oraindik garrasika, eta mutil koxkor batek, erdi izututa, hari begira nengoelako, behatzarekin seinalatu ninduen, eta besteei esan zien, boz beheara: bera da, perla. Oraindik ere eskuetan neukan maskorren alde lau koloreen distira... Eta haurren begiak ikusten nituen, begi beltz eta urdinen mahats-sorta bat, beti niri segika, ezeri eutsi gabe airean baleude bezala, haien kasa baino ez... Gelditu egin nintzen, masaila eta buru erdia perlazko zarakar, hain ongi itsatsia, hain ongi ezkondua nire haragiarekin, mailuak ezin izan baitzuen puskatu. Eta geldi egon nintzen, haurrak niri begiratzeaz aspertu arte, eta orduan labarraren gain-gainera igo nintzen, herritik kanpora, gauza guztien gainera, hara non ezin den gorago igo, non kaioket habia egiten duten eta tximeletak bizi diren udazkenean. Eta bihotza bete-betea neukan gauaren barreneko izarren tankerako gauza dardartiez, eta hola geratu nintzen itsasoari eta itsasoa estaltzen zuen ilunari begira. Zeruan, eguzkia lotarako erretiratzen

den aldean, arrosa ukitu bat arrastatzen zen oraindik, eta pixkanaka urtuz zihoan, eta, dena belztu eta berehala, argizko kamio bat sortu zen itsasoan, zabala eta geldia, alderik alde, eta argizko kamio zabal eta geldi hartatik pasatu zen ene Cristina, bizkarzuloa jarioan, eta ni haren bizkarraren gainean, oholari besarkatuta, lehen bezala, mari-nelen himnoa kantatzen. Eta, nengoen tokitik, labarraren gain-gainetik, oso argi entzuten nuen han beheko himnoa, neuk kantatua ur-eremu zabal haren erdian, kamioan aurrera ene Cristinaren gainean, zeinari odol-arrasto bat zerion. Kanta bukatu nuen, eta Cristina geratu egin zen, eta ni batere arnasarik gabe nengoen, begietatik eskapatu balitzait bezala, harik eta ene Cristina, eta ni neu haren gainean, agurka eta isilik, galdu egin ginen arte, harantz, itsasoa urrutirago joateko tolestean den tokirantz. Hankak tolestu eta lurrean eseri nintzen, eta loak hartu ninduen, besoak hanken gainean eta burua besoen gainean. Oso nekatuta egongo nintzen, egunabarraren argiak esnatu ninduen-eta, kantuan ez dakiten txorien garrasiekin. Zuri-zuriak ziren, eta arroketo zuloetatik ateratzen ziren, elkarri konpainian hegaldi luzez, hegalak astinduz, eta itsasora botatzen zuten beren burua, harriak balira bezala, eta berriz hegaldatzen ziren, distiratsu eta arrainak mokoan, kumeei emateko, eta batzuek habiatarako adaxkak eta belar-izpiak zeramatzen arrainen partez. Altxatu egin nintzen, garrasiekin zorabiatuta, eta itsasoa leuna zen teilatu bat bezala, eta herri aldera jaisten hasi nintzen, eta, lehen-biziko etxeetatik gertu nengoenean, andre zikin eta narras bat atera zen sarrera batetik, eta gainera bota zitzaidan, zinkurinka, ni bularrean joka eta oihuka: nire gizona zara, nire gizona zara eta utzi egin ninduzun... Eta zin dagit ez zela egia, sekula ez bainintzen herri hartan egon, eta akordatuko nintzen sekula emakume hura ikusi izan banu, goiko hortzak azpiko ezpainaren gainetik zeuzkan eta. Besoarekin apartatu nuen, eta lurrera erori zen, eta kontuz erretiratu nuen ostiko batekin, zeren ume bat begira zegoen leiho batetik. Eta berriz ere joan nintzen paperak egingo zizkidaten tokira. Ez dakit zer ari ziren ospatzen, baina denak ari ziren urrezko ardoa edaten kopa txiki batzuetan. Tente zeuden, eta bibotedunak segituan ikusi ninduen, eta enbarazurik nahi ez balu bezala begiratu zidan, eta beste bat ikusi nuen, mahukak bilduta ahopeka hizketan burusoil baten belarrian, eta haren ezpainen mugimendutik sumatu nuen zer zioen: perla. Eta denak begira geratu zitzaizkidan, eta etorri zitzaidanak berriz esan zidan: bihar. Eta ate aldera eraman ninduen, eta ia kanpora atera, esanez: bihar, bihar. Kanta batean bezala.

Hiru poema itzuli: Aldika, Oroit ezazu, Santa klara uhartea |

*(Tras)lúcidas, poesía escrita por mujeres (1980-2016), Apailatzailea: Marta
López Vilar (Bartleby, 2016)*

Aldika

*Begonya Pozo (Valencia, 1974)
Katalanetik itzulia*

(Miguel Angel Arcasekin elkarrizketa)

Eguzkien gisakoak dira egun batzuk
zeintzuetan norbera iluntasunez eta marrubiz beteta
topatzea baita begiak zabaltzea.
Eskuen gisakoak dira egun batzuk
zeintzuetan sandalo usainak zulatzen baititu ahanzturak
eta misterioen gisakoak dira egun batzuk
zeintzuetan lehertzeaz dagoen klariona bizia baita edertasuna.
Bach gabeko egunak ere badira
musurik gabeko kopetak badiren bezala.
Edo ilargi beteen gisakoak dira egun batzuk
haragikeria nekatuaren begirada bat itxaro dutenak.
Eta, aldika, biluztasunaren gisakoak dira egunak
zeintzuetan behin baino gehiagotan argitzen baitu

Oroit ezazu

Ada Salas (Cáceres, 1965)

Gaztelaniatik itzulia

Oroit ezazu ezer ez dela
dirudiena. Ezta
ezereza ere. Zergatik izan beharko
zinateke beldur. Haragia erauziz gero
oraino
hezurrek diraute. Eta hezurrak
zer dira. Agian
ez dira ezer baina orduan
oroit ezazu
ezer —ez hezurrak
ezta ezereza ere— ez da
dirudiena. Eta bizia
hazten dela
heriotza hazten den lekuan.

Santa Klara Uhartea, 1.

Susanna Rafart (Ripoll, Girona, 1962)
Katalanetik itzulia

Hotsetik hotsera, neure burua askatu behar dudan
pauoa bilatzen du neure iluntzeak,
urteotan guztiotan jantzi dudan soinekoaren
itxaronaldi debekatua,
pasabide piztua.

Musua da bidea, eta ez itsasontzia,
denborarik gabe denbora bilatu nuen
azpimunduko adakera hezea.

Bigarren sugarra, oraingo erdigunea,
zefiro deslotuaren uharte-ardatzera
naraman harria.

Itsas olatuarengandik
babestutako kai errea,
suminez eta minez
zaldien gisara irrintzi dagiten
kaio errauskarei
ezentzunez zugana noa.

Haien mintzairatik edatearen gaizkiari
naufragatu zuten patroien belar zaharra
gehitzen zaio. Desadostasuna dago
zaharraren eta heriotzaren artean,
gaztearen eta edertasunaren artean dagoen gisara.

Ziurtasun sakon batera heltzen naiz
eta errezel zabaldura, non barneratuko bainaiz
bilatzera, iturri garbian, azken izena.



Errepide luze bat zen, eta sigi-sagatsua izan balitz ez genukeen urrutiko puntu batean asfaltozko orratz bat ikusiko zerua zulatu nahian. Eguzkiak gain-gainetik eraso egiten zigun eta haren erasanak paretik zetozen kotxeak lausotzeraino berotua zuen giroa. Ez zen hargatik *far west*eko paraje soildu bat, aldiro bazterrean uzten baikenituen hainbat restop, egunaren itoan arnasa eman nahi zutenak.

Zer esango dizut nik, baina, han zeunden eta. Momentu hartan ez jakinagatik bizi gindoazen eta berehala jarriko ginen zure Seat gorriaren parean. Eta orduantxe aurreratu zintugun, edo geroxeago bestela, eta segundo batez ikusi zintudan eta uste dut zuk ere ikusi ninduzula. Keinu motel batez jiratu zenuen burua, edo hala iruditu zitzaidan, gure kotxea jarraitu zenuela iruditu zitzaidan zure begiradarekin.

Eguerdia zen eta restop batean geratzeko gertu ginen, goizean prestatutako jan hondarrak jateko. Bero sapak itzal bat bilatzera behartu gintuen, han bazkalduko bage-nuen ez genuen freskura apur bat bilatu beste aukerarik. Autopistako txapa eta asfaltotik atereak ginen arren kotxeen txistu hotsa entzun zitekeen oraindik, eta tenperatura ez zen errepidean baino hobea.

Eta orduan agertu zinen ostera, baina zer esango dizut nik, orduko hartan ikusi ninduzun eta. Ezin bazkaltzeko itzalik aurkitu eta atzera kotxera sartu ginen unean iritsi zinen, Seat gorrian restopera sartu berri zinen. Geldi geunden gu oraindik eta geldo igaro gintuzun, eta keinu motz batez altxa zenuen burua, *bai, e, ikusi zaitut* esan zenuen keinu sotil batez. Ni eserita nengoen, atzeko eserlekuan burua jiratuta, eta keinuari beste bekain-altxatze batekin erantzuteko baino ez nintzen izan gai, eta begira egotetik ikustera pasa nintzenerako autopistan ginen berriz.

Leku ezagun batetik urruntzen ari nintzen sentsazio arraroz urrundu nintzen restop hartatik bertan aurretik sekula ez egonagatik, edo Seat gorritik aldentzeak eragingo zidan akaso sentsazio hura, zu aurretik segundo bakar batez ikusiagatik, hiru segundoz baino ez eginagatik bat bion begiradak.

Horregatik esan nizun peajeko ilaran begiradaz, elkarren parean geratu ginenean, ez alde egiteko, geratzeko. Itzaroteko eta leihatila jaisteko, eta egoteko, elkar berriz ez ikusteko ideia hutsak itotzen ninduela egun sargori hartan.

Baina zer esango dizut nik, hamaika aldiz hitz egin dugu-eta zuk eta nik ordutik hartaz.

ERREPIDE LUZE BAT ZEN, ETA

Gabriel Errekabide

SAGARROIAREN HERRA

Amaiur B. Blasco

Idortu da iturria

Idortu egin zait barnean nuen iturria
Eskutokia irekiz ez da ateratzen txorrotik
Lehen ibai alai zenak bustitzen zuen gogotik
Orain tanta pare batez ezin dut ase egarria

Ene barne mundua ito dit kanpo beharrak
Jana eta beroa ordaintzen dizkidan lanak
Etxe batek birentzako suposatzen duen zamak
Betebeharrek dizkidade ahitu ene indarrak

Hastapenean ez nuen errateko nuena
Paperean idazteko denborarik topatzen
Orain aldiz denbora tartea dudalarik hartzen
Ohartzen naiz ez dudala lehen hor nuen sormena

Lehen sorgina nintzen eta orain ez dut sormenik
Antzutu zait burua eta idortu mihia
Ezin deskribatu buruan dudan irudia
Ene hatzek ez dute hitz egiteko ahalmenik

Orain ez dut gehiago ingururat so egiten
Jada ez dut ikusten ene begiak hestean
Lehen munduak ematen nituen paperean
Orain munduak nau ene paperean ematen

Ze merke saltzen dudan nik ene askatasuna
Nola izutzen nauen zorraren aizto zorrotzak
Nola eskertzen dudan lotzen nauen kate motzak
Ematen didan dirua eta erosotasuna

Eroso bizi naiz baina baita ere ero, oso
Barneko hitzak izoztuz berotu nahi dut kanpoa
Ene indarrak ahituz ene denbora hor doa
Mutu, itsu eta gor bizi-zea ez da goxo

Arras laketu nauzu su-eten amaigabean
Akidurak eta etsipenak armagabetzean
Gose gorriak ez nazan kolpa bete-betean
Ogi papurrez uros naiz nahiz eta ez-ia amestu

To you, Monsieur

Hire hizkuntzan erranen diat, urde ustela.

That I don't count after all.
To you, Monsieur,
pour vous qui après tout
ne croyez pas en moi.

Ma parole! Ma parole,
to you, Monsieur,
my word and my worth too
en ont bien peu de poids.

Mi forma de hablar,
to you, Monsieur,
no es la que tienes tú:
donc, un pêché en soi.

Me pregunto, Monsieur,
por qué to you, Monsieur, por qué
mi versión no es fidedigna
ni es digna, y te indigna
mi forma de vestir.

Faut me punir, me faire pâtre;
matar, callar, y destruir.
Que deje de cantar
en este mi hablar.

Apparamment, Monsieur,
my accent et mes barbarismes
my mother tongue, my bastard rhythm
my alien mix of alien rhyming
mes gestes qui clôchent, my mirror miming
my sounds and pounds and howling hounds
vous blessent, vous, et blessent les Cieux.

Donc, soit. Bless you, Monsieur.

ABIADURA GALTZEN

Samantha Schweblin
Itzulpena: Itziar Ugarte Irizar

Tegok arrautza nahaski bat prestatu zuen, baina mahaian eseri eta platetera begiratu zuenerako, jada ez zen hura jateko gauza.

—Zer duzu? —galdetu nion.

Denbora hartu zuen begirada arrautzetatik altxatzeko.

—Arduratuta nago —esan zuen—: uste dut abiadura galtzen ari naizela.

Beso bat mugitu zuen alde batera eta beste aldera, motel eta amorragarri, apropos esango nuke, eta niri begira gelditu zen gero, nire epaiaren zain bezala.

—Ez daukat ideiarik ere zertaz ari zaren—esan nuen—; lokartuegi nago oraindik.

—Ez zara konturatu zenbat denbora behar dudan telefonoa hartzeko? Ateraino heltzeko, basokada bat ur edateko, hortzak garbitzeko... Kalbario hutsa da.

Saso batean, Tegok orduko berrogei kilometroko abiaduran egiten zuen hegan. Zirkua zerua zen; nik kanoia pistaren erdiraino herrestan eramaten nuen. Argiek publikoa ezkututzen zuten, baina haien aldarria entzuten genuen. Belusezko errezelak ireki, eta Tego bere zilarrezko kaskoarekin agertzen zen. Besoak altxatzen zituen txaloak jasotzeko. Haren jantziak distira egiten zuen harea gainean. Ni bolboraz arduratzen nintzen berak gora egin eta bere gorputz mehea kanoian sartzen zuen artean. Orkestako danborrek isiltasuna eskatzen zuten eta dena nire esku gelditzen zen. Krispeta poltsak eta ez tul urduriren bat baino ez zen entzuten orduan. Poltsikotik pospoloak

ateratzen nituen, oraindik neurekin dudan zilarrezko kaxa batean eraman ohi nituenak. Kaxa txiki bat, hain distiratsua ezen harmailetakoa azken jarlekutik ere ikus zitekeen. Zabaldu, pospolo bat atera eta nire kaxako lixa aldearen aurka jartzen nuen. Nigan nituen une horretan begirada guztiak. Mugimendu azkar batekin sua sortzen zen. Metxa pizten nuen. Txinparten hotsa alde guztiera hedatzen zen. Nik aktoreen moduko urrats batzuk egiten nituen atzeraka, zerbait izugarria gertatzeaz zela iradokiz —publikoa kontsumituz zioan metxari adi— eta bat-batean: Danba. Eta Tego, gezi gorri eta dirdiratsu bat, ziztu bizian atera zen abiadura betean.

Tegok arrautzak alboratu zituen eta kostata jaiki zen aulkitik. Gizena zegoen, eta zaharra zegoen. Haren arnasa zurrunga astun bat zen, bizkarrezurrak biriketako ez dakit zein gauza zanpatzen ziolako, eta aulki eta mahaietan bermatuta mugitzen zen sukaldetik, aldikoz geldituz atsedean hartzeko, edo pentsatzeko. Batzuetan hasperen baino ez zuen egiten, eta segitu gero. Isilean ibili zen sukaldeko atalaseraino, eta gelditu egin zen.

—Nik bai; uste dut abiadura galtzen ari naizela —esan zuen.

Arrautzak begiratu zituen.

—Hiltzeaz nagoela uste dut.

Mahaiko nire aldera hurbildu nuen platera, bera amorratzeko baino ez.

—Hori gertatzen da batek ondo egiteari uzten dioenean ondoen egiten dakiena —esan zuen—. Hori pentsatzen jardun dut, bat hil egiten dela.

Arrautzak probatu nituen, baina hotzak zeuden dagoeneko. Huraxe izan genuen azken elkarrizketa. Horren ondotik, hiru urrats egin zituen egongela aldera, eta zerraldo erori zen lurrera, hilda.

Tokiko egunkari bateko kazetari bat ni elkarrizketatzera etorri da handik egun gutxi batzuetara. Albisterako argazki bat sinatu diot, zeinetan Tego eta biok ageri garen kanoiaren ondoan, kaskoarekin eta bere jantzi gorriarekin bera, urdinez ni, pospolo kaxa eskuetan. Kazetaria zorutzen dago. Gehiago jakin nahi du Tegoren inguruan; haren heriotzaz ezer berezirik esan nahi ote dudan galdetu dit. Jada ez daukat gogorik hortaz hizketan jarraitzeko eta ez zait ezer etorri burura. Alde egiten ez duenez, hartzeko zerbaite eskaini diot.

—Kaferik? —galdetu dut.

—Noski! —berak.

Badirudi eternitate batez egongo litzatekeela ni entzuten. Baina pospolo bat nire zilarrezko kaxaren kontra igurtzi dut, sua pizteko, behin eta berriro, eta ezer ez da gertatu.

ZALDITERIA GORRIAREN KANTIA

Paul Beitia Ariznabarreta

zaldiak datoz urrundik
trostan datoz, handi, lasai
grina-begi, amets-bisai
oihan beltzaren barrundik

behor gorri, zaldi arre
berrogeien bat badira
oihan beltzetik argira
oin-hots, irrintzi eta barre

berrogeien bat badira
piztion arineketa
urrundik badatoz eta
beti urruna begira

azkar aurreratu ahala
zelaitzen doaz malkarrak
zituzten neke pixarrak
ere zelaituz bezala

behin utzitako mendiak
halakoan parez pare
topatutakoan, bare
jaso dituzte begiak

betiko muino berdean
jartzerakoan apatxa
mantendu dute arnasa
guztiek aldi berean

zaldiak urrundik datoz
beren abialekura
itzultzearen tristura
gailendu zaie lehenengoz

haatik behin behaturik
mendiak eta zelaiak
jaitsi dituzte bisaik
ez da galtzeko astirik

hartu zuten helburu zahar
hura ez dezakete ahantz
handik eta beti harantz
mendi berrietan zehar

mendi berrienetatik
beti urruna begira
berrogei zaldi badira
den-dena dute aurretik



itu